



KANPO-EKINTZARAKO ESPAINIAREN **2025-2028** ESTRATEGIA

**Berezko nortasuna
duen kanpo-politika**

KANPO-EKINTZARAKO 2025-2028 ESTRATEGIA

**BEREZKO NORTASUNA
DUEN KANPO-POLITIKA**



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN



IDAZKARIORETZA

Idazkaritza Tekniko Nagusia

Idazkariorde tekniko nagusia

Dokumentazio eta Argitalpen Alorra

© Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako

Ministerioa. Estrategia eta Prospektiba Dibisioa.

Ministroaren Kabinetea.

NIPO: 108-25-030-9 (Lerroa)

NIPO: 108-25-039-8 (en papel)

Depósito Legal: M-19377-2025

Diseinua eta maketazioa: Cristina Rico. Diseinu grafikoa:

Inprimaketa: Komunikazioko, Diplomazia Publikoko eta Sareetako Zuzendaritza Nagusiaren inprenta

Estatuko Administrazio Orokorraren Argitalpen Katalogoa: <https://cpage.mpr.gob.es/>

Argitalpen honetan klororik gabeko paper birziklatuan eta/edo era jasangarrian eta FSC ziurtagiriarekin kudeatutako basoetako zuntz birjinazko papera erabili da, ingurumenaren eta kontratazio publikoaren irizpideei jarraituz.

Jabetza Intelektualaren Legean xedatutakoari jarraituz, debekatuta dago argitalpen hau osorik edo partez erreproduzitzea; informatikoki tratatzea, edozein eratan edo zernahi bitartekoren bidez transmititzea, besteak beste, era elektronikoan, fotokopien bidez, erregistroen bidez edo beste edozein eratan; baita maileguan ematea, alokatzea eta haren erabilera beste edonola lagatzea ere, aurrez autorearen baimen idatzia jaso ezean, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak soilik erabiltzeko egindako kopiekin izan ezik.

AURKIBIDEA

KANPO ARAZOETAKO, EUOPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTROAREN GUTUNA	5
LABURPEN EXEKUTIBOA	7
I. ATALA: ESPAINIAREN IKUSPEGI ESTRATEGIKOA	11
Mundu bat trantsizio betean: nazioarteko ordenaren hiru aldaketak	14
A. EUROPA INDARTU BAT	16
Europaren autonomia indartzea	16
Gure lehiakortasuna handitzea	24
Europaren segurtasun ekonomikoa bermatzea	27
B. ESPAINIA KONPROMETITU BAT	30
Alderdi anitzeko sistema babestea, erreformatzea eta indartzea	30
Garapenerako lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren aldeko apustua egitea	36
Larrialdi klimatikoari eta biodibertsitate-larrialdiari aurre egitea	38
C. BAKEA ETA SEGURTASUNA ERAKITZEN DUEN ESPAINIA	41
Mundu gero eta gatazkatsuagora egokitzea	41
Koherentziatik bakea eraikitzea	46
Gure erresilientzia demokratikoa indartzea	47
II. ATALA: ESPAINIA MUNDUAN	51
Espainiaren ingurune estrategikoa	52
Europa gehiago, eb-tik harago	52
Latinoamerika eta karibea: agenda partekatu baterako aliatuak	53
Magreb eta ekialde ertaina: bakearen eta egonkortasunaren aldeko apustua gure inguruan	56
Ipar amerikarekiko lotura iraunkorrak indartzea	57
Jauzi bat afrikarekin dugun harremanean	58
Kaukason eta asia erdialdean dugun presentzia sendotzea	59
Espainiak asian eta ozeano barean duen lorratza sakontzea	60
III. ATALA: KANPO-EKINTZAREN OINARRIAK ETA TRESNAK	63
Gure indarguneak eta balioak	64
Estatu-eta herrialde-politika	70
Etorkizunerako prestatutako kanpo-zerbitzua	72
ERANSKINA: 100 EKINTZA BAINO GEHIAGO 2025-2028 ALDIRAKO	79

KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTROAREN GUTUNA

Munduan aldaketa sakonak gertatzen ari dira, eta munduko testuingurua berregituratze estrategiko betean utzi dute. Guztioi eragiten digu egoera horrek: herritarrei, autoritateei, enpresei eta hirugarren sektoreari. Ziurgabetasun, lehiakortasun eta zatikatzeko handiagoko aro baterantz goaz, eta auzitan daude hainbat hamarkadatan lankidetzaren eta integrazioaren bidez egindako lorpenak. Erronka horiek ikusita, geure ikuspegia mantendu behar dugu epe luzean, eta batera erantzun behar diegu, espainiar eta europar gisa. Sinesmen hori dago Kanpo-Ekintzarako 2025-2028 Estrategiaren muinean. Estrategiak aldaketa- eta ekintza-behara onartzen du, baina gizarte moduan bereizgarri dugunarekiko konpromisoa ere bai.

Aldaketa eta ekintza behar da ezinbestekoa delako gure kanpo-ekintza munduko ingurune hauskorrago eta aldakorragora egokitzeko, bakea, segurtasuna eta oparotasuna ezin baitira egintzat jo, eta eragileak izan behar baitugu, eta ez ikusle hutsak. Estrategia honek Espainiarako arriskuak eta aukerak aztertzen ditu, eta berezko nortasuna duen kanpo-politika bat definitzen du, gure interes nazionalak eta balioak babesteko. Espainiak behin eta berriz frogatu du egokitzapen-gaitasun handia duela eraldaketa historikoen aurrean. Hain zuzen, estrategia honen indarraldia bat dator bi mugarri garrantzitsurekin, sinbolikoki: Franco diktadorearen heriotzaren 50. urteurrena eta Espainiako Konstituzioa, hau da, gure bizikidetzako demokratikoaren irudi behinena, onetsi izanaren 50. urteurrena.

Hain dira handiak aurrean ditugun aldaketak, ezen Europa indartsuago eta batuago baten alde apustu egin behar baitugu. Europaren iratzartze estrategikorako garaia da, guztioi eragiten diguten munduko joeretan eragiteko gai den Europarena.

Horrexegatik jarri du Kanpo Ekintzarako Espainiako Estrategiak Europa lehen aldiz erdigunean, aurrera egiteko eta gure gaitasun komunak indartzeko proposamen zehatzak eginez, baita koordinazioa eremu guztietan hobetzekoak ere, esaterako, kanpo-ekintzan, ekonomian, industrian eta teknologian, gure patua eskuetan hartze aldera.

Jarraitutasuna eta konpromisoa da oinarria, Espainiak gizarte gisa definitzen gaituzten balioak babesten jarraitzen baitu, horiei proiektzioa emanez mundu oparoago, libreago, seguruago eta egonkorrago bat eraikitzeko kanpo-ekintza baten bitartez. Espainiak aurrera jarraitu du, arau komunetan oinarritutako nazioarteko ordena zabal baten bidez, eta espainiarrok zinez europar sentitzen gara, konpromiso handia dugu alderdi-aniztasunarekin, garapenerako lankidetzarekin, genero-berdintasunarekin, trantsizio ekologiko justuarekin eta gobernantza teknologiko etikoarekin. Gaur gure kanpo-ekintzak inoiz baino garbiago islatu behar ditu gizarte demokratiko, aurreratu eta ireki gisa definitzen gaituzten balio horiek.

Bide berri hori diseinatzeko, Kanpoko Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak estrategia hau jorratu du, ministerioko gainerako departamentuekin batera eta autonomia-erkidegoak, hiri autonomoak, tokiko erakundeak, alderdi politikoak, sektore pribatua, gizarte zibila eta nazioarteko harremanetako 50 aditu inguru bildu dituen partaidetza-prozesu zabal baten gidari-lanak eginez. Kanpo-ekintza etorkizunerako herrialde-proiektu bat da, guztiontzakoa. Estrategia hau da egingo dugun bidea eta Espainiarako eta Europarako nahi dugun lekua marrazten dituen bide-orria.

José Manuel Albares Bueno

LABURPEN EXEKUTIBOA

Kanpo Ekintzarako 2025-2028 Estrategia berria Espainiaren ibilbide-orria da, sakonki eraldatzen ari den nazioarteko inguruneari erantzuteko plan-teamenduak egiten dituen. Estrategia handizale eta errealista hau nazioarteko testuinguru berrira egokitzen da berezko nortasuna duen kanpo-politika baten bidez, irmoa dena gure interesen defentsan eta gizarte gisa definitzen gaituzten balioekiko konpromisoan. Espainiak munduan leku bat izatea helburua da, espainiarrek arrakastaz garatu ahal izan ditzaten bere bizitza-proiektuak, bere egunerokoan eragina duten erabaki asko gure mugetatik kanpo hartzen direla aitortuz.

Egoera berri honetan eragina dugula bermatzeko, Espainia saiatuko da herrialde gisa dituen **indarguneak** kanpo ekintza hobe baterako palanka bihurtzen, mundu bidezkoagoa, egonkorragoa eta seguruagoa lortze aldera. Horien artean, hauek nabarmendu behar dira: nazioartekotuta eta hazkunde dagoen ekonomia; energia berriztagarrien arloko lidergoa; gizarte irekia, askotarikoa, europeista eta tolerantea; gure hizkuntzetan eta kultura-industrietan oinarritutako eta geraldian dagoen botere biguna eta kokapen geografiko pribilegiatua, gure nazioarteko proiektzioa eta posizioa finkatzen jarraitzen laguntzen digutenak.

Garai ziurgabeak bizitzen ari gara, **bakearen eta nazioarteko ordenaren hauskortasunak baldintzatutako aroan**. Errusiak Ukrainia inbaditu zueneko hirugarren urteurrena izango da 2025ean eta, gainera, indarkeria areagotzen ari da gure ingurune estrategikoan, Saheletik Ekialde Hurbilera. Gaur egun, munduak boterea konfiguratzeko duten faktoreen banaketan dauden aldaketen ondoriozko erroka handiei egin behar die aurre, ezegonkortze-ondorioekin.

Testuinguru honetan, hiru desplazamendu sistemikok aldatu dute nazioarteko testuinguruaren definizioa eta horrek gure kanpo ekintza inguruabar berrietara egokitzeko eskatzen du.

Erronka horietako lehenengoa da arauetan oinarritutako ordena batetik botere-logikak gailentzen diren dinamiketara igarotzea. Nazioarteko zuzenbidea higitzea, gatazkak areagotzea eta zigorgabetasuna haztea mehatxu serioak dira bakerako eta egonkortasunerako. Desplazamendu horrek behartzen du Espainia kanpo ekintza estrategikoagoa abian jartzera, helburutzat multilateralismoaren eta nazioarteko zuzenbidearen defentsa hartzen duena.

Bigarrenik, Espainiak zatiketa ekonomikoko eta lehia estrategikoko testuinguru bati egin behar dio aurre. Maila ekonomikoan, globalizazioari datzeki- on eraginkortasuna lehenestetik, erresilientzia biltzera eta arriskuak arintzera pasatu da, merkataritza- eta inbertsio-esparruak berriro ere definituz. Eraldaketa horiek Espainiari eskatzen diote bere ekonomiaren izaera irekia elkartzeko segurtasun ekonomikoan enfasi handiagoa jartzearekin.

Azkenik, gizarte demokratikoek askotariko erroreak gaituzte behar dituzte. Egonkortasun demokratikoa mehatxatzen duen eta adostasunen apurketa bultzatzen duen desinformazioaren goraldiak baldintzatutako polarizazio-klima honetan, Espainiak jarraitu behar du gizarte ireki eta inklusiboan aldeko apustua egiten, barne-kohesioa zainduz, nazioarteko proiektzioaren oinarri gisa.

Kanpo Ekintzarako 2025-2028 Estrategiak nazioarteko agertokiaren eraldaketa horiei erantzuten die zeharkako hiru jarduketa-printzipioren bidez, helburutzat dutenak bermatzea **(A) Europa Indartu bat; (B) Espainia konprometitu bat; eta (C) Bakea eta segurtasuna eraikitzen duen Espainia**.

Europa Indartu bat

Espainiarren interesak defendatzeko, gaur egun, gure erantzuna, lehenik eta behin, europarra izan behar da. Espainiako gizartearen europeismo saketik abiatzen da, eta munduko ordena berriro konfiguratzeko prozesuan pisu erabakigarria izateko modu bakarra Europa mailan jardutea denaren ziurtasunetik. Horregatik, Europar Batasunaren egonkortasunean, erresilientzian eta eraginkortasunean lagundu behar dugu. Horrela, bizi ditugun krisialdi anitzen aurrean, **Europak erantzun handizalea eta ausarta eman behar du.**

EBk, azkenengo urteotan, hiru shock jasan ditu —pandemia, Errusiaren eraso eta energia-krisia— eta horiei modu eraginkorrean eta koordinatuan erantzuten jakin izan du. Orain, erroka esnaera estrategiko hau finkatzea da, Europar Batasuna benetako **eragile geopolitiko** gisa finkatzea lortzeko. Gure etorkizun politiko, ekonomiko eta teknologikoaren kontrola mantentzeak kolektiboki erabaki zailak hartzeko eskatzen du. Epe luzera pentsatu behar dugu; hobeto eta azkarrago eta, batez ere, elkarrekin lan egin behar dugu, europar gisa.

Espainiak politika komunetan eta horien finantziazioan jauzi kualitatiboa ematea aldezen du, erakunde-eraldaketarekin bat egingo dena. Helburu horrekin, aurrekontu europar handizaleagoa lortzeko lan egingo dugu, gure ekiteko eta erantzuteko gaitasuna ziurtatzen duena; halaber, erabakiak hartzeko prozesua erreformatuko da, gehiengo kualifikatua kanpo-politika bezalako eremu berrietara hedatuko duena, ekintza europarraren paralisia saihesteko. Espainiak EBren handitzeko prozesua babestuko du; horrekin batera, batasunaren erreforma errealistak egin behar dira, aurrera egitea eta prestatzea ahalbidetzen digutenak, Estatu Kide gehiagorekin operatze aldera.

Era berean, **bere segurtasunaren gaineko erantzukizun handiagoa hartzen duen Europa** baten alde egiten dugu. Autonomia estrategiko ireki europarra segurtasunaren kontzeptu integratu batean oinarritu behar da, defentsa tradizionaletik haragoko beste eremu batzuk barne hartzen dituena. Autonomia hori gaitasun eta baliabide kolektibo gehiagoren bidez indartu behar dugu, barne hartuz Europaren defentsaren oinarri teknologiko eta industrialaren garapen handiagoa. Mundu gatazkatsuago baten aurrean, Europaren kanpo ekintzaren koordinazioa handitu behar da, gure politika eta aurrekontu esfortzuen efektuak areagotzeko. Horren baitan sartzen da gure bazkide globalekiko elkarrekintzaren hobekuntza, parekoen arteko elkarretan eta Europaren eredugarritasunean oinarritutakoa. Ildo beretik, berebizikoa da Estatu Kideen arteko konbergentzia estrategiko handiago baterantz aurrera egitea, zehazki, Europaren segurtasunerako mehatxuen pertzepzioan eta 360 graduko logika batekin.

Egungo erronken aurrean, gizarte-kohesioa, agindu etikoa eta ekitate-agindua ez ezik, aktibo estrategikoak ere garrantzitsuak dira; berme bat da gure segurtasunarentzat, kanpo-eragileak gizarte demokratikoetako zatiketak instrumentalizatzen saiatzen ari diren une honetan. Horregatik, Espainiak kohesio-politika eta europarren arteko batasuna sustatuko ditu Erasmus+ bezalako politiken bidez eta, gainera, **Gizarte-eskubideen Europako Oinarrian sakontzea** babesten jarraituko du.

Europaren kanpo-proiektzioa ezinezkoa da bote-re-oinarri irmorik gabe, baita maila ekonomikoan ere. EBk gure lehiakideekiko berrikuntza-arrakala gairatzen duen eraketaren ekonomia definituko duten sektoreetan. Zentzu horretan, Espainiak gure lehiakortasuna handitzeko lan egingo du, apustu argia eginez trantsizio ekologiko, digital eta sozial hirukoitzaren alde, Europaren hazkunde ekonomikoaren katalizatzaile gisa, berriro ere industrialatzea sustatuz, Merkatu Bakarrean sakonduz,

Banku Batasuna amaituz eta euroaren nazioarteko papera indartuz.

Hala eta guztiz ere, ekonomiaren zatiketa gero eta handiagoak behartzen gaitu segurtasun ekonomikoaren ikuspegia txertatzera erabakiak hartzeko prozesuan, arriskuak murrizte aldera. Interdependentsiak jaurtitzeko arma gisa erabiltzearen eta merkataritzari jarritako oztopoak ugaritzearen ondorioz, beharrezkoa da eraginkortasunaren eta segurtasunaren arteko aukera berriro ere ebaluatzea, arreta gehiago jartzeko azkenengoan. Horrez gain, termino ekonomikoetan, EB da munduko eskualderik irekiena; beraz, joera protekzionisten eragina kaltegarriagoa izan liteke. Ildo horretatik, Espainiak hau proposatzen du: zaurgarritasun eta mendekotasun kritikoak murriztea, gure hornidura-kateen segurtasuna eta funtsezko teknologia eta lehengaietarako sarbidea bermatuz; mehatxak aurreratzea eta tresna gehiago lortzea presio ekonomikoei aurre egiteko eta gure bazkide komertzialen sarea handitzea, gehiago eta eragile fidagarri gehiagorekin merkaturatzeak gure autonomia handitzen duelako.

Espainia konprometitu bat

Alde anitzeko erakundeak une kritiko batean daude. Mundu mailako lehia geostrategiko handiagorako joerak alde anitzeko lankidetzaren aurkakoak dira, hain zuzen ere, inoiz baino beharrezkoagoa dena. Esparru honetan, gure lehenbiziko helburua alde anitzeko sistema zaintzea, erreformatzea eta indartzea da; izan ere, horren paralisia edo eraginkortasunak baldintzatuko du erronka globalei erantzuteko dugun gaitasuna, klima-aldaketa edo pandemien prebentzioa bezalako erronkek eragin erreala dutelako herritarrengan. Espainiak erdietsitako lorpenak zaintzea defendatzen du, paper aktiboa izanez alde anitzeko sistemaren baitan; horrez gain, defendatzen du egungo egiturak erreformatzea, egungo nazioarteko gizartearen osaera islatzen duen inklusibitate handiagorekin alde eginez.

Esparru multilateralean gure ekintza indartzeko, Espainiak aurrera egingo du **giza eskubideen babesean eta sustapenean, nazioarteko finantza- eta ekonomia-gobernantzaren erreforman, gobernantza teknologiko etiko eta arduratsu baten diseinuan eta gure kanpo politika feministaren errefortzuan**. Modurik ez dagoenean erronka horiei eraginkortasunez eta **maila multilateralean** aurre egiteko, lankidetzaren mekanismo malguak sustatuko dira, partekatutako interesen inguruan aurreratzea ahalbidetzen digutenak. Halaber, Espainiak **migrazio erregularra, ordenatua eta segurua** sustatuko du, definitzen gaituzten humanitate eta erantzukizun printzipioei uko egin gabe eta ziur gaude gure dinamismo

ekonomikoa eta ongizate-ereduaren jasagarritasuna, neurri batean, migrazioaren menpe daudela.

Solidaritate-krisialdiko egoera honetan, munduak garapenerako lankidetzat gehiago behar du, ez gutxiago. Espainiak garapenerako lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren aldeko apustua egiten jarraituko du, erronka kolektiboak aurre egiteko berebiziko tresna gisa. Espainiak jarraituko du **trantsizio ekologikoaren** lidergoa izaten, diplomazia berdearen bidez eta **klima-larrialdiaren aurkako borroka bidez**, gure kanpo-ekintzaren ardatz nagusi gisa. Esparru honetan, **deskarbonizazio lehiakorren alde** egingo da, abagune bat delako gure industriarentzat; deskarbonizazio horrek, klima-neutraltasuneko helburuekin batera, bidezko trantsizioa egiten dela ziurtatuko du, etorkizuneko sektoreen aldeko apustua egiten dugun bitartean.

Bakea eta segurtasuna eraikitzen duen Espainia

Espainiaren erantzunak ezin du gure herritarren **segurtasuna** ahaztu. Horrek **mundu konplexuago batera egokitzeko eskatzen du**, zeinean Europak azkenengo hamarkadetan izandako bakearen dibidendua galdu du. Testuinguru berriak Espainia eta Europa behartzen ditu erantzukizun-kuota handiagoak hartzera bere gain bere defentsaren arloan, baita segurtasun partekatuan gehiago laguntzera ere, segurtasun-hornitzaileak direlako EBren, NATOren eta Nazio Batuen esparruan. Espainia saiatuko da armamentuak kontrolatzeko, horiek ez ugaritzeko eta desarmatzeko arkitektura indartzen eta terrorismoaren aurkako borrokan konprometitu jarraituko du.

Aldi berean, **Espainiak nazioarteko zuzenbidearen defentsaren koherentziatik bakea eraikitzea bilatuko du**, inguruabar eta gatazka guztietan, nazioarteko zuzenbide humanitarioa arauak betetzen direla zainduz. Zentzu horretan, **jarraituko dugu nazioarteko auzitegiak babesten zigorgabetasunaren aurkako borrokan eta Espainiaren gaitasunak indartzen bitartekaritza-eragile gisa.**

Gainera, **gure erresilientzia demokratikoa indartu behar dugu**. Aurrekaririk gabeko interkonexioak bereizitako garai honetan, paradoxikoki, banatuta gaude. Algoritmo-alborapenak, informazioaren ezaurren hazkundea eta gorroto-hitzaldiaren goraldia ez dira erronka tekniko hutsak, baizik eta gizarte-kohesiorako mehatxuak, gure zaugarritasuna areagotzen dutenak erradikalizazioaren eta kanpoko injerentziaren aurrean. Desarauketak planteatzen dituen arriskuen aurrean, **Espainiak gardentasun handiagoa defendatzen du, baita plataforma teknologikoen neutraltasuna eta kontu-ematea ere.**

Halaber, defendatzen ditu pertsona eta eskubideetan zentratutako ikuspegia eta nazioarteko koordinazio handiagoa. Baina kanpo ekintza eraginkorra hedatu ahal izateko, Espainiak barne-kohesioa zaindu behar du eta, horretarako, herritarren eskariei erantzun behar die, desberdintasunaren eta erronka demografikoaren aurkako borrokan aurrera egin.

Espainia munduan

Espainiaren kanpo ekintza eskualdez eskualde hedatzen jarraituko da, dimentsio euroatlantikoaren eta mediterraneoaren alderdi bikoitzarekin, eta bere proiektzio globalaren bidez.

Egungo egoerak inoiz baino gehiago eskatzen du **gure ingurune estrategikoan inbertitzeko**, zeinean gatazka ugari pilatzen diren: Sahelitik Ekialde Hurbilera, Ukrainatik pasatuz. Horrek esan nahi du arreta berezia jarri behar dugula gure ondoko bizilagunengan eta gure bizilagunen bizilagunengan. Hau da, zentzu zabalean gure ingurua osatzen duten herrialdeengan, Ekialdeko Europatik Mendebaldeko Afrikara, Afrikako Iparralde eta Ekialde Hurbila, **bertan sortzen baitira Espainiaren segurtasunari eta oparotasunari zuzenean eragiten dieten eronka asko**. Erronkei erantzuteko eta espazio honek eskaintzen dituen abaguneak baliatzeko, hurrengo urteetan, **Espainiak bere hedapen diplomatikoa indartuko du** eremuan bertan, gure ingurune estrategikoan erabateko estaldura lortu arte; horrekin batera, elkarrekintza politikoa indartuko du eta bere babesa eskainiko die gure bizilagunen gobernantzaren, segurtasunaren eta ekonomiaren garapenari.

Europa gehiago, EBtik harago. Espainiak gure bazkide europarrekiko alde biko harremanak finkatzea proposatzen du; **Ukrainari** bere burujabetzaren defentsan eskaintutako **babes integrala** mantentzea eta **Mendebaldeko Balkanen** eta gainerako herrialde hautagaien atxikipen-prozesuetan laguntzea.

Latinoamerika eta Karibea elementu etengabeak dira Espainiaren identitatean eta kanpo-ekintzan. Azkenengo urteotan, Espainiak agenda europararen erdigunean jarri du Latinoamerika; izan ere, 2023an, EBren Kontseiluaren Espainiako Presidentetzan zehar, zortzi urtetan lehenbiziko UE-CELAC Gailurra ospatu zen. Gainera, etengabeko bultzada eman zaie MERCOSUR, Txile eta Mexikorekiko akordioei, aldi biko agenda bete mantendu den bitartean. Hurrengo lau urteetan, xedea da esfortzu hori bikoiztea eta Espazio Iberoamerikarra indartzea. Balio komunetan eta baterako interesetan oinarrituz, Espainiak eskualdearekin batera lan egingo du, gure eragin kolektiboa areagotzeko alde anitzeko foroetan eta agenda globalaren eztabaida handietan. Era berean, zatiketa ekonomikoko agertoki

honetan, elkarrekiko onuragarriak diren harreman ekonomiko ekitatiboetan sakondu nahi dugu.

Arro mediterraneoko herrialdeekiko harremanak indartuko dira **Magreben eta Ekialde Hurbilean**, gure hegoaldeko bizilagunen bakearen eta egonkortasunaren aldeko apustu irmoa eginez. Espainiak **Ipar Amerikarekiko harreman estuak** mantentzeko lan egiten jarraituko du, elkarrizketan oinarrituz. Hala, **Afrikarekiko harremanaren jauzi kualitatiboa** inbertitzen jarraituko da, Espainia-Afrika 2025-2028 Estrategia berria ezarriz eta arreta berezia jarritz **Mendebaldeko Afrikan**. Gainera, Asia-Pazifikokoan aztarna sakonagoa edukitzearen aldeko apustua egingo da, eskualderako estrategia berri baten bidez, ahaztu gabe gure presentzia finkatu behar dugula **Hegoaldeko Kaukason eta Erdialdeko Asian**. Eremu geografiko horietako bakoitzean, Espainiak bere kultura eta hizkuntzen sustapena indartuko du, gure kanpo-proiektzioaren aktibo gisa.

Estrategia honek ezartzen dituen lehentasunak eta helburuak bete ahal izateko, beharrezkoa da

hausnarketa-prozesu bat abiaraztea Espainiaren **kanpo ekintzaren tresnak aipatutako erronketara egokitzearen inguruan**. Lehenik eta behin, bere helburua izango da gure kanpo-zerbitzua prestatzea, egoera berri honetan, espainiarren interesei hobeto erantzuteko, gure hedapen diplomatikoa egokituz egungo premietara, lan-tresnen eraldaketa digitalaren bidez eta gure giza-kapitala prestatuz eta horretan inbertituz, gure kanpo ekintzaren bizkarrezurra baita. Espainiaren proiektzioa indartzeko, funtsezkoa izango da atzerrian bizi diren hiru milioi espainiarren esperientzia eta ezagutza hobeto baliatzea.

Azkenik, ezin dugu ahaztu **kanpo-ekintza denok inplikatzeko gaituen ataza bat dela**: Estatuko bote-re guztiak, Espainiako administrazio publikoak eta gizarte zibila bera, atzerrian dauden espainiarrak barne. Horregatik, lanean jarraituko dugu inplikaturako eragile guztiekiko koordinazioa hobetzeko, bere ezagutza eta eskarmentuarekin, kanpo-ekintzaren diseinua aberasten lagun dezaten, **Estatu eta herrialde ekintza gisa**.

I. ATALA:

ESPAINIAREN IKUSPEGI ESTRATEGIKOA



Zalantzez beteriko garaietan bizi gara, nazioarteko ordenaren, bakearen eta instituzioen hauskortasuna bereizgarri dituen aroan, eta hori guztia gero eta agerikoagoa da, gatazkak areagotu eta alderdi-aniztasuna ahuldu ahala. Nazio Batuen Erakundea sortu zenetik –II. Mundu Gerra amaitutakoan– 80 urte igaro direla gogora ekartzen ari garen honetan, nazioarteko zuzenbidea eta printzipio partekatuak pitzatzen ari zaizkigu.

Azken urteek begien bistan utzi digute Gerra Hotzaren osteko itxurazko baretasunak ez zuela normaltasun berririk ekarri. Aitzitik, oparoaldiaren eta gatazka urriko garaia ondoren, egoera geopolitiko aldakorra dugu aurrean, eta krisiak gero eta sarriago. 2025ean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren eratu-tako ordena nola higitzen den ikusten ari dira gure gizarteak, auzitan jarri baitira hainbat hamarkadaz nazioarteko harremanetan nahikoa ordena eta aurreikusgarritasuna eman diguten arau eta printzipioak. Espainiak nahi duen mundua, baina, baketsua eta segurua da; lankidetzan oinarritua munduko aferei dagokienez, adibidez, klima-aldaketari, osasunari, teknologiar, migrazioei eta terrorismoari; eta ideien, pertsonen, ondasunen eta zerbitzuen zirkulaziorako irekia ere bai, baita arauetan oinarritua ere. Hala eta guztiz ere, azken urteotan atzeraldian daude ikusmolde horren alderdi asko.

Estrategia honi mundu osoaren berregituratze estrategiko bat jazo bitartean heldu zaio, boterea zehazten duten faktoreen banaketaren aldaketen eta gertakari politikoaren ondorioz desegonkortzea dakarren egoeran. Hiru urte bete dira, gainera, Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik, eta gero eta indarkeria handiagoa dago gure ingurune estrategikoan, Sahaletik hasi eta Ekialde Ertainera arte. Halaber, indarra hartu dute nazioarteko egoera birdefinitzen ari diren joerek: arauetatik botererantz mugitzea, efizientzia ekonomikotik erresilientzia bilatzera eta aurrerakuntzarekiko konfiantzatik ziurgabetasunera. Litekeena da datozen urteetan joera horiek gero eta biziagoak izatea.

Hori dela eta, prestatzea eta gure kanpo-ekintza inguruabar berrietara egokitzea dagokigu. Estrategia honek Espainiarentzako arriskuak eta aukerak aztertzen ditu, eta jarduketa-ildo nagusiak zehazten ditu berezko nortasuna duen kanpo-ekintzarako, gure interes nazionalak irmo defendatzeko, gizarte gisa definitzen gaituzten balioekiko konpromisoa, mundu oparago, seguruago eta egonkorragoa lortzeko ekarpena egiteko asmoz.

Une kritikoa Europarentzat

Gure aktibo eta baldintzatzaile estrategikorik handienetakoak dira Espainia Europar Batasuneko

(EB) kide izatea, gure kide minenetakoak biltzen baititu munduko integrazio politiko eta ekonomikoko proiekturik handienean; gure kokapen geografikoa; eta Latinoamerikarekin dugun lotura historikoa.

Europa Mendebaldean Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik eta Ekialdeko Europar Berlingo harresia jausi zenetik, europarrok nazioarteko testuinguru goxoan bizi izan gara, Europak eta Estatu Batuek aliantza estua izan baitute, oro har partekatutako balioetan eta lehentasunetan oinarritutakoa. Egoera ezohiko eta bereziki iraunkor hori oso azkar aldatzen ari da.

2025ean, Espainia eta Europa inguru ezegonkor batean murgilduta daude. Egoera hori izanik, europarrok ekintza komunerako tresna bat dugu, inoiz ikusi gabeko koordinazio-mailarekin jokatzeko aukera ematen diguna: Europar Batasuna. Espainiarroi, Europar itundutako ekintzak aukera ematen digu munduko joera handiei eraginkortasun handiagoz erantzuteko. Bada garaia proiektu kolektibo horren aukerak sakon-sakon ustatzeko.

Horregatik, lehen aldiz, Kanpo Ekintzarako Espainiako Estrategiak Europa lehen lerroan jarri du, eta proposamen zehatzak egin ditu aurre-egiteko eta ekiteko eta koordinazioa hobetzeko gaitasun komunak indartzeko, besteak beste, kanpo-ekintza, ekonomia, industria eta teknologia.

Europar proposamenak hezurramitzeko, Batasunean adostasuna lortu beharko da, baina dokumentu honetako beste zenbait ertzek, aldiz, Espainiari dagozkio gehienbat, edo Espainiari soilik. Estrategiak barnean hartzen ditu Espainiaren iritziz Europak jauzi kualitatibo bat egiteko aurrera egin beharreko moduari buruzko ideiak eta itxaropenak. Ezinbesteko lana da Batasunak egun dituen erronka eta mehatxu ugari aurre egiteko eta haren potentzialitate guztiei probetxua ateratzeko. Sinesmen bat dugu gure oinarrian: Europaren ekintza eta hura artikulatzeko tresnak indartzea da egoeraren mailako erantzun egokia emateko modurik eraginkorrena.

Gure ingurune estrategikoa

Espainia Europaren hego ekialdean dagoenez, eta Europar Batasunaren kanpoko mugak dituenek, Afrikari lotuak, mundu-mailako proiektzioa duen potentzia euroatlantiko eta mediterranea da. Posizio hori aktibo paregabe bat da, munduko merkataritza-bideekin konektatzen gaituen itas-fatxada zabal bat baitauekagu, baina, hala ere,

erronka handiak dakartza horrek. Iberiar Penintsulatik 4.000 kilometrora baino gutxiagora topatzen ditugu gatazka kistatuak; tentsio sorrak; gero eta ezegonkortasun handiagoa Sahelen, atentatu terroristen munduko kontzentrazio handiena baitago han; eta Nigeria eta Aljeria, gure energia-hornitzailer nagusietako bi.

Ingurune horretako gertakariak eragin zuzena daukate Espainiaren egonkortasunean eta segurtasunean, baita Espainiako herritarren ongizatean ere. Ezegonkortasun hori areagotu egin liteke estrategia honek hartzen duen aldian, eta zuzenean eragin liezaioke Espainiari eta Europa osoari. Batasunaren kanpoko muga denez, Espainiak askoz arrisku handia du erronka horiekin gainerako aliatuetako askok baino.

Egungo joerak direla eta, Espainiak kanpo-ekintza sendo bat behar du, oro har, eta bereziki gure ingurune estrategikoan, jarduteko dituen tresnak indartzeko, aldebiko harremanetan inbertituta, eta egonkortasuna eta nazioarteko legezketasunaren defentsa sustatuta.

Espainiaren munduko proiektzioa

Mundu osorako proiektzioa du Espainiak, haren historia eta tradizio diplomatikoa, mundurako jarrera irekia eta alderdi anitzeko konpromisoa direla eta. Gure kokapen geografikoak eta ertz askoko gure nortasun geopolitikoak –europarra eta atlantikoa, iberoamerikarra eta mediterraneoa– posizio berezia ematen digute nazioarteko askotariko pertzepzioekin konektatzeko. Askotariko interesak aintzat hartzeko eta munduko beste leku batzuetan dituzten pertzepzioak ulertzeko gaitasun hori garatzea komenigarria da Espainiarentzat, baita bereizgarri bat eta behar estrategiko bat ere, ordea.

Mundu-mailako proiektzio horrek aukera ematen digu gure aldebiko harremanen sarea indartzeko, eta hori, aukera politiko eta ekonomikoen iturri bat

izateaz gain, **Espainiako segurtasunerako elementu gakoa ere bada.** Lehenik, Latinoamerikarekin batzen gaituzten senidetasun-loturak aktibo garrantzitsua dira gure kanpo-ekintzarako, hala aldebiko mailan nola Europar Batasunaren eta eskualdearen arteko harremanak indartzeari dagokionez. Gainera, Mediterraneon ere elkarriketarako eta hizketarako gaitasuna dugu, aldebiko eta Europako mailan eta Mediterraneoko Batasunaren mailan dugun jardunak agerian lagatzen duenez, eta lotura estuak ere bai Afrikako eta Asiako herrialde askorekin.

Faktore horiengatik guztiengatik, gainera, Espainiak alderdi-aniztasunarekin eta nazioarteko zuzenbidearekin konpromiso handia duen eragile izan nahi du, inoiz baino beharrezkoagoa baita erronka kolektiboak aurre egiteko, esaterako, larrialdi klimatikoari eta pandemia gehiago jasateko aukerari.

Espainia, azken urteotan Euroguneko motor ekonomiko garrantzitsuenetako bat bihurtu da, Europako batezbestekoa baino nabarmen gehiago hazi baita, inbertsioen xede gisa dugun erakargarritasuna indartu baitu eta enplegu-sorreran buru izan baita. Horrek guztiak indartu egiten du gure kanporako proiektzioa.

Espainiak dituen indarguneak pisu eta eragin –gaitasun handia ematen diote nazioarteko agertokian. Eragiteko gaitasun horretaz baliatzea ez da interes– edo prestigio-kontu hutsa, baizik eta **segurtasun nazionalerako ezinbesteko aukia,** gure mugetatik harago baldintzatzen dituzten erabakiek mendeen baitaude espainiarren segurtasuna eta oparotasuna. Faktore askok eragiten diote zuzen-zuzenean gure etorkizunari, hala nola Europako legediak, egunerokoaren zati handi bat arautzen baitute; klima aldaketaren erantzunak; eta nazioarteko gatazken inpaktuak. Horregatik, **Espainiak nazioarteko testuinguru berrira egokitu beharra dauka,** hiru jarduketa-printzipio transbertsalen bidez: Europa indartu bat, Espainia konprometitu bat eta bakea eta segurtasuna eraikitzen dituen Espainia bat.

MUNDU BAT TRANTSIZIOAN: NAZIOARTEKO ORDENAREN HIRU DESPLAZAMENDUAK

I. Desplazamendua: Araudun mundu batetik botere-logikak gailentzen diren mundu batera

Alderdi-aniztasuna ahuldu dela agerian uzten dute arauen higadurak, transakzio-diplomaziaren gorakadak, indarraren erabilerak eta zigorgabetasunak. Nazio Batuen Gutunean jasotako nazioarteko bizikidetzaren oinarriko printzipioak narriatzen ikusi ditugu azken hamarkadan, zer eta Errusiak Ukrainari eraso egin dion arte, eta, ondorioz, nazioarteko ezeگونkortasun handiagoa sortu den arte.

Joera horren seinale da, halaber, munduko erronka gero eta handiagoi heltzeko beharren eta nazioarteko komunitateak horiek kudeatzeko daukan gero eta gaitasun txikiagoaren arteko arakala, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren eta Merkataritzako Munduko Erakundearen paralisia larritua. Krisi hori potentzien arteko lehia estrategikoa gero eta handiagoa den egoera honetan gertatu da, nazioarteko harremanen ia eremu guztietara zabaldu denean, alor politikoan, militarrean eta segurtasunekoan, baita merkataritzakoan eta teknologikoan ere. Lehia transbertsal horrek hutsuneak sortu ditu, eskualdeetako eragileek gero eta jarrera asertiboagoen bidez bete nahi dituztenak.

Nazioarteko harremanen aldaketa horrek erlazionatzeko eredu malguagoak eta pragmatikoagoak sustatzen ditu. Transakzio-diplomazia gorakadan dagoela ikusi da, hau da, lerrokatze selektiboak egitura formalak eta balio partekatuetan ainguratutako aliantzak baztertzen ari dira.

II. Desplazamendua: Globalizazioaren efizientzia ekonomikotik erresilientzia bilatzera

Nazioarteko ekonomia eraldatzen ari da, eta erresilientzia eta arriskuak arintzea lehenesten ari da, efizientzia hutsaren aurretik. Bigarren desplazamendu hori ondasunak maximizatzearen logikatik segurtasun ekonomikora bideratutako estrategietara aldatzeko trantsizioan islatzen da. Lehia estrategikoa dago jokoan, konexio ugari nazioarteko ekonomian, eta horrek biderkatu egiten ditu mendekotasunak tresna bilakatzeko aukerak. COVID-19aren pandemiak eta Ukrainaren inbasioak, gora doan protekzionismoarekin batera, agerian utzi dute mendekotasunak tresna bihurtzeak hornidura-kateak eten ditzakeela. Bolada betean daude zehapenak, merkataritzarako oztupoak, hertsadura ekonomikoko estrategiak eta lehia desleialeko jardunbideak. Horren seinale da, esaterako, Nazioarteko Diru Funtsak 2023an merkataritzako 3.000 murrizketa ezarri izana, 2019an halako hiru ia.

Dibertsifikazio-estrategiak zaurgarritasuna murrizten saiatzen dira, hain inguru zatikatuan. Arriskuak arintzeko beharra ikusita, estatuak eta enpresek zaurgarritasuna eta mendekotasuna txikitu nahi dute, eta horretarako hornidura-kateak birlokalizatzean eta material eta osagai kritikoen esportazioa mugatzean oinarritutako dibertsifikazio-estrategiak bultzatzen ari dira. Hain zuzen, joera hori inbertsio-fluxuetara ere hedatzen ari da. Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, zatikatze horri lotutako kostuak munduko BPGd-aren % 7ra ere hel litezke, eta horri gehitu egin behar zaio teknologiararen eta ezagutzaren hedapena galtzen dela eta merkataritzak sustatutako errenta ere txikitu egiten dela.

Trantsizio ekologikoak eta eraldaketa digitalak lehia geoekonomikorako eremu berriak sortu dituzte. Bi trantsizio horiek lehia-eremuak zabaldu dituzte, besteak beste, materia kritikoen, erdieroaleen eta teknologia berdearen alorretan. Halaber, krisi klimatikoari aurre egiteko hazkunde-eredu berriak behar dira, eta prebentziorako eta egokitzapenerako finantzaketa-behar handiagoak ere bai, batez ere garatze-bidean dauden herrialdeetan, haiei eragiten baitie gehien klima-aldaketak. Lehia estrategikoari dagokionez, haren bektore nagusietako bat teknologiararen lasterketa da, eta erregulazio-araubide ezberdinak sortzeko arriskua dago, baita teknologia jakin batzuk eskuratzeko oztupoak sortzekoa eta, ondorioz, berrikuntzari eta interkonektagarritasunari kalte egitekoa ere.

III. Desplazamendua: Aurrerakuntzarekiko konfiantzatik ziurgabetasunera

Gizarte garatuak baikortasun zabaletik etorkizunarekiko mesfidantzara igaro dira. Arrazoi ugari dago, baina bete gabeko itxaropenei dagozkie: espero zena baino jardun ekonomiko kaskarragoa, ezberdinkeria handiagoa, eragiteko gaitasunaren galera edo balio-aldaketa.

Azken hamarkadetan, globalizazioak eta iraultza digitalak goitik behera eraldatu dute gure mundua. Munduan hazkunde bizkorra erraztu zuten merkataritzako trukeen gorakadak eta balio-kateak nazioartekotzeak, lanaren banaketak eta espezializazioak bultzatuta, baita iraultza digitalak eta egonkortasun geopolitiko handiak ere. Muturreko pobrezia txikitu egin zen, baina, gainera, haurren eta amen heriotza-tasa nabarmen txikitu zen, ur edangarriaren eta saneamenduaren eskuragarritasuna hobetu zen, eta aurrerakuntzak egin ziren desnutrizioaren aurkako borrokan. Alfabetizatutakoen ehunekoa bikoiztu egin zen, elektrizitatearen eskuragarritasuna handitu zen, eta konektagarritasun digitala globalizatu zen. Munduko bizi-esperantza ere hazi egin zen, 20 urte baino gehiago. Egoera politikoa ere aldatu zen, demokrazietan bizi ziren munduko herritarren ehunekoa handitu egin baitzen: % 25ekoa zen 1950ean, eta % 60 inguru XXI. mende hasieran. Indarkeriazko krimenak eta gatazken bortiztasuna ere nabarmen txikitu ziren.

Hala eta guztiz ere, lorpen horiekin batera desoreka ekonomiko eta sozialak sortu ziren, gure hazkunde-ereduaren ahuleziak agerian utzi zituztenak. Finantza-sektorea desarautzea eta Eurogunean gaizki lerrokatutako pizgarriek ia mende osoko finantza-krisirik handiena ekarri zuten, zeinak agerian utzi baitzuen gure sistema ekonomikoen zaugarritasuna. Horrekin batera, ezberdinkeria dagokionez, gorabidean zeuden herrialdeetan klase ertainek izandako gorakada txundigarriak kontrastea egiten zuen herrialde aurreratuak klase ertainak eta langile-klaseak egindako aurrerapen txikiekin, herrialdeok ez baitziren globalizazioko galtzaileei konpentsazioa emateko gai. Kontraste hori areagotu egin zen dinamismo ekonomikoa hiri handietan kontzentratzean, eta atzean utzi zituen landa-eremu gero eta zahartuagoak eta aukera gero eta urriagoak zituztenak. Horren guztiaren ondorioz, ekonomia garatuekiko konfiantza ahuldu egin da, eta zalantzan dago datozen belaunaldiak aurrekoek baino ongizate handiagoa lortuko duten.

COVID-19aren pandemiaren ondoren, ikuskizun dago munduko aurrerakuntza handiagoranzko joera mantendu edo eten egingo den. Batetik, seinale itxaropentsuak daude, adibidez, bizi-itxaropena luzatzea, txerto berritzaileak ugartzea, energia berriztagarriak zabaltzea, genero-berdintasuneko aurrerapen zenbait eta adimen artifizialari esker produktibitatea handitzeko aukera. Bestetik, baina, aurkako zantzuak ere badaude, esaterako, zenbait herrialdeetako pobrezia gorakada, ekonomia askoren gehiegizko zorra eta eskualde batzuetako zahartze bizkorra, baita, horiekin batera, beste fenomeno batzuk ere, besteak beste, polarizazio politiko eta sozial gero eta handiagoa, instituzio demokratikoei konfiantzaren higadura eta klima-aldaketa sortutako ingurumen-narriadura bizkortua. Egoera hori ikusita, gero eta nabarmenagoa da nazioarteko erantzun koordinatu eta adostuak behar direla, etorkizun konplexuari eta ziurgabetasunez beteari aurre egingo bazaio. Dena den, gero eta zailagoa da nazioarteko lankidetzak hori antolatzea.

Gero eta irudi ilunagoa gailentzen ari da garapen teknologikoaren inpaktuari eta hark ekarritako gobernantza-ereduei buruz. Komunikaziorako eta interakzio sozialerako era berriek –batez ere sare sozialen gorakadak, mezu sinple eta emozionalak ematea errazten baitute– polarizazioa handitzen duten estrategia politikoak sustatu dituzte, baita herritarrek instituzioekin duten mesfidantza ere.

Polarizazio politiko eta sozial gorakorrek mehatxupear du egonkortasun demokratikoa, adostasunak desintegratzen ari baitira. Demokraziak urritzen eta kaskartzen ari dira, dagoeneko ia bi hamarkadatik. V-Dem Institutuaren arabera, munduan batez besteok pertsona batek gozatzen duen demokrazia-maila 1985eko mailara jaitsi da. Hau da, munduko hiru herritarretik bat bizi da askatasun demokratikoak murrizten ari diren herrialde batean, eta mende-hasieran hamarretik bat zen. Indar ultranazionalista eta identitarioak handitu egin dira, eta iritzi publikoa inarosten dute klimaren eta migrazioaren alorrean. Ildo horretan, kanpo- eta barne-aferak txirikordatuta daude. Gure demokrazien egonkortasuna lehia geopolitikorako beste joko-zelai bat da, ezegonkortze-estrategien eta kanpoko esku-sartzeen mendean dagoena

A. EUROPA INDARTU BAT

Europaren autonomia indartzea

Sendoa da Europako proiektua. EBk botere-iturri ugari ditu: munduan atzerriko zuzeneko inbertsioaren igorle eta hartzaile nagusietako bat da; merkataritzarako bazkide lehenetsia da planetako herrialdeen erdientzat, gutxi gorabehera; ongizate-estatu zabal eta garatua eta herritar kualifikatuenak ditu; ingurumen-jasangarritasunean buru da; gure enpresak liderrak dira oso sektore garrantzitsuetan; eta bigarren moneta garrantzitsua du. Botere hori, baina, zatikatuta dabil. Egoera hori, askotan gutxienesten duguna, abiapuntua da Batasun anbiziotsuagoa eraikitzeko, munduko lehia gorakorri aurre egiteko prest dagoena eta lider gisa jarduteko borondatea daukana.

Hala eta guztiz ere, Europako integrazioak eta horrek dakarrenak aurre egin behar diete alor geopolitikoan bizkortutako aldaketek ekarritako erronka handiei. Europako herrialdeen boterearen oinarri demografiko eta ekonomikoen gainbehera erlatiboaren ondorioz, eta segurtasun- eta defentsa-gaitasunen eremuan duen isla dela eta, Europako lankidetzaren bidez bakarrik osatu daitezke herrialde bakoitzaren baliabideak, Batasunak eta haren estatu kideek eragin erabakigarria izan dezaten munduko auzietan, eta, bereziki, beren etorkizun politiko eta ekonomiko-rako esanguratsuak direnetan.

Europarrok ez daukagu etsia hartzerik. Munduko estatu oparoenetako batzuk Europan daude, eta gai da politikarien, ekonomiaren eta defentsaren alorrean munduko joerei nahiko bermerekin erantzuteko, eta, aldi berean, pluralismo demokratikoa, giza eskubideen errespetua eta merkaturako ekonomia sozialean oinarritutako eredu bat defendatzeko. Horrez gain, instituzio komunek batera ekiteko aukera ugari ematen dituzte.

Europar Batasunaren parte izatea gure nortasun nazionalaren berezko alderditzat jotzen dugu espainiar gehienok. EB da Espainiak bere itxaropen ugari

antolatzeko, bere posizioak definitzeko eta bestela estatuarentzat bere kabuz erdiesteko ezinezkoak liratekeen lorpenak egiteko esparru naturala.

Halaxe uste dute Europako herritar gehienek ere. 2025eko neguko Eurobarometroaren arabera, Europar Batasunaren babesa 1983tik egon den puntu gorenean dago, herritarren % 74k uste baitute Batasunaren parte izatea onuragarria dela. EBren irudia Europako herritarren % 50entzat hobetu da, eta % 66k uste dute gero eta zeregin garrantzitsuagoa duela gu krisien aurrean babesten. Bat izatea gakoa da munduko erronkei aurre egiteko, % 89k uste dutenez. Segurtasuna da lehentasun nagusia (% 36), eta lehiakortasun ekonomikoa bigarrena (% 32). EBren balioa aitortzeko arrazoi nagusia aldatu egin da, ordea: orain bakea eta segurtasuna azpimarratzen dira (% 35) herrialdeen arteko lankidetzaren aurretik (% 34). Bakea funtsezko balioa da oraindik ere (% 45), demokraziarekin (% 32) eta giza eskubideekin (% 22) batera.

Horrenbestez, datozen urteetan EBren egonkortasuna, erresilientzia eta eraginkortasuna indartzeak behar du gure kanpo-ekintzaren lehentasun nagusietako bat. Europarrok banaka ditugun baliabideak, garrantzitsuak diren arren, ez dira nahikoa guri eragiten diguten munduko joeretan eragin erabakigarria izan dezagun. Horregatik, lehen deskribatutako desplazamenduen aurrean Espainiak duen lehentasun nagusia da jarduteko gaitasunak Europa osoan indartzearen alde egitea, beharrezkoa baita, eta baliabide horiek era koordinatu eta eraginkorragoan erabiltzea.

Gaur egun, erronka da politikan eta instituzioetan finkatzea azken bost urteotan Europan gertatutako eraldaketa, bokazio estrategiko handiagoari heltzekoa. Espainiak interes handia du prozesu hori bultzatzean, gure interes oinarrituenetako batzuk espazio horretan defendatzen eta

sustatzen baitugu, eta han indartzen baitugu gure nazioarteko presentzia.

Jauzi kualitatibo bat politika komunetan eta haien finantzaketan

Gaur beharrezkoa da Europako instituzioen eta politiken egiturazko eraldaketa. Europar Batasunak frogatu du badakiela krisi-egoerei bizkor eta eraginkortasunez erantzuten, adibidez, pandemiari eta Ukrainaren kontrako gerrari. Halako bi krisi denbora-tarte nahiko laburrean gertatu izanak ondo irudikatzen du nazioartean ezegonkortasun handiagorantz goazela bizkor. Koiunturaren araberako erantzunetik egiturazko erantzunera igaro beharra daukagu. Gure instituzio komunak ez dira nahikoa egokitu egungo egoera geopolitikora. Agerikoa da deskonexio handia dagoela Europako Kontseiluak, hau da, erabaki politikoen organo gorenak, erabaki sakonak hartzeko duen bizkortasun potentzialaren eta erronka horiei egunero-egunero erantzuteko baliabide urriak dituzten instituzioen artean. Nazioarteko egoera berrirako egiturazko aldaketak behar dira.

Edozein politikaren funtsezko elementua aurrekontua da. Urte Anitzeko Esparru Finantzarioak urte asko daramatza Europako Errenta Nazional Gordinaren (ENG) % 1aren inguruan katigatuta. Bada garaia nabarmen igo dadila planteatzeko. Deskribatutako joera geopolitikoek iradokitzen dute arriskuak ugaritu egin daitezkeela eta Europako ondasun publikoak –segurtasuna, trantsizio ekologikoa, eraldaketa teknologikoa, azpiegitura kritikoak, besteak beste– batera finantzatzeko beharra egongo dela ikusita, EBk jarduteko gaitasuna blindatu behar du. Batasunaren aurrekontua tresna egokia da Europako erantzunak emateko, egungo erronken neurrikoak, eta krisi posibleen aurrean premiaz, batasunez eta eraginkortasunez jokatzeko.

Espainiaren ustez, Urte Anitzeko hurrengo Esparru Finantzarioan bikoiztu egin behar dira Europaren baliabideak. Gaitasuna komunak nabarmen igotzeko borondatea, ENGaren % 2ra arte, hain zuzen, eta baliabide berrien eta Europako ondasun publikoak finantzatzeko zor bateratua igortzearen bidez ekintza-gaitasuna indartzea egokitzen estrategikoaren giltzarrietako bat izango da. Aurrekontuetan anbiziotsua izatea; horixe da era bakarra erronka estrategiko berriei aurre egiteko, bereziki lehiakortasunari dagokionez, trantsizio ekologiko, digital eta sozial hirukoitzaren eta segurtasunaren eta defentsaren alorrak barne, Batasunari zentzua eman dioten politikak sakrifikatu gabe (besteak beste, nekazaritza eta arrantzakoa eta kohesiakoa).

Aurrekontu handi bat da Europako ondasun komunak eman ahal izateko bermea.

Guztien adostasunaren printzipioak 27 estatu kideen batasuna eta elkartasuna bermatu du eremu askotan, baina gehiegikeria eta instrumentalizazioa ere ekar dezake, eta, ondorioz, Europar Batasunak erabakiak hartzeko daukan gaitasuna murriz dezake. Ezin dugu ahaztu guztien adostasunak aukera ematen diela hirugarrenei Batasunaren makineria moteltzeko edo blokeatzeko, estatu kide bakarrari presio eginez. Beste era batera esanda, Europarentzako arrisku estrategiko bat da.

Aurrera egiten jarraitu behar dugu, erabakiak gehiago kualifikatuaren bidez hartzeko, pasabide-klusulen bidez. Funtsezkoa da erabakiak hartzeko prozesua bizkortzea, gehiago kualifikatua beste zenbait eremutara zabalduz, esaterako, zergen alorrera, kanpo-politikara edo, kritikoa denez, Segurtasun eta Defentsako Politika Bateratura, estatu kide bat edo batzuek EB osoaren jarduna geldiarazi ezin izateko.

Erreforma horrek ez du aurrera egin, gehiegi atzeratu baita, baina ez da posible Europaren anbizioa gutxien-gutxienekoetara mugatzea. Espainiaren aburuz, Batasunaren esparruan lekua behar dute geometria malguko politikek, estatu kide guztientzat zabalik daudenak, baina abian jar daitezkeenak lankidetzat indartu hori nahi duten estatu kideen artean –dagoeneko badauden mekanismo instituzionalen bitartez edo ad hoc mekanismoen bidez–, 27ak ados egoteko beharrik gabe. Bide horixe erabili izan da, hain zuzen, integrazio-prozesuaren aurrerakuntza historikoetako batzuk egiteko, besteak beste euroa ezartzea eta Schengen espazioan pertsonen libre zirkulatzea.

Espainia EB estatu kide berriekin handitzearen alde dago, 2023an Espainia Europako Kontseiluaren presidente zen bitartean Ukrainarekin eta Moldaviarekin bat egiteko negoziazioak hastean agerian gelditu zenez. Zabaltzeko konpromiso horrek ez du esan nahi bat egiteko irizpideak murriztu daitezela nahi denik, haiek bermatzen baitute Europar Batasuna indartzeko arrakastaz zabalduko dela.

Batasuna handitzeak aldebiko konpromiso bat dakar: Europako instituzioek eta estatu kideek prestatu egin behar dute ahalik eta kide gehienekin aritzeko eta horretarako Europako politikak, aurrekontua eta, azken buruan, instituzioak beraiek erreformatu beharra dago. Hori da, hain zuzen, Granadako Adierazpenaren funtsa, zeina Espainia presidente zela onetsi baitzen.

EB, AEB eta Txina datutan

INDARGUNEAK

● EB ● AEB ● Txina

Barne produktu gordina, prezio arruntak. Dolarrak (mila milioi)



Nazioarteko Diru Funtza (NDF) 2024

Munduko ekonomiaren ehunekoa. (BPGd/Munduko BPGd nominala)



Nazioarteko Diru Funtza (NDF) 2024

Errenta nazional garbia, per capita egokitua, prezio arruntak. Dolarrak



Munduko Bankuaren Taldea 2021

Merkataritza, BPGd-aren ehunekotan.



Munduko Bankuaren Taldea 2021

Atzerriko zuzeneko inbertsio-sarrerak (AZIaren stocka). Munduko guztizkoaren %



UNCTAD, Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia 2023

AZIaren irteerak (stocka). Munduko guztizkoaren %



UNCTAD 2023

Lan egindako ordu bakoitzeko BPGd-a. Dolarrak (EAP, BPGd egonkorra 2021)



ILOSTAT, Lanaren Nazioarteko Erakundea 2025

Giniren indizea. 0-100



Munduko Bankuaren Taldea (Txina eta AEB) / Eurostat (EB) 2021

Giza kapitalaren indizea. 0-1




Munduko Bankuaren Taldea 2020

CO₂ emisioak (lurraren erabilera, erabilera-aldaketa eta basogintza kanpo, LULUCF) per capita. t CO₂e/capita



Munduko Bankuaren Taldea 2023

Energia berriztagarria gaitasun elektrikoan. %



IRENA, Energia Berriztagarrien Nazioarteko Agentzia 2024

EB, AEB eta Txina datutan

ERRONKAK

Populazioa Munduko guztizkoaren %




BPGd-aren hazkundea 2002 eta 2024 artean. %




Barne gastu gordina I+Gn BPGd-aren %



Errendimendu logistikoaren indizea. 1-5



Mendekotasun-tasa. %



Munduko Bankuaren Taldea 2023

Europa babestea eta disuasioa indartzea

Europar Batasuna eta estatu kideek askoz zeregin garrantzitsuagoa hartu behar dute segurtasuna bermatzeari dagokionez. European eta haren ingurune estrategikoan segurtasuna narriatu izanak eta Estatu Batuen lehentasun-aldaketak behartu egin dute Europako segurtasuna beste fase batean murgiltzera. Lehen urratsa, premiazkoa bezain agerikoa, gure disuasio- eta defentsa-gaitasunak indartzea da, European gero eta zutabe garrantzitsuek jotzen baitira Ipar Atlantikoko Itunaren Erakunde (NATO) barruan.

Segurtasunaren eta defentsaren alorrean gure autonomia indartzeko ezinbestekoa da jauzi kualitatibo bat egitea anbizioari, gaitasunei eta baliabideei dagokienez, egiazko ikusmolde europarretik eginga. Europak gehiegitan atzeratu izan du defentsa komunaren helburua. Espainiak gogorazi duenez, baina, bada garaia Kontseilua azkenik Segurtasun eta Defentsa Politika Bateratutik (SDPB) mailaka-mailaka benetako defentsa bateratura igaro dadin. Adostasuna bilatzeak Europako gure politikaren printzipio gidaria izaten jarraituko du, baina nazioarteko egoera berriak eremu honetan aurrera egiteko beharra dakarkigu, 27en adostasuna sistematikoki blokeatuta dagoenean.

Europaren autonomiaren ardatzak ezinbestean izan behar du segurtasunaren kontzeptu integral bat. Defentsa tradizionalaren eremuak hartu behar ditu, baita beste hainbat alderdi ere, besteak

beste, terrorismoaren kontrako borroka, mehatxu hibridoak eta hertsadura, baita segurtasun ekonomikoa, babes zibila eta hondamendiei erantzuteko eta haiekin suspertzeko gaitasuna ere, gaur egun ohikoagoak baitira larrialdi klimatikoak tarteko.

Espainiak konpromisoa mantenduko du EBren Iparrorratz Estrategikoaren ekintza-lerroak eraginkortasunez aplikatzeko (jardun, babestu, inbertitu eta lankidetzan aritu). Segurtasunaren mundu-mailako ulerkerak globala duenez, ezinbesteko oinarria da Defentsa Paketean egiazko Defentsaren Europar Batasuna sortzeko. Gainera, Europak ezin dio segurtasun-emaile gisa duen beharrezko zereginari ez ikusiarena egin, gure bizilagunei eragiten baitie, baita mundu-mailan ere, eta anbizio eta gaitasun handiagoak lortu behar ditu.

Espainiak EBren misioei nabarmen laguntzen jarraituko du, bereziki gure ingurune estrategikoan, hau da, Mediterraneoan, Sahelen eta Gineako golkoan, baita Afrikako Adarrean eta Indiako Ozeanoan ere.

Segurtasun kooperatiboko jarduera ugaritan eta SPDBren misioetan eta operazioetan parte hartzean lortutako esperientziak eta, horrekin batera, eskualdeko herrialdeekin dituen harreman on eta sendoak, elkarrekiko errespetuan eta interes partekatuetan oinarritutakoak, balio erantsi handia ematen digute eskaera egiten diguten herrialdeekin segurtasunaren eta defentsaren alorrean elkarlanean aritzeko.

Gaitasunak indartze hori orobat islatu behar da Europaren aginte- eta kontrol-gaitasunen plangintzan eta garapenean, adibidez, EBren Segurtasuna Zabaltzeko Gaitasuna indartzeko. Horretarako, indar horren kide-kopurua handitu behar da, baina misio- eta egoera-mota gehiagoz arduratu behar du, gainera. Premiazkoa da Plangintza eta Bideratze Gaitasun Militarrak lehenbailehen bere gain hartzea diseinatzean egotzi zizkioten funtzioak. Hori lortzeko, EBren Estatu Nagusiaren banatze funtzionala gauzatu behar da, eta EBren Estatu Nagusiari langile gehiago, azpiegitura egokiak eta benetako aginte- eta kontrol-gaitasunak ezarri behar zaizkio. Gainera, epe labur eta ertainean Europak beharrezko gaitzaile estrategikoak behar ditu bere misioak erabat ezartzeko eta mantentzeko, ahal dela, Europako bitartekoez baliatuz.

Erabakigarria da Europako defentsaren oinarri teknologiko eta industrialaren garatzea, eta zatikatzea murriztea eskalako ekonomiak sortzeko, erresilientzia hobetzeko eta eskalagarritasuna handitzeko. Eskariari dagokionez, funtsezkoa da EBren eskalako mekanismo espezifiko bat garatzea defentsaren alorrean eskuratze bateratuetara jotzea orokortzeko. Aldi berean, eskaintzari dagokionez, eskualdeen artean lan-karga era orekatuan banatzen dela bermatu behar da. Eskualdeen ekitatea ezinbesteko betekizuna da ahalegina Europan zein estatu-mailan ere jasangarria dela bermatzeko.

Nazio anitzeko partzuergo industrialen eredia erreplikatu behar da Europako plataforma komunak garatzeko, hala defentsaren alorrean nola defentsaren sektoreari aplikatutako erabilera bikoitzeko beste batzuetan, bereziki erdieroaleen, mikroelektronikaren eta konputazio kuantikoren eremuetan. Horrek islatuta gelditu behar du abantaila konparatiboa edo ahalegin erlatiboa bezalako irizpideetan oinarrituta egon daitekeen mekanismo batean. ETEak ezinbestekoak izango dira ahalegin horretarako, eta Espainiak lanean jarraituko du orientazio- eta finantzaketa-tresnak eman dakizkien, baita Europaren eskalan ere.

Europa lehenestea nahitaezko printzipioa da, ez soilik Europaren autonomia eta sinesgarritasuna bermatzeko, baita aurrekontuetako esfortzua jasangarria dela ziurtatzeko ere; izan ere, ekoizpenaren etekinek Europako herritarrei egin behar die onura, gehienbat, kostuak haiek hartzen baitituzte beren bizkar. Lehenespen hori, ordea, maila eta malgutasunez aplikatu behar da, kalterik egin gabe gaitasunak indartzearen, elkarreragin-garritasunaren eta krisi-egoeretakarako erantzun posibleen bizkortasunari.

Eskariaren eta eskaintzaren garapen harmonikoaz gain, Defentsarako Merkatu Bakarrentz hurbildu

nahi badugu, gobernantzako eta instituzioetako beste alderdi batzuei ere erreparatu beharko zaie. Besteak beste, Europa barruko koordinazioa hobetu behar da esportazioen eta inbertsioen eremuan, eta sektorerako laguntza publikoen araubidea ere hobetu egin behar da. Espainiak lanean jarraituko du autonomiarako bestelako alderdi erabakigarri batzuk aintzat har daitezen, esaterako, erresilientzia eta energia-sare zibilen integrazioa, lehorreko eta tren bidezko garraio-zentroen garapena eta zibersegurtasun-ekipo zibil eta militarrek Europa-mailan integratzea.

Europaren segurtasuna europar ondasun publiko gisa ulertu behar da, eta beste europar ondasun publiko batzuekin batera hartu behar da kontuan. Horrek esan nahi du baliabide nazionalen gain Europako baliabideekin finantzatu behar dela, ahalegina benetan mutualizatuta. Horixe izan da Europa eraikitzeak arrakastazko proiektu askoren gakoa. Gaur-gaurkoz, EBk bere historiaren nazioarteko egoera konplexuenerako bati aurre egin behar diotenean, estatuen baliabideak handitzearekin batera Europako baliabide gehigarriak handitu behar dira; ezinbestekoa da ahalegina nahikoa izan dadin eta jasangarria izan dadin politikaren zein gizartearen eremuan.

Espainiak Lankidetzaren Egituratu Iraunkorra (PESCO) ere indartuko du, elkarlanean gaitasunak eskuratzeko eta Europako defentsarako traktzioa benetan dakarten proiektu handiagoak garatzeko balio baitu.

Espainiaren asmoa da Segurtasunean Inbertitzeko Europako Konpromisoa sortzea, NATOn hartutako konpromisoak EBren barruanosatzeak. Europar Batasuna abian jartzea eta ahalegina mutualizatzea funtsezkoa da, baita ariketa hau politikan zein gizartearen jasangarria izan dadin. Egungo Urte Anitzeko Esparru Finantzarioan eta hurrengoan, Europar Batasunak jauzi kualitatibo bat egin beharra dauka.

Estatuen aurrekontuetarako eta Batasunaren erako malgutasunaz gain, maileguekin batera transferentziak behar dira, betiere Europako gaitasunaren garapen koordinatuaren ikusmolde integral eta estrategikoari lotuta.

Espainiak Defentsa Industriaren Europako Programaren Erregelamendua sustatzen jarraituko du (EDIP, ingelesezko siglengatik), giltzarria baita Europan gaitasun berriak osorik garatzeko, eta, horretarako, azkar ezarri beharko da, behar besteko baliabideak eman beharko zaizkio, eta etorkizunerako ikuspegiarekin proiektatu beharko da, EBren Defentsa Paketearen gainerako elementuekin harmonian.

Gure gizarteen kohesioa mantentzea

Europako gizarte-eredua Batasunaren kohesioaren giltzarria da. Nazioarteko egungo egoeran, gizarte-politika inklusiboak betebeharrak politiko bat dira, ekitateari eta egonkortasunari lotuak. Politika horiek funtsezko faktore bat dira gure gizarteen kohesioa mantentzeko, muturreko eta kanpoko eragileek barne-zatiketez baliatu nahi duten bitartean.

Eskubide Sozialen eta Europako Agenda Sozialaren Europako Zutabea indartzearen xedea da herritarren bizitza hobetzea eta zenbait kolektibori bereziki eragiten dieten gizarte-eraldaketei erantzutea, bereziki eskusio-arriskuan daudenei, desgaitasuna dutenei, kontsumitzaileei eta etxegabeek eragiten dietenei. Horregatik, gakoa da finantzaketa egokia izatea, helburuak bete ahal izateko, Europako Plus Gizarte Funtsearen bitartez, bereziki. Europa zahartze bizkorragorantz eta belaunaldien arteko ezberdinkeria handiagorantz jotzen ari da, argi eta garbi, eta horri hainbat tresnaren bidez egin behar zaio aurre, adibidez, zaintza-lanentzako laguntzen eta haurren pobreziaren aurkako borrokaren bitartez. Ildo horretan, ezinbestekoa da hainbat tresna sustatzea, besteak beste, Etxegabezia Borrokatzeko Europako Plataforma, Desgaitasunaren Europako Txartela eta Zaintzen Europako Estrategia, baita gizarte-elkarriketa indartzeko proposamenak ere. Horri dagokionez, Espainia aitzindaria izan da familientzako laguntza publikoetan urratsak egiten, eta nabarmendu beharra dago familia-dibertsitateko eskubidea giza eskubide gisa defendatu duela.

Kontsumitzaileen babesari dagokionez, aldiz, Espainia eragile aktiboa izango da Europa-mailan, baita nazioarteko beste zenbait instantzian ere, besteak beste ELGAren Kontsumitzaileen Politikei buruzko Munduko Foroan, zeina Espainiak sustatu baitzuen Norvegiarekin, Luxenburgorekin eta Japoniarekin batera. Desgaitasuna dutenei dagokionez, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren manuei bultzada emango zaie, Desgaitasunari buruzko Espainiako 2022-2030 Estrategian ezarritako ekintzen bidez, bereziki.

Digitalizazioa eta adimen artifizialaren agerpena bereizgarri duen garai honetan, Espainiak arautzearen alde egiten du, algoritmoen eta AAren erabilaren aurrean langileen eskubideak defendatzeko eta trantsizio digital justua sustatzeko. Halaber, lehentasunez jotzen da iruzurraren eta aitortu gabeko lanaren aurkako borroka, baita laneko osasuna ere, eta, bereziki, buruko osasunaren eta lan prekaritatearen arteko lotura. Ildo horretan, Espainiak Europako Lanaren Autoritatea babesten jarraituko du, laneko arauak higatzea saihesteko.

Ahalegin horiek bateratuta, asmo komuna da EB sendotzea, lehiakorra izan dadin eta, horrez gain, baita inklusiboa ere; erdietsitako lorpen sozialak galduko ez dituen EB bat izateko. Ildo horretan, kohesio-politikek, nekazaritzako eta arrantzako politikekin batera, lagundu egiten dute erronka demografikoak gogorren jo dien kostako eta landa-inguruko komunitateak Europako ehun sozioekonomikoan ainguratzen, eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzen dute, gure elikadura-subiranotasunerako eta landa-garapenerako gakoak diren sektoreen bizitasuna segurtatzeko.

Gure hizkuntzak EBren hizkuntza ofizial gisa onartzen dituzten sustatuko dugu. Era horretan erantzun-ego diogu Espainiako nortasun nazionalaren funtsezko elementu bati, Espainia eleaniztuna baita – Konstituzioak eta autonomia-estatutuek jasotzen dutenez –, eta hori EBren itunek beraiek babesten baitute, eleaniztasuna defendatu beharrezkotzat jotzen dutelako.

Europako kanpo-ekintza eraginkorragoa

Espainiak Europar Batasunaren kanpo-ekintza ezartzen, dinamizatzen eta eraginkorragoa egiten laguntzeko ahaleginak handituko ditu. Ideia substantiboekin eta proposamen zehatzekin ekarpena egiten jarraituko dugu, EBren kanpo-ekintza nazioarteko testuinguru berrira egokitzeko, bereziki munduko gure kideekiko elkarriketa politikoari dagokionez. Kanpo Ekintzarako Europako Zerbitzuari (KEEZ) eta Europako Batzordeari zeregin horretan lagunduko diegu.

Ezinbestekoa da estatu kideen aldeko ekintzarako koordinazio operatibo handiagoa, bereziki gure ingurune estrategikoan. Premiazkoa da. Batasuna eta haren estatu kideak dira mundu osoko herrialde askori garapenerako laguntza gehien ematen dietenak. Hala eta guztiz ere, sarri askotan, gure ahaleginak eta konpromisoak ez dute emaitza ukigarririk ekartzen, eta gure kideek eta haien gizarteek ez dituzte gure interesak aintzat hartzen. Are nabarmenagoa da baliabide urriagoko beste eragile batzuek lortzen dituzten emaitzekin alderatzen badira. Inpak-tua sortzeko gaitasun hori gure esku dago, eta gure ardura da hura indartzea.

Europako eskaintza gure kideen behar politiko eta ekonomikoetara egokitu beharra dago. Horretarako, aldeko elkarriketan entzun beharra dago, eta malgutasuna behar dugu behar horiei erantzuteko gure barne-mekanismoetan. Halaber, gure kanpo-ekintzaren helburuak gehiago lehenetsi behar dira. Krisi-egoerak ugaritzen ari direnez, eta Europako estatuen esku dauden baliabideak mugatuak direnez, komeni da helburu zehatz eta

errealistak ezartzea. Errealismo beharra daukagu gure kideei bideratutako proposamenetan ere. Dagoeneko ez dago beteko ez diren inbertsio-konpromiso edo anbizio handiko ekarpenetarako paradarik. Europaren ekintzek bere sinesgarritasuna handitu behar dute, bizkor betetzen diren proposamen espezifikoak eginez, gure kideekin berdintasunezko elkarriazketa politiko egiazko batekin batera.

EBren SDPEa gero eta era zabal eta esanguratsua goan aplikatzen ari da. EBk intereseko eskualdeetan segurtasun-emaile gisa duen zeregina sendotu behar du, apurka-apurka, eta hainbat gunetan laguntza eman behar du. EBk kide fidagarri baten moduan jardun behar du. Horregatik, garrantzitsua da eragiketa posible batek arrakasta izateko aukera segurtatzea, aurretiaz egiaztatuz estatu kideek borondatea eta bitartekoak dituztela misioa hasten denetik eta beharrezkoa den bitartean behar diren ekarpenak bermatzeko. Proiektuetatik edo misioetatik erretiratuz gero, mailaka egin behar da, eta herrialde kideen autoritateekin zein hango herritarrek komunikazio-tresna egokiak erabilia.

Europarren arteko eta interes komunak ditugun beste herrialde batzuekiko koordinazioa nabarmen hobetu behar dugu, beste ezeren aurretik. Team Europe ikusmoldea positiboa izan da, baina oztopo administratiboak eta inertziak daude, koordinazioa zailtzen dutenak eta sarritan Europa barneko lehia-dinamikak sortzen dituztenak. Horrek erraztu egiten du beste eragile batzuek zilegitasunez bete nahi dituzten espazioak sortzea.

EBk eta haren estatu kideek azken hamarkadetan erabilitako baliabide ugariak besteak beste horregatik ez dute beti espero zen emaitza izan, bereziki gure ingurune estrategikoan.

Europa-mailan, Espainiak bultzatuko du Europarentzat garrantzi handiena duten EBren kideak era indibidualizatu, sistematiko eta erregularrean trata daitezela EBren Politika eta Segurtasun Batzordean (PSB) eta zuzendari politikoen bilereetan. Hori era sistematikoan eta banaka egingo da Batasunaren ingurune estrategikoko herrialdeekin, gure inguruan Batasunaren ikusmolde globala sustatzeko eta ekintza koordinatua bultzatzeko.

Gure kideekin harremana izateko era egokitu beharra daukagu. Errusiak Ukrainari eraso egin izana nazioarteko sistemaren azken hamarkadetako urraketarik handiena da, eta, hala ere, Europar Batasunarentzat zaila izan da munduko gure kideei mezu hori helaraztea.

Europaren kideak ez dira mobilizatu beharreko ikusle gisa tratatu behar; aitzitik, ezinbesteko partaidetza jo behar dira alderdi-aniztasunari, nazioarteko zuzenbideari eta Nazio Batuen Gutunaren printzipio unibertsalei bultzada emateko bidean. Hasteko, errealitatea onartu beharra dago: mundua aldatu egin da. Mende honetan eman dugun tartean, ekonomia aurreratuek munduko BPGd-ean zuten zama txikitu egin da, % 57tik % 40 ingurura, eta demografian zutena munduko populazioaren % 20tik % 26ra jaitsi da. Aintzat hartu behar dugu munduko gure bazkideetako askok premiazko behar eta lehentasun ezberdinak dituztela. Herrialde guztiak egiten diete mehatxu eta kezkei aurre, batzuetan, baita existentzialak direnei ere, eta arreta eman behar diegu. Hainbat gai jorratu behar ditugu, besteak beste, elikaduraren segurtasuna, nazioarteko arkitektura finantzarioa, munduko osasuna eta segurtasuneko lankidetzak, eta gure elkarriazketa eta kontaktu politikoetan konpromisoa hartu behar dugu.

Alderdi-aniztasuna eta nazioarteko zuzenbidea defendatzea guztion interesa da, eta ezinbestekoa da horretan ere EBk koherentzia eta eredu ona erakustea. Transakzio-elementuak dituen ikusmoldea erabat bateragarria da alderdi-aniztasunaren eta nazioarteko zuzenbidearen unibertsaltasuna azpimarratzearekin, eta Nazio Batuen Gutunaren printzipioak eta horiek guztiak babes-teko interes komuna nabarmentzearekin. Sinesgarria izan nahi badu, funtsezkoa da EBk eredu ona ematea: koherentzia erakutsita bakarrik izango gara sinesgarriak.

Gakoa da noizbehinkako hurbilketatik konpromiso sistematikora igarotzea. Txinak eta Errusiak, adibidez, munduko kideekin, eskualdeaz azpiko eskalan edo, are gehiago, eskala kontinentalean ere solaskidetzak politikoak erregularitasunez mantentzea lortzen dute, esaterako, Afrikarekin eta Latinoamerikarekin, eta EBk, aldiz, tarteka besterik ez. Esate baterako, EBk zortzi urte behar izan zituen EBren eta Latinoamerikako eta Karibeko Estatuaren Komunitatearen (CELAC) arteko goi-bilera bat antolatzeke, harik eta Espainiak 2023an EBren Kontseiluko presidentetza hartu zuen arte.

Halaber, 2019an lehen aldiz egin zenetik ez da EBren eta Arabiar Ligaren arteko goi-bilerarik egin, eta EBren eta Afrikaren arteko bilerek ere ez dute beharko luketen maiztasunik. Espainiak lan egingo du EBk goi-mailako solaskidetzak politikoak erregularitasun, anbizio eta ordezkaritzak maila handiagoz mantent ditzan.

EUROPAKO ESTRATEGIAREN BATERATASUNA

Europa ezegonkortasunez inguratuta dago, ekialdeko mugatik hasi eta Saheleraingo, eta elkarri sakon lotutako erronka ugari ditu aurrean, Zerumuga kezka garria dakarte gatazkak ugaritzeak, terrorismoa eta krimen antolatua hedatzeak eta gure bizilagunetako askoren instituzioen hauskortasunak. Egoera horretan, bizilagun egonkorak izatea funtsezko interesa da Europarentzat. Batasuna inguratzen duten 18 herrialdeetatik 16k talde terrorista aktiboak dituzte, 5 gerran daude, 6k estatu-kolpeak edo estatu-kolpeen saiakerak izan dituzte, eta 9k gobernu-mota autokratikoetarantz jo dute. Beste eragile batzuentzat, espazio horiek elkarri lotutako agertokiak dira, non ekintzak egin baititzakete beren influentzia handitzeko, baita Europako kohesioa eta batasuna higatzeko ere.

Europako estatuen lehentasunak eta arrisku-pertzepzioak askotarikoak izateak hauskortasuna eragiten du, eta kanpo-eragileak horretaz baliatzen dira. Hortaz, Europak mehatxuen pertzepzioan bat egitea funtsezkoa da gure segurtasunean ardura handiagoa hartzeko.

Ikusmolde horrekin, Espainiak irmotasunez heldu die ekialdeko gure kide europarrei eragiten dieten mehatxuak, eta konpromiso sendoa erakutsi du, bitartekoak eta soldaduak zabalduz Estonian, Letonian, Lituanian, Eslovakian, Errumanian eta Turkian, Itsaso Baltikoan eta Mediterraneo ekialdean, baita Suedia eta Finlandia NATOn sartzearen alde eginez eta Ukrainari babes osoa emanez ere.

Horrekin batera, gure hegoaldeko kideak ere gehiago engaita daitezten sustatu nahi du Espainiak. Europaren segurtasunarekiko konpromiso horrek, Batasunean urrunen dauden eremuetan ere iristen den horrek, ahalbidetu egiten dio Espainiari Europako segurtasunaren fokua gure ingurune estrategikora zabaltzeko beharra defendatzea, hegoaldeko hegaleko segurtasun-beharrak Europako eztabaidaren erdigunera ekartzeko.

Europaren estrategia bateratzea bide luzea da, baina. Gure helburua da bermatzea Batasuna prest egongo dela bi hegaletan sor daitezkeen krisietarako, zuzenean edo zeharka estatu kide guztiei eragiten baitiete. Halaber, NATOk hegoaldeko hegalaria arreta gehiago eman diezaion nahi du Espainiak, 360 graduko ikuspegia izateko, 2022an Madrilgo goi-bileran ezarritako Kontzeptu Estrategikoari jarraituz.

Gure lehiakortasuna handitzea

Nazioarteko bakearen eta egonkortasunaren aldeko Europaren kanpoko proiektzioa ez da posible ekonomiaren alorrean ere botere-oinarri sendorik izan gabe. Europak hazkundera oinarritutako ikusmolde bateratu bat aplikatuz bakarrik egin ahalko die aurre eraldaketa teknologikoak, deskarbonizazioak eta Europako eredu soziala mantentzeak dakartzan erronkei. Draghi txostenaren ondorioei jarraituz, EBk irmotasunez jokatu behar du lehiakorragoa izateko: Estatu Batuekin eta Txinarekin berrikuntzaren alorrean duen arrakala itxiz, etorkizuneko sektoreetan askoz gehiago inbertituz; gure anbizio klimatikoarekin bat datorren deskarbonizazio- eta lehiakortasun-plan baten bidez; eta gure segurtasun ekonomikoa handituz.

Europar Batasunak lehiakortasun-arrakala bat dauka aurrean, etorkizuneko ekonomia definituko duten teknologia aurreratuen alorrean. Adimen artifizialerako munduko finantzetaren % 80 baino gehiago Estatu Batuetako edo Txinako enpresetara bideratzen da, eta Europakok, aldiz, %10 baino gutxiago jasotzen dute. Arrakala hori konputazio kuantikoaren eremura ere zabaldu da, sektoreko hamar enpresa nagusien egoitza EBtik kanpo baitago. Hain zuzen, finantzaketa da oztoporik eta garrantzitsuenetako bat. 2013tik, Estatu Batuetako startupek Europakok baino bost bider arrisku-kapital gehiago jaso dute. EBn 2008tik sortutako 147 adarbakarretatik (mila milioi dolarreko baino gehiagoko balioespena duten hazkunde azkarreko enpresak), gutxi gorabehera heren bat joan da kanpora, gehienbat Estatu Batuetara, eragiketarik eskalatzeko finantzaketa-falta dela eta. Teknologia garbien eremuan, Txina da munduko ekoizpenaren zati handi baten jabe: Litio-oiizko baterien % 75 inguru kontrolatzen du, eta eguzki-moduluen % 80, gutxi gorabehera.

Azken urteotan ugaritu egin dira gure kontinentearen etorkizun ekonomikoari buruzko analisi ezkorrak, baina Europaren indarguneak gutxietسي dituzte. Izan ere, Europar Batasunak, Espainia barne, tresna egokiak ditu lidergoa berreskuratzeko: merkatu zabal bat, segurtasun juridikoa, bizi-kalitatea eta atzerriko talentua eta inbertsio produktiboak erakartzeko gaitasuna, baita manufakturarako gaitasun handia ere, 30 milioi europarrek egiten baitute sektore horretan lan.

Ezin dugu ahaztu, gainera, aldaketa ekonomiko eta teknologikoak hain direla azkarak, ezen gorabidean dauden herrialdeak sektore teknologiko dinamikoen lehen postuetara urte gutxitan heldu baitira, eta Europa ere horretarako gai da.

Jarduketa-eremuen diagnostika ere eginda dago: Europako tresna osatu gabeak, inbertsio-falta, finantzaketa deskoordinatua eta industriako politika nazionalen eta europarren arteko loturarik eza. Kanpo-ekintzan eta segurtasunean identifikatutako koordinazio-falta bera da, eta EBk eta haren estatu kideek Merkatu Bakarraren zamaz bete-betean baliatzeko duten oztopo nagusia da. Erronka da Europako borondate politikoa mugiaraztea, EBren energia-, industria-, merkataritza- eta lehia-politikak lehiakortasun handiagoa lortzeko erabiltzea.

Ondorioa garbia da: Europaren lehiakortasuna eta aurrerapen teknologikoa europarrek beraiek hartutako erabaki politikoek, arauketakoe eta inbertsioei buruzkoek baldintzatuko dituzte.

Merkatu Bakarra sakontzea

Barne-merkatua, EBren hazkunderako motorra eta aktibo geostrategiko garrantzitsua den hori, irmotasunez indartu beharra dago. Nazioarteko egoera berrian, nazioarteko arauak eraginkortasuna galdu duten honetan, eragileen tamaina are garrantzitsuagoa da. Hori dela eta, Merkatu Bakarra da Europari nazioartean garrantzi handiagoa ematen dion faktorea. Hala eta guztiz ere, zeregin hori behin eta betiko sendotzeko, anbizio handiko erreformak egin behar zaizkio. NDFren arabera, Europar Batasunaren barneko oztopoak estatu kideen arteko muga-zerga inplizitu baten baliokideak dira: % 44koa ondasunen kasuan, % 10ekoa zerbitzuetan. Lehen urratsa da Batasunaren barneko merkataritzarako oztopoak txikitzea, desagerrarazi arte.

Merkatu Bakarra energiara, telekomunikazioetara, finantzetara eta defentsaren industriara zabaldu behar da, Europako enpresen eskala handitu ahal izateko. Oraindik ere jorratu gabeko alderdiak ere garatu behar dira, bereziki Kapitalen Merkatu Bakarra bukatuz eta Aurrezkiaren eta Inbertsioaren Batasuna sortuz, EBtik ateratzen den Europako aurrezkien zati handi bat bideratu

ahal izateko, Batasuneko inbertsio produktiboak finantza ditzan.

Enpresen zama administratiboa txikitu behar da, funtsezko helbururik arriskuan jarri gabe. Enpresek dituzten betekizun administratiboak soildu egin behar dira, bereziki ETE-enak, funtsezko helburu jakin batzuk errespetatuta, hala nola trantsizio ekologikoa eta eskubide sozialen babesa.

Erreformatu egin behar dugu, gehiago hazteko eta etorkizuneko krisietarako hobeto prestatuta egoteko. Funtsezkoa da Bankuen Batasuna bukatzea, besteak beste, Gordailuen Bermerako Europako Sistemaren bidez eta ebazpen-mekanismo bakarra indartuz, kaudimen-gabeziaren araubide nazionalak homogeneizatuz eta zerga-harmonizazioa handituz, benetako Batasun Ekonomiko eta Monetarioa izateko. Gainera, egungo egoerak euroak erreserba-diru gisa duen rolari lagun diezioke, eta horixe indartu beharra dago, esaterako, euro digitalaren bitartez eta euroa hainbat sektoretan nazioartean gehiago erabiliz.

Europaren lehiakortasuna oztopatzen duen beste erronka bat da gobernantza erreformatu beharra, EBko erabakiak bizkorrago hartzen direla segurtatzeko. Batasunak ezin du batez beste 19 hilabete eman legegintzako pieza bat onesten, bereziki hain presa handiko erronkak ditugunean. Hori dela eta, Espainiak, beste estatu kide batzuekin eta Europako instituzioekin batera, Lehiakortasunaren Europako Laborategia abian jarri du, probak egiteko ingurune kontrolatu batean integrazio-ekimen berriak probatzeko. Proposatutako lehen proiektuak (aurrezteko produktu paneuropar bat eta ETE-entzako kreditu-kalifikaziorako sistema bat) gai izango dira Kapitalen Merkatuaren Batasunari nabarmen aurrera eginarazteko, eta europarren aurrezkiak Europako enpresetan inbertitzen lagunduko dute.

EBk eskaintzen duen arauzko ziurtasunari balioa eman behar zaio, gure abantaila nagusietako bat baita besteen aldean, aurreikusgarritasunari eta segurtasun juridikoari dagokionez. Une egokia da horretaz baliatzeko, balio erantsiko atzerriko talentua eta inbertsioa erakartzeko, zientziaren eta lan-baldintzak hobetzearen alde gogor apustu eginez.

Energia eta klima-ekintza

Europak anbizio handiko klima-ekintza lehiakortasuneko eta hazkunde ekonomikoko epe luzeko helburuekin bateratu behar du, baita

ekitate-helburuekin ere. Trantsizio ekologikoa eta 2050erako neutraltasun klimatikoa erdiesteko helburua ez dira ingurumenarekiko konpromiso bat soilik; aitzitik, hazkunderako estrategia gisa landu behar dira. Datozen lau urteetarako, Espainiak sustatu nahi du Europar Batasunak energia berriztagarriak eta energia biltegitratzea hedatzea lehenets dezala, baita efizientzia hobetzea eta garraio garbia eta ekonomia zirkularra bultzatzea, babes soziala duen arauzko esparru sendo bat garatzea, eta berrikuntzako inbertsioak egitea, trantsizio-eskualdeei arreta berezia ematen dietenak.

EB deskarbonizazioaren bidean buru izan dadin, ezinbestekoa da gure interkonexio elektrikoaren eta hidrogeno berriztagarriaren interkonexioen gaitasuna handitzea baita sare adimendunak eta biltegitratze-sistemak garatzea ere, emisiorik gabeko ekoizpen energetikoaren soberakinak ahal beste erabiltzeko.

Efizientzia energetikoaren eta emisioak txikitzearen aldeko apustua ezinbestekoa da munduaren epe ertaineko jasangarritasunerako, baina, gainera, berrikuntzarako bektore paregabeak dira, lehiakortasunean abantaila sortzen dutenak. Europako energia-ereduaren eraldaketak bidezkoa izan behar du, eta ez dio soilik klima-alaketaren kontrako borrokari lagunduko, horniduraren zurgarritasunak txikitzen, industriaren lehiakortasuna handitzen eta gure kanpoko balibideekiko mendekotasuna murrizten lagunduko baitu, eta, beraz, gure segurtasun ekonomikoa ere indartuko baitu.

Berrikuntza eta subiranotasun digitala

Europaren subiranotasun digitalak autonomia teknologikoa eta nazioarteko irekitasuna bateratu behar ditu. Espainiak gure autonomia teknologikoa bermatzeko beharra defendatzen du, hau da, teknologia kritikoen garapenari, hornikuntzari eta erabilerari buruzko erabakiak era autonomoan hartzeko gaitasuna, segurtasun nazionala, gure demokraziaren babesa eta herritarren eskubideak bermatu ahal izateko. Asmoa ez da autarkia teknologiko bat bilatzea, baizik eta kanpoko eragileekiko zurgarritasunak eta mendekotasunak saihestea, eta, aldi berean, nazioarteko irekitasuna mantentzea, gure lehiakortasuna bermatzeko.

Espainiak eta EBk beren defizit digitalari aurre egin behar diote, etorkizuneko sektoreetan atzean ez gelditzeko. Lasterketa teknologikoak (AA, txipak, konputazio kuantikoa, teknologia garbiak, sektore espaziala edo militarra) berrikuntza,

inbertsioa, lehiakortasuna eta geopolitika biltzen ditu. Gure mendekotasunak txikitze aldera, Espainiak industria- eta teknologia-politika sendoa bultzatuko du, hala estatuan nola Europan, gure ekosistema digitalen lehiakortasuna sustatzeko, gure erresilientziarako gakoak diren sektoreak lehenetsiz eta EBren eskutik munduko lasterketa teknologikoan pate hartzen dugula segurtatuz.

Horretarako, berrikuntzan egiten dugun ahalegina bidertu behar dugu, prestakuntza hobetu behar dugu eta teknologia aurreratueta talentua erakarri behar dugu, eta, horrez gain, AA enpresa-ehunean eta online administrazio publikoan txertatzea erraztu behar dugu, Adimen Artifizialaren Espainiako Estrategiari eta Teknologia Kuantikoen Espainiako Estrategiari jarraituz.

EPE LUZEKO PRODUKTIBITATEAN ETA SEGURTASUNEAN INBERTITZEA

Espainiako enpresen lehiakortasuna eta produktibitatearen hazkundea bermatzeko, ezinbestekoa da Espainia eta EB berrindustrializatu daitezen sustatzea, Merkatu Bakarra osatzeko eta gure industriaren, manufakturaren eta teknologiaren oinarriak bultzatzeko, ekoizpena eta balio erantsi handiko zerbitzuen esportazioa bultzatu bitartean. Horren guztiaren helburua da gure ehun produktiboa indartzea eta gure enpresak gure mugetatik kanpo ere berdintasunez lehiatzen direla bermatzea. Ondore horietarako, gure indarguneak zukutu behar ditugu, sektore estrategikoetan ditugun ekoizpen-gaitasunak sustatzeko eta gure inbertsio-ahaleginak lehenesteko:

Abantailak dituzten sektore estrategikoak bultzatuz. Lehen urratsa da besteekin alderatuta abantailak ditugun sektoreak indartzea, adibidez, elektrolizagailuen ekoizpena eta ziberespazioaren eta zibersegurtasunaren eremua.

Gorabidean dauden teknologian eta potentzial latentean inbertituz. Aldi berean, inbertsio kalkulatuak egingo dira hazteko potentziala duten espazioetan edo sortzen ari diren teknologietan, adibidez, datu-zentroetan eta energia eolikoan.


Gure autonomiarako gaitasun kritikoak garatuz. Azkenik, funtsezkoa da gure segurtasunerako eta autonomiarako beste eremu kritiko batzuetan gutxieneko gaitasunak garatzea, esate baterako, hodeiko biltegiratzean eta lehengai kritikoen kudeaketan.

Europaren segurtasun ekonomikoa bermatzea

EB munduko eskualderik irekiena da alderdi ekonomikoari dagokionez; izan ere, haren BPGd-aren % 50 baino gehiago nazioarteko merkataritzari eta inbertsioari lotua dago, eta Estatu Batuen aurretik dago salgaien eta zerbitzuen esportazio-kuotari dagokionez. Hortaz, protekzionismo handiagorako munduko joera askoz kaltegarriagoa izan daiteke Batasunarentzat beste ekonomia batzuentzat baino.


Espainiak elkarrekikotasunean eta alderdi anitzeko esparruko lehia justuan oinarritutako irekitasun estrategikoaren alde egiten du. Merkataritzak atzera egitea ez da desiratzeko modukoa, baina mundu mailan joera hori dela egiaztatu da, eta hartara egokitu beharko da erabaki politikoak hartzeko era, hornidura-kateak ziurtatuz eta dibertsifikatuz, dagoeneko badauden aliantzak sakonduz eta

Merkataritzako irekitasuna



Iturria: Munduko Bankua.

Salgaiak eta zerbitzuak munduko merkatuetan esportatzearen kuota



Iturria: Merkataritzaren Munduko Erakundea.

konfiantzazko harreman berriak sortuz zaugarritasunak eta mendekotasunak txikitu ahal izateko, gure eraginkortasuna bidertze aldera.

Nazioarteko ordena aldatu egin da, eta Espainiak eta EBk ere aldatu egin behar dute. Ikusmolde estrategikotik, oinarri ekonomikoa boterearen funtsezko oinarrietako bat da, baina zaugarritasun-iturria ere bai. Gero eta zatikatze politiko eta ekonomiko handiagoak behartu egiten gaitu segurtasun ekonomikoaren ikuspegia erabakiak hartzeko prozesuan txertatzera, arriskuak txikitzeko. Elkarrekiko mendekotasunak arma gisa erabiltzea, merkataritzarako oztopoak ugaritzea, pandemian gertatutako hornidura-kateen etenaldiak eta Errusiak Ukraina inbaditzean sortutako krisi energetikoak behartu egiten gaituzte efizientziaren eta segurtasunaren arteko erabakia berriz ere ebaluatzen, eta azken horri gehiago erreparatzera.

Zehatz-mehatz identifikatu behar ditugu gure segurtasunerako sektore kritikoei –teknologia, defentsa, osasuna, energia, lehengai kritikoa eta elikadura– **eragiten**


dieten zaugarritasunak eta mendekotasunak, murriztu egin behar ditugu, eta babestu egin behar ditugu mendekotasun arriskutsuetatik, etenaldi posibleetatik eta hertsadura ekonomikoko neurrietatik.

Ahalegin hori egin da azken boladako krisietan, baina ez da osatu, eta ezin dugu konplazentzian jausi. Ezinbestekoa da auzi kritiko horri arreta politikoa etengabe ematea. Hain zuzen, segurtasun energetikoa bereziki garrantzitsua da kanpoko eragileek presiona ez gaitzaten. Zentzu horretan, gakoa da hornitzailea, biltegiatzea eta interkonexioak dibertsifikatzearen alde egitea, baita berrikuntzan eta efizientzia energetikoan inbertsioa handitzea ere.


Merkataritza librearen aldeko planteamenduak mantenduta ere, gure politikek egungo erreallitate estrategikoari erantzun behar diote, eta agerikoa da geopolitika gero eta gehiago gailentzen ari dela. Hortaz, gehiago jardun beharko da estatuan eta Europar hiru garren estatuek ezarritako politikei baldintza berdinetan erantzuteko,

Geopolitikaren inpaktua merkataritza-fluxuetan

Merkataritzaren 2022ko inbasioaren ondorengo bilakaera



Blokeen arteko merkataritzaren zatikatzea



Iturria: Gopinath, G., Gourinchas, P.-O., Presbitero, A. F., & Topalova, P. (2024). Changing global linkages: A new cold war? [IMF Working Paper No. WP/24/76]. International Monetary Fund.

besteak beste, industriaren alorrean gure enpresak desabantaila-egoeran jarriko dituztenei..

Epe luzeko erresilientziarako, gure funtsezko enpresa eta hornidura-kateak babestu behar ditugu, lehengai gakoak eta teknologia sentikorrek eskuragarri ditugula bermatzeko. Helburu horrekin, segurtasun ekonomikoko estandarrak sustatuko dira gure hornidura-kateetarako, kontingentzia-planak shock-ak daudenerako, eta Europan erreserba komunak ezarriko dira sektore kritikoetan, EBren Segurtasun Ekonomikorako Estrategiari jarraituz. Espainiak ahalegina egingo du hornidura-kateetako etenei era koordinatuan eta bizkortasunez aurre egiteko, instituzioen erantzuteko gaitasuna indartuz, alor zibila eta militarra lerrotatuz; horretarako, Krisiei Erantzuteko Planen Katalogo bat sortuko du, eta segurtasun-ekonomikoari buruzko lan-talde bat eratuko du Gai Ekonomikoen Batzorde Delegatuan (GEBD), Defentsa Ministerioa partaide izango duena, berez ikusmolde ekonomiko, teknologiko eta segurtasunaren eremuko ikusmoldeak zentzu zabalean batzen dituen eremu horretan gure ekintza lerrotatzeko asmoz.

Europako botere ekonomikoaz baliatzea lehiatzeko eta gure segurtasun ekonomikoa handitzeko. EB potentzia ekonomiko bat da, baina tresna geoekonomiko ugari falta zituen. Azken urteotan, merkataritzako defentsarako tresna egokiz hornitu gara, esaterako, hertsaduraren kontrako tresnaz. Hala eta guztiz ere, urrun gaude oraindik jardunbide nahasleen aurrean Europako enpresei merkataritza-baldintza ekitatiboak bermatzetik. Bereziki garrantzitsua da Europako enpresek behar besteko eskala eskuratzea, munduak lehiatu ahal izan daitezen EB sektore kritikoetan ezinbestekoa izan dadila bermatzeko. Horretarako, EBk hobeto erabili behar du bere botere ekonomikoa, merkataritzakoa eta arauzkoa, sektore kritikoe-tako hornidura-kateetan eragiteko, asertiboagoa izan behar du lehiaren kontrako jardunbideekin, kideekin sektoreko akordioak egin behar ditu eta bere botere finantzarioa erabili behar du Global Gatewayren moduko ekimenen bitartez.

Espainiak buru izaten jarraitu beharko du EBk hirugarren herrialde eta eskualdeekin dituen merkataritzako akordioen sarea garatzeko laguntzan, ez soilik Europaren ekonomiaren estrategiarako autonomia irekia bermatzeko, baizik eta EBk munduaren geopolitikan eragiteko bide gisa. Merkataritzako kideen sarea handitzeak berekin ekarriko du bazkide horiek EBrekin elkarlanean aritzeko borondate handiagoa izatea, eremu guztiz ekonomikotik harago ere, eta gure mendekotasuna txikituko du, hornitzaile fidagarriak dibertsifikatzean. Hain justu, merkataritza handiagoak gure autonomia handitzen du. Hegoaldeko Merkatu Bakarrarekin (MERCOSUR) egindako akordioa da ikusmolde estrategiko horren adibiderik onena: Europar Batasunak munduak sinesgarritasuna duen eragilea izan nahi badu, seriotasunez hartu beharko ditu bere konpromisoak, eta lehenbailehen berretsi beharko ditu.

Defentsarako eta disuasio ekonomikorako mekanismoak indartzea, hertsadura-taktiken kontra. Hirugarrenen hertsadurazko taktikak saihesteko funtsezkoa izango da EBren disuasio ekonomikoa indartzea, merkataritzako defentsa-tresnak indartuz; gaitasun tekniko handiagoa eskuratzea zehapenerako eta esportazioak kontrolatzeko; eta inbertsioak kontrolatzeko alorrean estatu kideen arteko esparru koordinatuago eta egituratuago bat izatea.

Sektore pribatuaren laguntza funtsezkoa da Europaren segurtasun ekonomikoa finkatzeko. Haren laguntzarik gabe, ez dira hain eraginkorrak informazio-bilketa, arriskuen kudeaketa eta neurrien ezarpena. Horregatik, aurrera jarraitu behar dugu, alor publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren mekanismo egituratuak lortzeko.

Gure segurtasun ekonomikoa hirugarrenen hertsadurazko neurrietatik babesteko, mehatxuei aurre hartu behar zaie eta gure defentsa- eta inteligentzia-gaitasunak indartu behar dira, aurreikusteko gaitasuna eta gure enpresen kontrako esportazio-kontrol eta bigarren mailako zehapen posibleen inpaktuaren neurketa eta hartarako prestaketa barne.

B. ESPAINIA KONPROMETITU BAT

Espainiak konpromiso handia du Nazio Batuen Gutunean kontsokratutako balio eta printzipioekin, alderdi-aniztasunarekin eta nazioarteko lankidetzarekin. Konpromiso honen oinarriak bakea defendatzeko koherentzia, giza eskubideen unibertsaltasuna eta nazioarteko zuzenbidea dira.

Sortu zenetik, alderdi anitzeko ordenak berekin ekarri ditu inoizko hazkunde demografiko, muturreko pobrezia-aren murrizketa, per capita errentaren gorakada eta bizi-itxaropenaren luzapen handieneko hamarkadak.

Gaur egun alderdi anitzeko sistemari eragiten dion krisia ikusita, Espainiak ordena hori **mantendu, erreformatu eta indartu** nahi du.

Dena den, lehiak beteriko garai honetan munduko erronka horiei aurre egiteko, mekanismo malguak beharko dira, interes partekatuen inguruan lankidetzan aritzea ahalbidetuko digutenak.

Alderdi anitzeko sistema babestea, erreformatzea eta indartzea

Alderdi anitzeko sistema krisian sartu da, nazioarteko gizarreak aurre egin behar baitio erantzun kolektiboaren bidez bakarrik jorra daitezkeen hainbat erronkari, esaterako, klima-alaketari eta pandemia berrien arriskuari.

Kinka larrian dago alderdi anitzeko sistema. Espainiaren apustua da munduko gobernantza bat, erabakiak hartzea eta espazio kolektiboa kudeatzea erraztuko duten arauetan eta jardunbideetan oinarritua. Gaur arte, estatu guztientzat irekitako instituzio formaletan eta arau-iturrietan oinarritu da alderdi anitzeko sistema, eta horixe izan da ekintza bateratuaren eta espainiar guztien segurtasun- eta ongizate-bermearen oinarria. Edonola ere, gobernantza-eredu horrek gero eta presio handiagoa jasaten du, bere funtzionamendua eta eraginkortasuna auzitan jartzen duena. Estatuko zein nazioarteko adostasunak hautsi izanak atezuan jartzen ditu alderdi anitzeko instituzioak, eta gure jarduketa birpentsatzera bultzatzen gaitu.

Geldotasunaren et paralisiaren aurrean, **estrategia integral bat defendatzen du Espainiak hiru zutabetan oinarritua: erdietsitako lorpenak mantentzea, dauden egiturak erreformatzea eta egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko munduko ekintzarako mekanismoak indartzea.**

Nazioarteko ordenaren zimenduak babestea

Nazioarteko ordenaren, nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen defentsa lehentasunak dira Espainiarentzat. Sistema honek unibertsalki onartutako eta Nazio Batuen Gutunean jasotako printzipio lotesleetan –estatuen berdintasun subiranoa, herrien determinazio librea, indarra erabiltzeko debekua eta giza eskubideen errespetua– oinarritutako lehen ordena unibertsala ordezkatzeko du, eta munduko erronkei batera erantzuteko erarik onena da.

Espainiak bere gain hartu du alderdi anitzeko sistemaren barruan erdietsitako lorpenak babesteko rol aktiboa, Nazio Batuek nazioarteko arkitekturaren giltzarritzat jota. Bigarren Mundu Gerraren ostean sortutako nazioarteko sistemaren balioa auzitan jartzen duten eta lehen-mailako botere-harremanetara itzultzea proposatzen duten korronteen kontra, Espainiak berresten du nazioarteko zuzenbidea indarrean dela ordena bidezko eta aurreikusgarri baten oinarritzko zutabe gisa. Nazioarteko foro nagusietan parte hartuz eta arauetan oinarritutako nazioarteko ordena zalantzarik gabe defendatuz, lankidetzak sustatzen eta adostasunak bilatzen jarraituko dugu. Alderdi aniztasunarekiko

daukagun konpromisoak tinko helduko dio, Nazio Batuen sistemari egiten diogun ekarpenari esker –munduko hamargarren emaila baikara–, zenbait agentziari ekarpen handiena egiten dioten herri-aldeetako bat garenez, esaterako, lheslarienezako Nazio Batuen Goi Mandataritzari.

Giza eskubideak babestea eta sustatzea

Giza eskubideak babestea eta sustatzea Espainiako kanpo-ekintzaren bereizgarrietako bat, gero eta garrantzitsuagoa, gure nortasunetik bereizena eta gure indarguneen iturria. Espainia Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluko kide hautatu izanak (2025-2027) eta Europako Kontseiluan dugun presentzia aktiboak aukera emango dute unibertsaltasunaren, banaezintasunaren, objektibotasunaren eta hautakortasunik ezaren printzipioetan oinarritutako giza eskubideen sistemaren gure defentsa indartzeko, gaur-gaurkoz mehatxupean baitago.

Espainiak giza eskubideen alorreko bere kanpo-ekintza lehentasunezko bost eremutan oinarritzen du: heriotza-zigorren kontrako borroka; aukera-berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea gizonez eta emakumez artean; arrazakeriaren eta generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko bazterkeriaren aurkako borroka; eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen defentsa eta sustapena; eta desgaitasuna dutenen eskubideen sustapena. Heriotza Zigorren kontrako Nazioarteko Batzordearen (HZNB) egoitza Madrilen dagoenez, eta haren Laguntza Taldeko lehendakaria denez, Espainia da instituzio hori nazioarteko erakunde gisa onartzeko eraldaketa-prozesuaren burua, Nazio Batuen aurrean Behatzaile Iraunkor izendapena lortzeko asmoa baitu. Dibertsitatea eta LGTBI+ pertsonen eskubideak babesteari dagokionez, lanean arituko gara sexu bereko pertsonen arteko harreman adostuak despenaliza daitezen, eta, hain zuzen, gai hori sartuta egongo da halakoak oraindik zigortzen dituzten herrialdeekin egindako aldebiko bilera guztietan, baita pertsona transekiko errespetua eta legezko aitortza ere.

Alderdi anitzeko arkitektura erreformatzea

Alderdi anitzeko sistema erreformatzea funtsezkoa da haren eraginkortasuna eta zilegitasuna bermatzeko. Helburua da ondo dabilena indartzea eta behar diren erreformak sustatzea. Ildo horretan, munduko gobernantzarako egiturak eguneratu beharrean gaude, eraginkoragoak izan daitezen, eta hobeto ordezkari dezaten nazioarteko egungo gizarteak. Hertsiki lotuta daude eraginkortasuna eta ordezkagarritasuna: alderdi anitzeko sistemak

funtzionatuko badu, estatu gehienek funtziona dezan nahi izan behar dute, eta, horretarako, ondo ordezkatuta egon behar dute, ezinbestean.

Erabakiak hartzeko prozesuak erreformatzeko eskariak abagune ederra dira sistema inklusiboago eta eraginkoragoa eraikitzeko, nazioarteko komunitate osoaren mesedetan. Instituzioen erreformei benetako bultzada bat emateak aldatu egin dezake alderdi anitzeko auziei buruzko eztabaida, eta proposamen eraikitzaileetara hurbildu.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua erreformatu beharra dago. Adostasunaren aldeko Talde Batuetako kide denez, Espainiak defendatzen du Segurtasun Kontseilu eraginkor, garden eta ordezkagarriagoa lortzeko jauzi egitea. Eraldaketa hori bi ardatz nagusiren inguruan egin beharko da: kide ez iraunkorren kopurua handitzea eta betoaren erabilera mugatzea. Helburua da organo ordezkagarriagoa eta bizkoragoa lortzea, nazioarteko krisiei eraginkortasunez erantzuteko gai dena. Konpromiso horren indargarri dugu Espainia 2031-2032 aldirako kide ez iraunkor moduan izendatzeko hautagaitza.

Halaber, munduko arkitektura finantzarioa modernizatzea funtsezkoa da garapen ekonomiko bidezkoagoa lortzeko. Espainiak irmotasunez eta modu eraikitzailean babestuko ditu Bretton Woodseko instituzioak gure garaiko behar eta eskarrietara egokitzeko eta haientzako eguneratzeko ahaleginak. Nazioarteko sistema finantzarioak aurrera egin behar du, mekanismo bidezkoagoak, inklusiboagoak eta gabezia finantzario handienak dituzten herrialdeetara baliabide gehiago eraginkortasunez bideratzeko gai direnak ezartzeko.

Arreta berezia jarriko diogu Merkataritzaren Munduko Erakundea (MME) erreformatzeari. Merkataritza-fluxuak mehatxu handien mende dauden honetan, behar-beharrezkoa da MME osorik eta premiaz erreformatzea, desadostasunak ebazteko sistema biziberritzea arreta berezia jarrita.

Horrekin batera, Espainiak lankidetzak malgurako aukerak bilatuko ditu, erronka kolektiboak erantzuteko. Alderdi anitzaren artean adostasunak lortzea ezinezkoa denean, lankidetzak-esparru malguk aukera eman dezakete erronka partekatutako kudeatzeko bidean aurrera egiten, esaterako, munduko ondasun publikoen gobernantzari dagokionez. Orain gutxiko ekimenen artean daude alor publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak (esaterako, txertoetarako eta immunizaziorako GAVI aliantza), estandarrak sortzeko elkarteak, aldebiko akordioak, diplomazia zientifikoko programak eta ad hoc koalizioen sorrera, eta esploratu beharreko lankidetzak eskaintzen dizkigun aukeren adibide paregabeak dira.

Lehortearen kontrako Erresilientziarako Nazioarteko Aliantzak (IDRA), Gosearen eta Pobreziaren kontrako Munduko Aliantzak eta zerealak Itsaso Beltzaren bidez esportatzeko akordioek erakusten digute ekintza diplomatiko zehatzek aukera ematen dutela mundu-mailako krisiak guztion onurarako kudeatzeko. Azken finean, nazioarteko erakundeei dagokien zeregina osatzeko ahalegiak dira, eta ez hura ordeztekoak.

Ekintza-mekanismoak indartzea

Azkenik, Espainia lanean arituko da alderdi anitzeko sistema indartzeko, sortzen ari diren eronkei aurre egiteko asmoz.

Espainiak Nazio Batuek nazioarteko bakea eta segurtasuna sustatzeko egiten duen behar ordezkaezina babesten jarraituko du, haren arkitektura instituzionalaren bidez, baita Bidali Berezien lan politikoaren bitartez ere, esaterako, Siriara, Yemenera, Sahara Mendebaldera, Aintzira Handien eskualdera eta Myanmarrera bidalitakoen lanaren bidez, eta aholkulari eta ordezkari berezien, adibidez, Ekintza Klimatikorakoen, lanarekin ere bai, adibidez. Halaber, Espainiak lehentasun berezia emango dio Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) erdiesteari, agenda klimatikoa betetzeari eta munduko ondasun publikoak, ziberespazioa eta lurraz gaindiko espazioa babesteari eta zaintzeari, baita munduko osasun-sistema indartzeari ere. Horretarako, Espainiak Garapen Jasangarrirako Alderdi Anitzeko Estrategia bat garatuko du datozen hilabeteetan.

Espainiarentzat gakoa da munduko osasunaren arkitekturaren erdigunean Osasunaren Munduko Erakundea dagoela segurtatzea, eta, horregatik, haren lanei bultzada ematen jarraituko dugu, haren Batzorde Exekutiboan sartu ondoren eta Osasunaren Munduko 78. Batzarrean Pandemiaren Munduko Ituna onetsi ostean. Orobat, lan egingo dugu osasun-estaldura unibertsala lortzeko, gure osasun-sistema nazionalarekin dugun esperientziatik abiatuta, eta Osasunaren Munduko Estrategia bat egingo da, Espainiak duen rola eta eredu horretan egiten dugun lankidetzari indartzeko.

Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) hitzarmen gehien sinatu dituen herrialdea da Espainia, eta, hortaz, hazkunde ekonomiko inklusiboa sustatuko du, lan duina, diru-sarrera justuak eta aukera-berdintasuna sortuko duten legeen eta laneko orotariko bazterkeriaren kontrako borrokaren bidez. Espainiak NLEren gobernantza eraldatzea bultzatuko du, printzipio demokratikoekin eta munduko ekonomia azken hamarkadetakoa bilakaerarekin bat

etor dadin. Gainera, turismo jasangarria sustatzen saiatuko da, lanpostuak sortzen dituen eta tokiko kultura eta produktuak sustatzen dituen. Espainiaren xedea da bere helmugak hobetzea, baita, ordea, Turismoaren Mundu Erakundean duen posizioaz baliatuz mundu osoko jardunbide egokiak aplikatzea, egoitza Madrilen baitago.

Espainiak Zibilizazioen Aliantza babesten jarraituko du, hau da, nazioartean solaskidetzari eta adostasunerako espazioak errazten dituen Espainiako ekimen bat, gaur inoiz baino beharrezkoagoak baitira.

Kanpo-politika feminista: inoiz baino beharrezkoagoa

Espainiako gizartearen balioen erakusgarri, Espainiak erreferentzia izan nahi du genero-berdintasuna era aktiboan sustatzeko konpromisoan, eta, hortaz, gure kanpo-ekintzaren lehentasunezko ardatz bat da. Helburu hori are esanguratsuago bihurtzen da gaur egun, atzeraldian baikaude, nazioarteko instituzioek onetsitako genero-politiken eta -arauen kontrako erantzuna, emakumeen eskubideen aurkako borroka eta desinformazioa asko zabaltzen ari diren honetan. Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta lan-esparruko berdintasunerako arauzko esparru aurreratu baten eta politika publiko aitzindarien bitartez, Espainiak lider izaten jarraituko du haren kanpo-politika feministaren bidez genero-berdintasunaren alderdi anitzeko agenda garatzen.

Ahalegin hori egitean, gainera, sinetsita gaude berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzea funtsezko pieza dela edozein gizarteren garapen eta hazkunde ekonomikorako. Espainiak genero-ikuspegia txertatzen jarraituko du gure kanpo-politikaren elementu transbertsal gisa, eta honako helburu nagusi hauek planteatu ditu:

- **Emakumeen eta nesken eskubideak defendatzea**, bereziki haien sexu- eta ugalketa-eskubideak Horretarako, nazioarteko justizian kontu emateko dauden mekanismoak aktibatuko dira, eta borroka egiten jarraituko da gatazketan indarkeria sexuala darabiltenen zigorgabetasunaren aurka. Emakumeen eskubideak giza eskubideak dira.
- **Emakumeen justizia ekonomikoa eta ahalduntzea sustatzea**, justiziari eta eskubide ekonomikoei buruzko Ekintza Koalizioan eta Berdintasun Belaunaldi Foroan parte hartuz. Soldata-arrakala eta lan-merkatuan parte hartzeko arrakala txikitzea gakoa da, hala eskubideen nola justiziaren nola ekonomia ikuspegitik, azkar zahartzen diren gizarteetan. Zainketek

gure gizarteak garatzeko egiten duten ekarpena aintzatestearen alde egingo du, eta emakumeen eta gizonen artean zainketaren erantzukizunak berdintasunez banatzea sustatuko du.

- **Sexu- eta genero-indarkeriaren kontrako borroka indartzea**, teknologiak erraztutako indarkeria eta pertsonen salerosketa barne. Helburu horrekin, emakumeek atzerrian duten babes eta laguntza kontsularra indartuko da.
- **Emakumeek lidergo-postuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan gehiago parte hartzea bultzatzea**. Emakumeek Espainiaren kanpo-ekintzan eta alderdi anitzeko eremuetan duten zama handitzeko ahaleginak egiten jarraitzea. Hori lortzeko, Espainia bat dator Nazio Batuen Batzar Orokorreko lehendakariaren generoa txandakatzearekin eta idazkaritza nagusirako emakume bat hautatzearekin.
- **Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren Agenda ezartzea**, eta emakumeek negozio- prozesuetan, gatazken ebazpenean eta berreraikuntzan parte har dezaten bultzatzea.

Gobernantza teknologikoa alderdi anitzeko eremuan

Garapen teknologikoa berrikuntzak arduratsuen eskutik etorri behar du. Espainiak Internet libre, ireki eta seguruaren alde egiten du apustu, alderdi interesdun ugariko eredu bati jarraituz, eta zeregin proaktiboa hartzen du eremu digitalako mundu-mailako estandar etikoak definitzen. Teknologia gero eta gero geopolitizatzen ari den honetan, eta desarautzeak eta arauketa zatikatzek dakartzan arriskuak ikusita, munduko arau eta estandarrak defini daitezten sustatuko du Espainiak, irizpide etiko eta arduratsuetan inspiratuta, datuen pribatutasunerako eta babeserako eskubidea errespetatuko dutenak eta algoritmoen gardentasuna bilatuko dutenak, alborakuntza eta arrakala sozialak ez handitzeko. Espainiaren konpromiso honen erakusgarri da Quart de Poblen (Valentzia) Nazio Batuen Munduko Zerbitzuen Zentroa sustatu eta hartu izana. Horretarako, Europar Batasunak eremu digitalaren arauketan duen eraginaren balioa aintzatesteko saiakera egingo da, baita hura esportatzekoa ere.

Espainiak defendatzen du AAren garapenei lotutako arriskuak txikitu ditzakeela haren gobernantzarako alderdi anitzeko esparru batek. Nazio Batuen Munduko Itun Digitalen konpromisoari jarraituz, Espainiak apustu egin du guztientzako irtenbide tekniko ireki eta irisgarrien alde, eta zatikatzea saihesteko nazioarteko estandar komunak

sortzearen alde. Espainiak arreta berezia jarriko du AAren Gobernantzari buruzko Munduko Elkarrietzeta eta Nazio Batuen AAri buruzko Nazioarteko Panel Zientifikoa ezartzeko erraztailekide gisa duen zereginari.

Gure herrialdeak ikur gisa hartu du eskubide digitalen defentsa, munduko eraldaketa teknologikoren eraldaketarako funtsezko zutabeetako bat baita. Espainia jo eta su aritu da azken urteotan, gizakian oinarritutako eta eskubideetara bideratutako eraldaketa digitalerako ikusmoldea nazioartean zabaltzeko. Hurrengo ureetan, eskubide digitalen inguruko nazioarteko agenda bat sustatuko du Espainiak, haren alderdi anitzeko ekintzaren bitartez, egindako lorpenetan oinarrituta (Eskubide Digitalen Europako Adierazpena, Leongo Adierazpena eta Eskubideen Gutun Iberoamerikarra). Eskubide berriak bultzatuko dira neuroteknologiaren aurrean, Espainiako Gobernuaren Eskubide Digitalen Gutunean oinarrituta, eta prestatu egingo gara hainbat erronkari aurre egiteko, esaterako, zaintza masiboari, AA sistema batzuk baztertzeari, genero-ikuspegia txertatzeari eta datuak erabiltzaileen baimenik gabe biltzeari.

Nazioarteko gobernantza ekonomikoa eta finantzarioa indartzea

Espainiak bermatu nahi du munduko gobernantza ekonomikoko guztiontzako era justuan, jasangarrian eta eraginkorrean egingo duela aurrera nazioarteko foro ekonomiko gakoetan, adibidez, **G20an eta ELGAN**. Espainiaren aburuz, G20a funtsezko plataforma da ekonomia aurreratuei zein gorabidean daudenei eragiten dieten erronka kolektibok jorratzeko. Halaber, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) nazioartean duen zeregina indartzen saiatuko da, baita munduko gobernantzari eta ebidentzian oinarritutako politika publikoak diseinatzeari eta ekonomiaren eta garapenaren alderdi sozialari egiten dien ekarpena ere. Arreta berezia jarriko zaio hartara batzeko prozesuei, hura sakontzeari eta Nazio Batuen sistemarekin duen harremanari, eta, bereziki, Latinoamerikarekin eta Afrikarekin dituen harremanei.

Garapeneko alderdi anitzeko bankuetan Espainiak duen estrategia da Europa-mailan koordinatzea inbertsioen inpaktua ahal beste handitzeko eta nazioarteko sistema finantzarioa sakon erreformatzeko Europako adostasunari aurrera eginarazteko, bere gaitasun finantzarioa hobetzeko eta garapenean duen inpaktua handitzeko.

Alderdi anitzeko organismoetan, adibidez, Garapenerako Asiako Bankuan, Garapenerako Banku Interamerikarrean, Azpiegituretan Inbertitzeko Asiako

Bankuan eta Garapenerako Afrikako Bankuan, Espainia posizioak koordinatzen saiatuko da, akordioak negoziatzean Europako ahotsa kohesionatua dela segurtatzeko. Lehentasun berezia emango zaie esperientzia espainiarra duten proiektuei eta trantsizio ekologikoa eta digitala bultzatzen duten proiektuak babesteari.

Espainiak finantzaketa jasangarriarekin konpromiso handia izaten jarraituko du, Agenda 2030 garatzeko helburuak erdiesteko tresna gakoa baita. Ildo horretan, aktiboki bultzatuko dugu tresna finantzario berritzaileak erabiltzea, esaterako, bonu berdeak eta sozialak, gizarte- eta ingurumen-inpaktu handiko proiektuetara berme partekatuak edo igorpen eskubide bereziak zabaltzea, gorabidean dauden ekonomiei kinka kritikoetan laguntzeko. Garapenerako Finantzaketaren Sevillako Nazioarteko IV. Konferentzian, nazioarteko gizarteak aukera izango du finantzaketaren alorreko eraldaketa horri bultzada bat emateko, eta mekanismo eraginkorragoak sor daitezen sustatzeko, askoz baliabide gehiago bideratu ahal izateko behar handiena duten herrialdeetara.

Zorraren zama pisua da munduko herrialde askoren garapenerako. Errenta txiki eta ertaineko herrialdeen pandemiaren ondorengo zorpetze-maila handia eta bere zerbitzuei eusteko zailtasunak oztopoak dira haien garapenerako, eta ezegonkortasun-iturriak ere bai. Herrialde batzuetan, zorraren zerbitzuak baliabide publiko gehiago kontsumitzen ditu hezkuntzaren edo osasungintzaren moduko oinarritzko gizarte-zerbitzuek baino. Hala eta guztiz ere, egoera horri ez zaio merezi duen arretarik jartzen.

Espainiak Zorra Eraldatzeko Programak (ZEP) era pragmatikoan erabili nahi ditu, irtenbide berritzaile eta jasangarriak lehenetsiz, egonkortasun finantzarioa babesteko eta zorraren gizarte-inpaktua arintzeko, batez ere programa horiek onura handienak ekar ditzaketen herrialdeetan. Horren osagarri, Espainiak duela gutxi onetsi du errenta txikiko eta ertain-txikiko herrialdeentzako mailegu subiranoko maileguetarako akordio berrietan zorraren zerbitzua eteteko klausulak sartzea, zorraren ordainketa aldi baterako atzera dadin hondamendi naturalak, osasun-larrialdiak eta elikadura-krisiak gertatuz gero, ukitutako herrialdeek arindua berehala senti dezaten, eta baliabideak libratu ditzaten une kritikoetan herritarren premiazko beharrei erantzuteko. Horren bidez, Espainiak zorra era ekitatiboagoan kudeatzearekin duen konpromisoa indartzen du, larrialdiei bizkorrago eta eraginkortasun handiagoz erantzutea errazteko. G20an parte hartzean, nazioarteko zorra kudeatzeko mekanismoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzen saiatuko gara. Espainiak era aktiboan lan egingo du azkar-rago erantzun ahal izan dadin eta hartzekodunen arteko koordinazioa hobetzeko, arintze ekitatibo eta

efizienteagoa ahalbidetuko duten akordioak egiteko epeak laburtzeko asmoz. Ikusmolde horren barruan sartuko da ekintza-mekanismo malguagoak sustatzea, eta esparru komuna zabaltzearen alde egiten du, zorraren jasangarritasun-erronkak ere badituzten errenta ertaineko herrialdeak barnean hartzeko, eta, horrela, bermatzeko ekonomia zaurgarri bat ere arintzeko eta berregituratzeko alderdi anitzeko ahaleginetatik kanpo geratzen ez dela.

Espainiak, kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen (KZ/TF) kontrako borrokan duen garrantzia handituko du, nazioarteko lankidetzaren prebentzioaren zein errepresioaren alorrean indartzeko. Konpromiso irmoa mantenduko dugu Nazioarteko Ekintza Finantzarioko Taldearen (NEFT) estandarrekin bat egiten jarraitzeko, haien araberrako arauketa berma dadin eta neurriak mundu-mailan eraginkorrak direla segurtatzeko. Europa-mailan, Espainiak Kapitalak Zuritzearen eta Terrorismoa Finantzatzearen kontrako Borrokarako Autoritate (KZBA) berriarekin batera lan egingo du.

Migrazio segurua, antolatu eta erregularra sustatzea

Espainiak bultzatzen duen migrazio-politikak gizatasuna eta ardura bateratzen ditu, Europako negu demografikoari erantzuteko estrategia gisa. Gure ekonomiaren dinamikotasuna eta gure ongizate-ereduaren jasangarritasuna migrazioaren mende daude, hein handi batean, eta horiexek dira, izan ere, egungo erronka demografikoei aurre egiteko funtsezko zutabeak, teknologiak eskaintzen duen produktibotasunaren hazkundearekin eta familiako kontziliazioarekin batera. Ikusmolde integral horrek aukera ematen digu migrazio-fluxuak datozen belaunaldiak gogoan hartuta kudeatzeko, oparotasun ekonomikoa eta gizarte-kohesioa bermatzeko. Hortaz, Espainiak migrazio segurua, antolatu eta erregularra sustatu nahi du, definitzen gaituzten gizatasun- eta ardura-printzipioak alde batera utzi gabe. Horregatik, laneko mugikortasunerako estrategia bat jorratzen ari da, migrazioaren alorrean beste herrialde batzuekin elkarlanean aritzeko fokua aldatuko duena. Halaber, lan egingo dugu gure kideekin migrazio zirkular eta egonkorerrako programak kudeatzeko, Espainiako lan-merkatuaren behar partikularretara egokitzen direnak, eta gure herrialdea gelditzen direnen talentuari probetxua hobia eta handiagoa aterako diotenak.

Europaren elkartasuna eta ardura era ekitatiboa banatzea da Espainiak EBren esparruan duen migrazio-estrategiaren funtsa. Batasunean, Espainiak Migrazioaren eta Asiloaren Ituna aplikatu dadin sustatuko du, eta elkartasun-printzipioa defendatuko du Europako proiektuaren nukleo gisa. Batasun

osoaren mesederako da ardurak estatu kide guztien artean era ekitatiboan banatzea eta elkartasun-mekanismo bat aplikatzea estatu batzuekin, esaterako, Espainiarekin, Europar Batasunaren kanpoko muga kudeatzen duten eta migrazio-presio handiagoa jasaten dutenekin, alegia.

Migrazio irregularra eraginkortasunez kudeatzeko, elkarlan estua behar da jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeen artean, bereziki gure ingurune estrategikoan. Espainiak prebentziozko ikusmolde integral bat darabil, fluxu irregularren kontrola eta pertsonen salerosketa-sareen aurkako borroka jatorrizko herrialdeen ekonomia garatzeko eta herrialdeok egonkortzeko ekimenekin bateratzen ditu, migrazio irregularren berehalako sintomei zein sakoneko kasuei heltzeko helburuarekin. Espainiako ereduak aitortza jaso du EBN eta beste estatu kide batzuetan, eta hari jarraitu dionik ere bada. Honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Erantzukizun partekatua:** Espainiak bere bazkideekin lan egiten du, elkarren onurarako helburuak erdiesteko. Immigrazio irregularren aurkako borroka interes partekatua da; izan ere, jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeek ere beren herritarrak babestu nahi dituzte salerosketa-sareetatik.

- **Erantzukizun partekatua:** Espainiak bere bazkideekin lan egiten du, elkarren onurarako helburuak erdiesteko. Immigrazio irregularren aurkako borroka interes partekatua da; izan ere, jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeek ere beren herritarrak babestu nahi dituzte salerosketa-sareetatik.


- **Elkarrekiko konfiantza:** Denboraren, entzute aktiboaren eta maila orotako aldizkako kontaktuen bitartez sortua.

- **Elkarlan operatiboa:** operatibo bateratuak eta pertsonen salerosketa-sareak desegiteko informazio-trukea barne.

- **Lankidetzaz jarraitua:** Denboran iraun beharko du eta aurreikusteko modukoa izan beharko du. Laguntza materialak, babes finantzario eta operatiboa, eta prestakuntza eta gaitasunen garapena jaso beharko ditu.

Espainiak nazioarteko babeserako eskubi-dearen aitortzarekin eta erabilerarekin duen konpromisoa mantenduko du, eta arreta berezia jarriko die zaugarritasun-egoerei, erantzun humanitario eraginkor eta duina bermatzeko. Horretarako, besoz besoz lanean jarraituko dugu

Munduan halabeharrez desplazatutakoak



Iturria: Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNHCR).

Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandataritzarekin (UNHCR) eta Migraziorako Nazioarteko Erakundearekin (IOM).

Gizarteratzea eta gizarte-inklusioa dira gure migrazio-politikaren funtsezko zutabeak. Gizarte irekia eta plurala garenez, gure lurraldean gelditzen dena errespetatuko dugu, aberasten gaituen aktibo bat baita, eta laguntza berezia emango diegu migratzaile gehien dituzten lurraldeei. Konpromiso hori indartu egin dugu Kultura arteko Integrazio eta Bizikidetzaren Planaren bidez, arrazismoari eta xenofobiari aurre egiteko, tokiko erakundearen eta hezkuntza-instituzioen gaitasunak handitzeko laguntza eskainiz eta gorroto-diskurtsoak eta delituak borrokatzeko, Interneten, bereziki. Espainia lanean arituko da nazioarteko mugikortasunarekin lotutako prozedura administratiiboak modernizatzeko eta soiltzeko. Tresna digitalen erabilera zabalduko da, eta Espainiako lan-merkatuaren behar espezifikoak erantzuten dieten atzerriko langileentzako izapideak soilduko dira. Horren osagarri, lan- eta gizarte-arloko orientabiderako, prestakuntza jarraiturako eta

hizkuntza ikasteko programak garatuko dira, migratzaileak hobeto integra daitezzen eta haien kualifikazioa Espainiako ekonomian aitortzen dela eta haren probetxu guztia ateratzen dela bermatzeko.

Espainiak diasporekin eta kanpoko espainiar komunitateekin duen solaskidetzaren indartuko du, ekimen ekonomiko, sozial eta kulturaletan parte hartzea sustatzeko. Sinergia horrek erraztu egiten du lankidetzarako loturak eta negozio-aukerak sortzea eta, aldi berean, gure gizartearen ikusmolde zabala eta inklusiboagoa ematen digu. Ildo horretan, bigarren belaunaldiak pribilegiadun solaskide gisa parte hartzea sustatuko da, jatorriko eta helmugako gizarteek elkar hobeto ulertzen eta elkarlanean aritu daitezzen, zubi kulturalak indartzeko eta dibertsitatea aberastu- iturritzat duen hazkunde- eta ongizate-eredu bati ekarpena egiteko. Gainera, handitu egingo da atzerrian bizi diren eta itzultzeko asmoa duten nazionalitate espainiarra dutenei aholkularitza emateko Itzultzeko Espainiako Bulegoak duen gaitasuna indartuko da.

Garapenerako lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren aldeko apustua egitea

Elkartasun-krisi sakona nagusi den garai honetan, lankidetzaren gehiago behar du munduak, eta ez gutxiago. Espainiak garapenerako nazioarteko lankidetzarekiko konpromisoa mantendu du, ezinbesteko mekanismoa baita muturreko pobrezia desagerrarazteko eta giza garapena sustatzeko, zeinak neurri koherenteen bidez osatu behar baitira aurrerapen txikieneko herrialdeetan inbertsioa sustatzen duten bestelako eremuetan. Erronka partekatuei aurre egiteko erantzukizuna geure gain hartzean datza; inbertsio bat da gizarte oparagoak, seguruagoak, egonkorragoak eta jasangarriagoak sortzeko, zuzeneko eragina duena herrialde kideetako gizarteetan, baita, ordea, Espainiarren ongizatean ere. Lankidetzaren alde apustu egiten dugunean, gaixotasunen hedapena prebenitzen laguntzen dugu, edo ezegonkortasunak eta larrialdiek gatazkak ekartzea saihesten, biodibertsitatea babesten eta deforestazioa prebenitzen; hau da, mugaz gaindiko eragin handiak dituzten kanpo-faktore negatiboak txikitzen ditugu gure herritarren onura zuzenerako.

Garapenerako lankidetzaren, estatu-politika gisa hartuta, Espainiako kanpo-ekintzaren zutabe nagusietako bat da, eta herritartasunaren eta nazioarteko gizartearen ikusmolde zabala eta solidarioan oinarritzen da mundu-mailako erronkei erantzuteko. Hain zuzen, adostasun handia biltzen duen politika bat da, lau espainiarretatik hiruk babesten dutena, aurreko legegintzaldian azken hogeitaz urteotako lehen Lankidetzarako Legea gehiengo zabala batek onestean ikusi zen moduan. Gainera, Europako kanpo-ekintzaren adibide espezifiko eta bereizgarria da; izan ere, EBk, haren estatu kideekin batera, munduko garapenerako laguntza ofizial (GLO) guztiaren % 40 inguru ematen du.

Lankidetzaren esparru tradizionalak garapen jasangarriarekin lotura estua duten beste eremu batzuekin bat egiten du, esaterako, merkataritza-ekin, inbertsio pribatuarekin, teknologiarekin eta migrazio-mugimenduaren kudeaketarekin, zeinek dimentsio anitzeko ikusmoldea eta baliabideak

mobilizatzeko ahalegin handiagoa eta politiken koherentzia handiagoa eskatzen duten. Horregatik, Espainiak kontakizunaren narratiba berri bat sustatu nahi du, laguntzaren logikatik aliantzarenera joko duena eta gure kideekin elkarriketan, entzutean eta helburu komunak definitzean oinarritutako harreman horizontalak sustatuko dituen. Horixe izango da Sevillan egingo den Garapenaren Finantzaketarako IV. Konferentziaren erdiguneko gaietako bat.

Espainiak azken urteotan egindako urratsak sendotu beharko ditu, ez soilik GLOaren aurrekontu-konpromisoak indartzeko, baizik eta bere lankidetzaren sistema modernizatzeko eta berritzeko. Ondore horietarako, Espainiaren lankidetzak garai berria hasiko du, Garapen Jasangarri-rako eta Munduko Elkartasunerako Lankidetzaren Legea eta hura garatzeko erregelamendua onetsi ondorengo eraldaketa sakonaren ostean. Hurrengo urteetan, gure ekintza honako ardatz hauen inguruan antolatuko da:

- **Lankidetzaren sistema indartzea:** Lankidetzarako Legea eta Espainiako Lankidetzaren 2024-2027 Gidaritza Planak garapen-eragile guztien arteko koherentzia, lerrokatzea eta koordinazioa indartzen dute, eta, horrenbestez, baita politika publiko honen eraginkortasuna ere. Horrek guztiak barnean hartzen du lankidetzaren deszentralizatua (autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak eta tokiko erakundeak), unibertsitateak, garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKE), sindikatuak, sektore pribatua eta ekonomia soziala. Sektoreko Konferentzia berria abian jarritakoan, nabarmen indartuko dira koordinaziorako eta kontsultarako organoak. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia estatutu berriaren bidez erreformatzean, apustu egin da gaitasun handiagoak eta tresna eraginkorragoak izango dituen eta Espainian eta handik kanpo aliantzak sortzera bideratuko den garapen-agentzia baten alde. Kooperanteen Estatutuaren xedea da gure lankidetzaren giza kapitala indartzea, eta lankidetzarako dirulaguntzen arauketa berriarena, aldiz, tresna eta deialdiak bizkorragoak izatea. Horrez gain, Garapen Jasangarri-rako Espainiako Funtz (GJEF) berriaren helburua da gure lankidetzaren finantzarioak garapen jasangarriaren aldeko baliabideak finkatzeko aukerak ugaritzea da, inbertsio pribatuarekiko sinergiak erabiliz, batez ere.
- **Lankidetzako eragile gisa dugun profila indartzen duen berezko nortasuneko lankidetzaren baterantz jotzea:** Espainiak ibilbide sendoa eta balio erantsia duen lan-eremuak lehenetsiko ditu, adibidez, genero-berdintasuna eta emakumeen

eta nesken ahalduntzea, ura eta saneamendua izateko eskubidea, osasun-sistema indartzea, gosearen aurkako borroka, bakea eta gobernantza demokratikoa eraikitzea, kultura, eta hezkuntza. Gure lankidetzak trantsizio ekonomiko justuari ekarpen handiagoa egin diezaion sustatzen jarraituko dugu (bereziki klimarekiko egokitzapenari eta arintze klimatikoari), baita biodibertsitate-galeraren aurkako borrokari ere, eta hainbat sektoretan ditugun gaitasunak indartuko ditugu, hala nola digitalizazioan nola migrazioetan. Ikuspegi geografikotik, Espainiako lankidetzaren eskualde tradizionalak mantenduko ditugu (Latinoamerika eta Karibea, mundu arabiarra eta Afrika, eta, bereziki, Afrika mendebaldea), eta Asiarako eskualdeko lanketa bat garatuko dugu.

- **Finantzaketa handitzea:** Espainiak lan egingo du lankidetzaren egiteko eta beste eragile batzuekin (gizarte zibila, sektore pribatua, akademia alderdi anitzeko kideak) batera lan egiteko era berriak bultzatzeko, munduko ekimenetako parte hartzea handitzeko eta, esan gabe doa, baita aurrekontuak handitzeko bidean aurrera egiteko ere, legean jasota dagoen moduan EN-Garen % 0,7ra heltzeko. Halaber, beharrezkoa izango da lan-esparru berritzaile bat ere ezartzea, finantzaketa-iturri berriak lortuz, eta lankidetzaren modalitate jakin batzuei rol garrantzitsua ematea ere bai, esaterako, lankidetzaren finantzarioari, GJEF sortu ondoren.
- **Ekintza humanitarioa erdigunean jartzea:** Kide humanitario bat da Espainia, ezaguna bere printzipioengatik eta nazioarteko panorama humanitarioan gero eta presentzia handiagoa duelako, 300 milioi lagunek baino gehiago laguntza humanitarioa behar duten honetan, eta halaxe jarraitu behar du. Lan egingo da gure GLOaren % 10 ekintza humanitarioa bideratzeko konpromisoa betetzeko, eta arreta berezia jarriko zaie krisi ahaztuei, nazioarteko zuzenbidearen eta zuzenbide humanitarioaren defentsari, ikuspegi feministari eta larrialdietarako prestatzeko hezkuntzari. Gatazkak ugaritzeak kooperanteen eta langile humanitarioen segurtasuna handitzera eramango gaitu.

Espainiaren lidergo handiagoa EBn eta mundu-mailako garapen-eragile moduan: Garapenerako Finantzaketaren Nazioarteko IV. Konferentziaren egoitza gisa Espainia hautatu izanak, 2025ean Sevillan egingo baita, aukera bat da Espainiak bere alderdi anitzeko profila sendotu dezan, eta gai izan dadin garapenerako lankidetzaren finantzaketan ekintzarako adostasunak eta koalizioak sortzeko, GJHen finantzaketa-arrakala txikitzeko ekimen zehatzekin batera, egungo arrakala lau bilioi euro

ingurukoa baita. Espainiak, gainera, oso era aktiboan parte hartuko du 2030 ondorengo agenda diseinatzen. Halaber, gure ekarpen finantzarioen ahalik eta probetxurik handiena lortzeko ahalegina egingo da, Espainiaren ikusgaitasuna eta ospe ona handitzeko.


Kapital pribatua garapen-proiektuetan mobilizatzea sustatuko dugu, inpaktudun inbertsioaren bidez, esaterako, eta espainiar enpresak garapen-proiektuetan eta inbertsio jasangarrietan parte hartzea erraztuz. Sektorre publiko eta pribatuaren elkarlana gakoa da finantzaketaren arrakala ixteko.

Larrialdi klimatikoari eta biodibertsitate-larrialdiari aurre egitea

Urtez urte, aurreko urteko emisioen errekorra hausten dugu. Munduko tenperaturek hainbatetan gainditu dute 1,5 C-ko atalase kritikoa. Muturreko egoera klimatiko hori gero eta kezagarria da baliabide naturalengatik eta biodibertsitatearen galaragatik, eta, beraz, nazioarteko komunitateak berehala eta era koordinatuan jardun beharra dauka.

Espainiak erronka horri lidergo-posiziotik heldu dio, energia berriztagarrietan egiten dituen inbertsioek eta planeta jasangarriago, bizigarriago eta berdeago batekin duen konpromiso eztaba daezinak erakusten dutenez, eta espero dugu abangoardian egotea trantsizio energetikoaren, segurtasun hidrikoaren, biodibertsitatearen babesaren eta lehengoratzearen,

Gainazaleko munduko tenperatura, 1951-1980 batezbestekoari dagokiona



Iturria: NASA.

ingurumenaren kudeaketaren eta desertifikazioaren aurkako borrokaren alorretan.

Daukan enpresarekin alderatuta emisio gutxien sortzen duen espazio ekonomikoetako bat da Europar Batasuna, munduko emisioen % 6 egiten baitu. Europaren ahaleginek aurrera jarraitu behar dute, beste eragile batzuen eredu bihurtzeko, baina beren kabuz ez dira nahikoak tenperaturaren gorakadaren joera bukatzeko. Horregatik, ahalegin diplomatikoak bereziki garrantzitsuak dira munduko kideekiko lankidetzaz eta konpromisoa indartzeko. Arrakasta izateko, ezinbestekoa izango da haien beharrak aintzat hartzea, bereziki finantzaketari dagokionez.


Horregatik, Espainiako diplomazia berdearen oinarria da nazioarteko akordio klimatikoak eta ingurumenekoak egiaz aplikatu daitezkeen sustatzea. Espainiak Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Ituna eta Parisko Akordioa aplikatzeko estrategia bat garatu du, deskarbonizaziorako ahaleginetan aurrera jarraitzeko. lehenetsia da Parisen ezarritako helburua betetzea, hau da, munduko beroketa 1,5

C-ra mugatzea, hori ez gainditzea, eta hamarkada kritiko honetako ekintzen funtsa erregai fosilak maila desagerraraztea eta energia berriztagarriekin ordeztzea eta energia-efizientzia lortzea bideratzea.

Ondore horietarako, herrialde guztien klima-alaketaren inpaktura egokitzeko eta hura arintzeko gaitasunak hobetzen lagunduko dugu, Nazioarteko Finantzaketa Klimatikoaren Espainiako Estrategiari jarraituz baliabideak ezarriz eta emisio-garapen txikiko fluxu finantzarioen koherentziaren bitartez.

Itun Berdearen Plan Industrialarekin bat, Espainiak teknologia garbietan duen lidergoa indartuko du, Energiaren eta Klimaren 2023-2030 Plan Nazional Integratuari jarraituz. Espainiak energia berriztagarrien alde egindako apustu garbiak mendekotasun energetikoa txikitu du, eta historian lehen aldiz energiaren prezio ordaingarriak lortu ditu. Gure kanpo-politikaren konpromisoak izaten jarraituko dute deskarbonizazioak, horniduraren segurtasunak eta ordaingarritasunak. Datozen urteotan nabarmen aldatuko da inbertsio industrialen mapa, eta aukera

Urteko CO₂ emisioak, eskualdeka



Iturria: Global Carbon Budget (2025).

bat irekiko zaigu, energiaren prezioa txikiagoa izango delako energia berriztagarrien alde egindako apustu irmoari esker.

Espainiako ingurumen-politikaren beste ardatz bat da biodibertsitatea, ur kontinentalak eta itsasoak babestea. Biodibertsitatea babesteko ahalegiak handituko ditu Espainiak, Biodibertsitatearen Kunming-Montreal 2030 Mundu Mailako Esparrua ezarri, zeinak hamarkada honetarako helburuak eta helmugak ezartzen baititu. Halaber, ozeanoak babestea sustatuko da, 2030erako itsasoaren azaleraren % 30 babesten eta eraginkortasunez kudeatzen dela bermatzeko. Helburu horrekin, biodibertsitatea babesteko akordioa muga nazionaletatik harago aplikatuko dugu, eta aurrera egingo dugu Artikoren eta Antartikaren babesean, plastikoei buruzko munduko akordioan eta itsas azpiko meatzaritza arautzeko esparruan badaezpadako etenaldi bat sustatzen.

Espainiak lan egingo du espezieen salerosketaren eta lurreko ekosistemen narriaduraren kontrako borroka indartzeko. Espainiako ekimenen helburu nagusia espezie basatien lege kanpoko salerosketa eta isileko ehiza borrokatzea da, jarduera horiek biodibertsitatean duten eragin handiari erantzuteko eta, aldi berean, tokiko komunitateentzat dituzten ondorio sozialei aurre egiteko. Horrez gain, deforestazioaren kontrako borrokarako nazioarteko konpromisoa indartuko da, eta nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako lehengaien hornidura-sareen jasangarritasuna sustatuko da. Mediterraneoan, Espainiak elkarlana eta lankidetzak sustatzen jarraituko du, biodibertsitatea kontserbatzeko eta lehengoratzeko, bereziki Mediterraneorako

Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen bulegoarekin, zeinak egoitza Espainian baitu.

Orobat sustatuko dira desertifikazioaren kontrako borroka eta lehorteen kontrako erresilientzia, ingurumenerako duten garrantzia eta pobreziaaren kontrako borrokarekin, elikagaien segurtasunarekin eta gatazka armatuekin duten lotura kontuan hartuta.

Desertifikazioaren eta haren ondorio sozioekonomikoen kontrako konpromisoaren erakusgarri da Lehorteen kontrako Erresilientziarako Nazioarteko Aliantza (IDRA), Senegalekin batera bultzatu genuena. Azkenik, basoko suteen alorreko Espainiaren nazioarteko lankidetzak indartzeko ahalegina egingo da, bereziki Latinoamerikan, dagoeneko horren inguruko lotura eta ekintzak daude eta. Halaber, aldebiko akordioak sustatuko dira natur ondarearen eta biodibertsitatearen alorrean, herrialde mugakideekin (Frantzia, Portugal eta Maroko), baita Espainian dauden espezie migratzaileekin lurraldea partekatzen duten herrialdeekin ere.

Lurreko poloekin gero eta interes geoestrategiko handiagoa dagoen honetan, 2025eko Espainiako Estrategia Polar berriak espazio horiek babestearekin dugun konpromisoa irmotu zuen. Espainiak poloetan duen presentzia indartuko du, bere ibilbide zientifikoaz, sistema Antartikoko organoetan duen partaidetzaz eta Kontseilu Artikokoan estatu behatzaile gisa duen rolaz baliatuz. Espainiak defendatzen du poloak bake- eta segurtasun-espazioak direla, ingurumena babesteko guneak eta baliabide naturalak modu arrazionalen kudeatzekoak, alderdi anitz bidez gobernatu behar direnak, nazioarteko zuzenbideari jarraituz.

C. BAKEA ETA SEGURTASUNA ERAIKITZEN DUEN ESPAINIA

Mundu gero eta gatazkatsuagora egokitzea


Espainiak tinko eusten dio alderdi anitzeko sistematikiko konpromisoari, emaitzak eman baititu eta inoiz baino beharrezkoagoa baita, baina badaki neurriak hartu beharra dagoela nazioarteko egoera berrira egokitzeko.

Azken urteotan segurtasuna kaskartu izanak Europak hainbat hamarkadaz gozatu duen bake-dibidenduaren amaiera ekarri du; izan ere, 1945tik gizateriak ez dio hainbeste gatazkari aurre egin behar izan. Gaur egun 50 gatazka aktibo inguru daude, eta Nazio Batuen kideen ia erdiak daude tartean, zuzenean edo zeharka, biktimen kopurua hiru hamarkadatan ikusi gabeko zifretara iritsi eta indarkeriaren inpaktu ekonomikoa munduko BPGd-aren %13ra heldu bitartean.

Egoera hori agerian uzten du, gainera, defentsan egindako mundu-mailako inbertsioaren errekorrak eta arma nuklearrak ugaritzeko gero eta arrisku handiagoak. Mehatxu transnazionalen arriskua handitzeko aukerak (terrorismoa edo krimen antolatua), porrot egin duten estatuak egotea errazten dutenak, gakoak izango dira datozen lau urteetan ere.

Espainiako kanpo-ekintza eremu guztietan indartu behar da, gure herritarrak eta haien bizi-proiektuak ezeگونkortasun eta gatazka ugariagoetatik hobeto babesteko. Hori lortzea diplomaziari, defentsari eta herritarren segurtasunari dagokie, era klasikoan ulertuta, baina kontzeptu zabalgokoak ere hartzen ditu, gure segurtasun ekonomikoa sustatzeari eta hertsadura ekonomikoko

Gatazketako biktimak




Iturria: Uppsala Conflict Data Program.

saiakerai edo mehatxu hibridoai aurre egiteari, esaterako, zibermehatxuak eta desinformazioa barne. Konpromiso horrek berarekin dakar tropak batera zabaltzeko ekarpena, gure kideekin defentsa-politika koordinatuak sustatzea, munduko testuinguru berrira egokitutako gaitasun diplomatikoak eta segurtasunekoak garatzea, eta mehatxu partekatuetarako erantzun eraginkorrak bilatzea.

Hori guztia segurtasunaren ikusmolde integratu baten ondorioa da, Segurtasun Estrategia Nazionalaren araberrako ikusmolde batena. Segurtasuna Europako eta nazioarteko ondasun publiko bat da, eta egoera berriak beren defentsarako erantzukizun handiagoa hartzera behartzen ditu Espainia eta Europa, baina, gainera, lan hori gure mugetatik kanpora bideratzeko ere bai, segurtasun kolektibo lortzen lagunduz eta segurtasun-emaile gisa posizionatuz.

Espainiak parte hartzen duen eta abian dauden nazioarteko misioak (2025)



Iturria: Defentsa Ministerioa, 2025.

Espainiak jarraitu egingo du nazioarteko segurtasun-arkitekturan, era aktiboan parte hartzen, baita euroatlantikoan eta europarrean ere, eta apustu egingo du izaera solidarioa eta arauetan oinarritua izan dezan. NATO izango da disuasio eta defentsa kolektiborako, krisien prebentziorako eta kudeaketarako eta kideak garatzeko gure ekarpenen erdigune nagusia, bereziki Hegoaldeko Ingururako Aliantzaren Ekintza Planari dagokionez. Azken horretan, Espainiak liderra izaten jarraitu behar du, bai goi-mailako solaskidetza politikoa sustatzen, bai Hegoaldeko Ingururako Idazkari Nagusiaren Ordezkarri Bereziaren lana babesten ere. Halaber, Espainiak lankidetza praktikoaren esparruan egingandako ahaleginak mantenduko ditu, bereziki herrialde kideen gaitasunak indartzeko paketei egindako ekarpenaren bidez, zeinak 2024 egin baitzituen. Gainera, solaskidetza politikoa indartuko da Elkarrizketa Mediterraneoko eta Istanbulgo Lankidetza Ekimeneko kideekin.

Garai horretan, Espainiak segurtasuneko eta defentsako bere inbertsioa sustatzen jarraituko du, NATOn hartutako konpromisoari jarraituz, eta oso era nabarmenean laguntzen jarraituko dugu NATOren misioetan eta EBren operazioetan. Eta, are garrantzitsuagoa dena: Konpromiso handiko aliatua denez, eta bere osaera politiko, geografiko eta ekonomikoa tarteko, segurtasun kolektiboaren kargaren kuota handi bat jartzen jarraituko du, aliatu guztien segurtasunaren eta defentsaren izaera banaezina berresteko, Madrilgo Kontzeptu Estrategikoari jarraituz.

Daukan garrantzia eta ibilbidea direla eta, Espainiak aldi honetan, sortzen ari den Defentsaren Europar Batasunean oso zeregin garrantzitsua izan behar du. Gainera, helburua da NATOren eta EBren arteko harreman estrategikoa finkatzea, osagarritasunaren, koherentziaren eta elkar indartzearen printzipioetan oinarrituta. Gure Kanpo Zerbitzua, gure Indar Armatuak eta Segurtasun Kidego eta Indarrak aktiboki inplikaturik daude Europa eraikitze prozesuaren beharrezko dimentsio hau definitzen, planeatzen eta mailaka aplikatzen, hain luzaroan eztabaidagai izan bada ere, orain atzerazina baita.

Espainiak eremu horretan EBk ezarritako programetan eta tresnetan duen partaidetza handitzen jarraitu behar du, gainera. Lehentasunez erreparatuko zaio Bakerako Europako Erraztasunari, zeinak aukerak ematen baititu Espainiak gure ingurune estrategikoaren egonkortasunari egiten dion ekarpena handitzeko. Tresna garrantzitsu horretarako, gainera, onuragarria izan daiteke gure mundu-mailako bokazioa.

Aldi horretarako lehentasunezko beste helburu bat da Defentsa Industriaren Programari buruzko

Erregelamenduak emango dituen aukera guztiez baliatzea, baita Urte Anitzeko hurrengo Esparru Finantzariorako nahiko baliabide ematea, segurtasunaren eta defentsaren sektoreari laguntzeko. Politika honekin, kanpokotasun positiboak sortuko dira berrikuntzan, Europaren autonomian, enplegu kualifikatuaren sorreran, eta horrek onura ekarriko dio Espainiako gizarteari.

Espainiak EBren misio zibiletan duen partaidetza sustatzeko Plan Nazionala argitaratu berri du, zeinak Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetza Ministerioa beste departamentu batzuekin koordinatzea aurreikusten baitu, aldi honetan Espainiak misio horietan dituen langileen kopurua nabarmen handitzeko, EBk munduan segurtasun-emaila gisa duen zeregina handitzen laguntzen baitute.

Espainiak Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundearekin duen konpromiso aktiboa mantendu behar du. Helsinkiko Azken Aktak berrogeita hamar urte egin ditu, eta haren funtsa eta printzipioak aldatu egin behar dira, bereziki Errusiak Ukraina eskala handian inbaditu izanak sortu duen egoera konplexu honetan, 2025eko lehen lauhilekoan Segurtasuneko Lankidetza Foroko gure lehendakariarekin egin dugun moduan. 2025-2028 aldian, duela gutxi izendatutako idazkari nagusi berriarekin, helburu nagusiak izan behar du Europar armak kontrolatzeko sistema zaintzea, haren gardentasuneko, informazio trukerako eta konfiantza sustatzeko neurriak berriz erabilgarriak izan baitaitezke Europako segurtasunaren arkitektura indartzeko.

Nazio Batuek ezinbesteko erantzukizuna du nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko. Espainiak parte-hartze nabarmena izaten jarraituko du bakea mantentzeko eragiketetan, ezinbesteko tresna izan baita azken 75 urteotan. Espainia pertsona gehien bidaltzen duen 25. herrialdea da 121etik (EBko 2. herrialdea), eta bakea mantentzeko eragiketen aurrekontura ekarpena egiten dutenen artean 12.a. Gero eta emakume gehiago bidaltzea ere funtsezko konpromiso bat da oraindik ere. Espainiak tinko helduko dio Libanorako Nazio Batuen Bitarteko Indarrarekiko (FINUL) konpromisoari. Hain zuzen, hasieratik ekarpen handia egin zuen, eta lider-lanetan aritu da, nabarmen. Espainiak babes politiko bateratua bilatuko du aginte garbi eta definituak berritzeko, eta testuinguru hauskorretan misio berriak sortzearen alde egingo du.

Espainiak aldebiko harremanak lantzen jarraituko du segurtasunaren eta defentsaren alorrean, gero eta herrialde eta nazioarteko erakunde gehiagorekin, eta hainbat alderditan sakontzen, esaterako, prestakuntzan, esperientzia-trukean,

ariketa bateratuak egitean, industriaren lankidetzan eta lankidetzaren teknikoan. Datozen urteetan lankidetzaren eremu espezifikoetan sakondu beharko da, besteak beste, digitalizazioaren erronketan eta aukeretan, kanpaina hibridoaren aurkako borrokan, migrazio irregularrean eta pertsonen salerosketan, baita terrorismoaren eta krimen antolatuen kontrako borrokan ere. Egoera horretan, Espainiak garrantzi handia ematen dio Defentsarako Lankidetzaren Estatu Batuetako Itunari. Halaber, funtsezkoa izango da segurtasuna eta solaskidetzaren sustatzeko tresnak bultzatzea, adibidez, Mendebaldeko Mediterraneoko Defentsaren 5+5 ekimena, berdinaren arteko konfiantzan oinarritutako lankidetzaren sustatzeko.

Datozen lau urteak gakoak izango dira mundua arma nuklearrak ugaritzeko garai berri batean sar ez dadin. Erantzun politiko bat eman beharra dago. Gure segurtasuna indartzeko, nazioarteko tresnak behar dira ezinbestean, besteak beste, armamentua kontrolatzeko, armamentua ez ugaritzeko eta armagabetzeko arkitektura. Organismo gakoentzako babes politiko, tekniko eta finantzarioa mantenduko du, adibidez, Energia Atomikoaren Nazioarteko Organismoarentzat (EANO), Arma Kimikoak Debekatzeko Erakundearentzat (AKDE), Entsegu Nuklearrak Erabat Debekatzeko Erakundearen (ENEDE) Prestaketa Batzordearentzat, zeinak funtsezkoak baitira armak ez ugaritzeko nazioarteko arkitekturarako, egiaztatzeko eta ikuskatzeko dituzten gaitasunei esker.

Espainiak mehatxu terroristaren eta krimen antolatuen aurkako lana egiten jarraituko du, haiek dakarten desegonkortze sozial eta politikoa prebenitzeko. Ahalegin hori egiteko, erradikalizazioaren eta estremismo bortitzaren kausei aurre egin behar zaie, eta biktimei laguntza eta aitortza eman. Lankidetzaren eta zama horrek gehien eragiten dien herrialdeekiko elkartzasuna izango dira Espainiako kanpo-ekintzaren printzipio gidariak hemendik aurrera ere. Zentzu horretan, gure herrialdeak Nazio Batuen, EBren eta NATOren esparruan dituen konpromisoak mantenduko ditu hainbat ekimenen bidez, esaterako, Aqaba Prozesuaren edo DAESHen kontrako Mundu Mailako Koalizioaren operazioetan parte hartuz, zeinekin Espainiak dagoeneko erakutsi duen mehatxu horiei aurre egiteko duen asmo irmoa.

Segurtasun-erronkei erantzuteko funtsezkoa da mehatxuen ezagutza eta alerta-adierazleen kudeaketa etengabe hobetzea. Inteligentzia Zentro Nazionala eta inteligentzia-organoen –nazionalak eta nazioartekoak– arteko koordinazioa funtsezkoa da me **Klima-aldaketa erronka transbertsala da,**

segurtasunerako eta defentsarako inplikazio sakonak dituen. Klima Aldaketaren Egokitzeko Plan Nazionalean eta Defentsa Ministerioaren Estrategian horri buruz jasotako neurriek jarraipena emango die Espainiak, eta indar armatuen arteko lankidetzaren sustatzeko du, baita larrialdiei aurre egiteko bitarteko zibilak ere, hala lurralde nazionalakoak nola nazioarteko eremukoak. Ildo horretan, Espainiak gure mugetatik kanpoko hondamendietan babes ematen jarraituko du, Larrialdietako Unitate Militarra (LUM) eta START taldea (Larrialdiei Erantzuteko Laguntzarako eta Erantzunerako Espainiako Talde Teknikoa) erabiliz, aukera ematen baitute hondamendi humanitario bat jasan duen munduko edozein txokotan 72 orduan baino gutxiagoan lanerako prest egon daitekeen osasungintzako talde bat edukitzeko. hatxuei aurre hartzeko, herritarrak babesteko eta egoera aldakorretarako erantzun eraginkorrak antolatuz.

Espainiak bere segurtasun- eta defentsa-gaitasunak modernizatzeko lan egingo du, AArekin lotutako mehatxu digital berriei aurre egiteko, esaterako, ahots-klonazioei, irudien manipulazioari eta gero eta nortasun faltsu aurreratuagoak ugaritzeari. Gainera, erresilientzia handitzen saiatuko gara gailu konektatuen kontrako erasoaren gorakadaren aurka, zeinak ibilgailu autonomoei eta azpiegitura kritikoei eragiten baitie, besteak beste, presa hidroelektrikoei, eta ziberdelinkuentziaren ugaritzeari ere bai. Azpiegitura digital publiko (ADP) erresiliente, seguru eta elkarreragingarriak garatzea da Espainiaren eraldaketa digitalaren oinarria. Horretarako, Itsas Azpiegituren Zaintza Plana onetsiko da, bereziki itsas azpiko egiturei erreparatzeko. Halaber, hondamendi naturalen edo eraso terroristen ondoriozko larrialdien kudeaketan AAK duen zeregina indartuko da, hari erantzuteko estrategiak errazago diseinatzeko.

Zehapenak ezartzeko gaitasunak indartzea lehentasuna izango da. Nazioarteko neurri hertsagarriak eta zehapenak nabarmen zabaltzen ari dira. Lehentasunetako bat izango da Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren Zehapen Unitatea garatzea, zuzendariordetza nagusi mailan. Informazio-trukerako eta ministerioen arteko trukerako mekanismo egokien bidez indartuko da, halako neurriak nazioartean hartzeko eta haien jarraipena egiteko prozesuetan eraginkortasunez parte hartzeko. Urrats hori gakoak da arauzko esparru espezifiko baterantz jotzeko. Espainiak zehapen-politika arrazoiz eta neurritz erabiltzearen alde egiten jarraituko du, legez kanpoko jokabideen pizgarri kentzeko, baina hautakorrak eta salbuespenezkoak direla bermatuta.

BULTZADA IRMOA ESPAINIAKO DEFENTSA-INDUSTRIARI

Defentsa-industria sektore gakoa da gure segurtasun ekonomikorako, eta, hortaz, gure industria-politikan sakonago txertatuta egon behar du. Espainiako defentsa-industria munduan gehien esportatzen duenetako bat da. Hala ere, Europan eta nazioartean sektoreak izandako aldaketa sakona eta gure enpresen atomizazioa gainditzeko beharra dela eta, datozen urteetan aldaketa ugari egin beharko lirateke. Mundu-mailan defentsako inbertsioa handitzea, industria-eragile berriak agertzea eta aurrerakuntza teknologikoak guda-zelaia eraldatzen ari dira, eta ezinbestekoa eta premiazkoa bihurtu da gure defentsa-industria egoera berri horretara egokitzea. Asmo horrekin, arreta berezia jarriko zaio Espainiaren industria- eta teknologia-oinarria indartzeari, teknologiaren eta espazioaren sektorearekin elkarreragingarritasuna eta sinergiak sustatuz. Horretarako, neurriak hartuko dira gure enpresen tamaina, lehiakortasuna eta eskala-ekonomietara heltzeko gaitasuna handitzeko, eta Europako proiektuetan eta nazioarteko lizitazioetan parte har dezaten. Gainera, epe ertain eta luzeko gastu-konpromisoak lortzeko saiakera egingo da, inbertsioa eta berrikuntza errazteko, sektorearen garapena, eraldaketa teknologikoa eta kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzeko xedearekin. Hori guztia, gainera, Defentsako Estrategia Industrialari jarraituz.

Segurtasunerako eta Defentsarako Plan Industrial eta Teknologikoa ezarriko da. Planak gure inbertsio-ahalegina bideratuko du, baita sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaprogramak ere, Espainian jauzi teknologiko eta industrialak egin ahal izateko. Berrikuntza-ren aldeko apustu bat da, enpresa berriak sortzeko eta tokiko ETEaren eta startuparen eskala handitzeko erabilera bikoitzeko teknologiak garatzearen aldekoa. Bultzada horrek aurrerakuntza teknologikoa ekarriko die beste sektore batzuei, gure lehiakortasuna handitzeko helburuari jarraituz, baita hornidura-kateen erresilientzia handitzea ere. Mahai operatibo bat ezarriko da Espainiako defentsa-industriaren kanpo-politikaren eremuaren inguruan, eta bertan parte hartuko dute Kanpoko Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak; Defentsa Ministerioak; Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak; eta Industria eta Turismo Ministerioak, aldizkako bilerak eginez defentsa-industrian egiazko diplomazia espainiarra antolatzeke eta gauzatzeko.

Espainiak eragile gakoa izan nahi du espazioaren Europako sektorean, eta horretarako Espazioaren Europako Agentzian eta EBren espazio-programan duen partaidetza handituko du, baita Europako misioetako partaidetza ere. Espaziorako proiektu bateratuak garatzea bultzatuko da, baita atzerriko merkatuetan Espainiako enpresak sartzea ere, Espainiako espazioko sektorearen oinarri teknologiko eta industrialak indartzeko.

Koherentziatik bakea eraikitzea

Espainiak nazioarteko zuzenbidea era unibertsal eta koherentean aplika dadila defendatzen jarraituko du, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa barne. Halaxe egin du Ukrainaren, Ekialde Ertainaren eta Kongoko Errepublikaren Demokratikoaren kasuetan. Indarra erabiltzeko debekuaren printzipioa eta estatuen subiranotasuna eta lurralde-osotasuna errespetatzea dira nazioarteko ordenaren giltzarria, eta huraxe izan da azken hamarkadetan Nazio Batuetako estatu kideen kopurua handitu ahala estatuen arteko gerra-kopurua nabarmen txikitzeko aukera eman digun faktorea.

Nazioarteko zuzenbidearen legimititatea hura era unibertsalean aplikatzean datza. Legezketasuna defendatzeko funsgabetasunak edo jarrera bikoitzek gure kideen konfiantza ahultzen dute, auzitan jartzen dute indarrean dagoen legezketasuna mantentzeko guk eta gure kideek daukagun gaitasuna, baita urraketak prebenitzeko eta etorkizunean akordioak lortzekoa ere, eta horrek higatu egiten du nazioartean dugun eraginkortasuna.

Krimenik larrienak egin dutenen zigorgabetasunaren kontrako borroka da tresnarik egokiena etorkizunean krimenak gerta ez daitezen. Esperientziaren eta memoriaren balioa abiapuntu gisa hartuta, Espainiak zigorgabetasunaren kontra eta biktimen erreparazioaren alde borrokatzen jarraituko du, inguruabar eta gatazka guztietan. Nazioarteko justiziaren aldeko konpromiso hori nazioarteko auzitegiekiko babesaren bitartez hezurramitzen da, eta, zehazki, Espainiak Nazioarteko Justizia Auzitegiaren kasu gakoetan parte hartu izanak islatzen du, baita bake justu eta egonkorren oinarri gisa nazioarteko zuzenbidea era unibertsalean aplikatzen dela bermatzeko Nazioarteko Zigor Auzitegiak duen zeregin nagusia babesteak ere. Terrorismoaren kontrako Borrokarako Nazio Batuen Bulegoarekin lanean jarraituko dugu, baita Europako Kontseiluan ere, nazioarteko justizia indartzeko eta balio demokratikoak defendatzeko ekimenen buru izaten jarraituko baitugu. Ukrainaren aurkako Eraso Krimenerako Auzitegi Bereziko eztabaidetan ere modu aktiboan egingo dugu ekarpena, baita Erreklamazio Batzordea eratzeke ere, eta Kalteen Erregistroaren lanean laguntzen jarraituko dugu.

Espainiako kanpo-politikaren helburua da bakea eraikitzea, segurtasuna bermatzeko. Zeregin

horretarako pribilegiozko egoera ematen digute gure posizio geografikoak, kide europar eta atlantikoa izateak, nazioartean dugun pertzepzioak eta askotariko egoeretan dugun elkarrizketa-gaitasunak.

Helburu horrekin, Espainiak prebentziorako diplomazia-egitura sendoagoa finkatu nahi du eta bakea sustatu nahi du tentsio-egoeretan eta konplexutasun handiko krisietan, Diplomazia Humanitarioaren Espainiako Estrategiari jarraituz. Gero eta gatazka gehiago dagoenez, bitartekaritzako eta bigarren bideko diplomaziako nazioarteko eta estatuko ahaleginak bidertu behar ditugu gatazkazko eta gatazka osteko egoeretan, baita egoera hauskorretan ere. Ildo horretan ekingo zaie berriz Bakerako Toledoko Nazioarteko Zentroko (CITpax) lanei, eta elkarlana bilatuko da bitartekaritza-ahaleginetan parte hartzen duten kideekin.

Bakea eraikitzeko epe labur, ertain eta luzeko alderdi ugari dago, eta Espainiak haietan lanean jarraituko du. Gatazkak prebenitzeko eta ebazteko mekanismoak indartuko dira, eta trantsizio politikoak, trantsizio-justizia, soldadu ohiak armagabetzeko eta desmobilizatzeko eta berrintegratzeko prozesuak eta segurtasunaren sektoreko erreformak bultzatuko. Garapenerako lankidetzak erabiliko da estatu hauskorak indartzeko, gatazken osteko egoerak egonkortzeko eta haien berrintegratze ekonomikoa errazteko tresna moduan.

Espainiak giza segurtasunaren ikusmoldea aplikatzen jarraituko du, bere kanpo-ekintzaren erdigunean pertsonak jarriko dituen eta garrantzi gorena emango diona inguruabar eta gatazka guztietan nazioarteko zuzenbide humanitarioa defendatzeari. Helburu horrekin, Espainiako Indar Armatuak zibilak babesteko dituzte kanpoko operazioetan, eta arreta berezia jarriko diete kolektibo zaurgarriari, emakumeei eta haurrei, esaterako. Tokian tokiko berezitasun soziokulturalak errespetatzen eta haurren eskubideak babesten dituen kanpoko presentzia-eredu bat sustatuko da. Halaber, Elikagaien Munduko Programa eta Eskola Seguruak ekimena babesten jarraituko da, eta emakumea bakearen eragile zentral bihurtzea sustatuko da, Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna Agendaren bidez.

Nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzea FUNTSEZKO DA ESPAINIARENTZAT, BEREZIKI arma-mota jakin batzuk debekatzeari dagokionez,

eta horregatik mantenduko dugu konbentzioen aldeko konpromisoa eta babesia.

Horrez gain, Espainia protagonista izango da teknologia berrien aplikazio militarrek nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arauak beti betetzen dituztela bermatzeko lanetan. Izan ere, Espainiak Nazio Batuen Batzar Orokorrak arma autonomo hilgarriak (LAWS) arautzeko lanak babesten jarraituko du, eta, Herbehereekin eta Koreako Errepublikarekin batera, Eremu Militarrean Adimen Artifizialaren Erabilera Arduratsuari buruzko Goi Bileren prozesua sustatzen ere bai.


Tresna nazionalak beharko ditugu, adibidez, esportazioak kontrolatzeko sistema berri eta indartu bat, beste herrialde batzuekin elkarlanean jarraitu beharko dugu esportazioak kontrolatzeko dauden araubideetan (Waassenaarreko Akordioa, Hornitzaile Nuklearren Taldea, Australiako Taldea eta Misilen Teknologia Kontrolatzeko Araubidea, gehienbat), eta gorabidean dauden teknologien transferentziak kontrolatzeko nazioartean zabaldutako prozesuetan parte hartu beharko dugu, esportazioen eta ikerketaren segurtasunaren kontrol estrateragikoaren bidez, besteak beste.

Gure erresilientzia demokratikoa indartzea

Polarizazio sozial gero eta handiagoa eta munduko demokrazien narriadurak kausa sakonak dituzte, eta arazoa larriagotzen duten hainbat faktore ere bai.

Inoiz baino interkonexio handiagoa dugun honetan, inoiz baino banatuago gaude, paradoxa bada ere. Digitalizazioak herritarren partaidetza handitzen lagundu du bitzta sozial eta politikoaren

Munduko indize demokratikoak



2008=100

Autoreek egina, jatorrizko iturrietatik abiatuta. V Dem datua populazioaren arabera haztatuta dago.

eremu guztietan, baita informazioa eskuratzea demokratizatzen ere, baina gizartea manipulatzeko eta polarizatzeko arriskuak biderkatu ditu.

Algoritmoen alborakuntza, pribatutasunaren higadura, desinformazio-estrategia hibridoen gorakada, informazioaren atzerriko manipulazioa eta interferentzia (FIMI) eta zibererasoak ez dira erronka tekniko hutsak, baizik eta kohesio sozialaren eta instituzio eta prozesu demokratikoen beraien aurkako mehatxuak. Adimen artifizial sortzailearen agertu izana ere gehitu behar zaio, sekulako potentzial positiboa duen arren, errealtatea desitxuratzeko eta polarizazioa sustatzeko gaitasun handia baitauka, harekin eduki faltsuak sor daitezkeelako. Horrek guztiak arriskuan jartzen du gure bizikidetzatza, eta zaurgarriago egiten gaitu erradikalizazioaren, gorroto-diskurtsoaren eta kanpoko injerentzien eskuetan.

Horiek horrela, gizarte irekiak zaurgarri daude, araubide ireki eta itxien arteko asimetria estrategikoa tarteko. Azken horiek oso kontrol estupean

dituzte beren lurraldeetako espazio digitalak, eta, hortaz, aukera berriak dituzte oso eragiketa zentralizatu, eraginkor eta merkeen bidez eragina sortzeko. Eragile batzuek dibertsitatea, irekitasuna eta pluralismoa erabiltzen dute, Akilesen orpo geopolitiko bat balitz bezala. Herritarrek instituzioetan duten konfiantza higatu nahi dute, eta estremismoa elikatu nahi dute haien eredu autoritarioak legitimatzeko eta nazioarteko ordena haien mesedetan birkonfiguratzeko, hedabideen manipulazioa, Europaren dekadentziari buruzko kontakizunen sustapena eta klimari edo migrazioari buruzko desinformazioa biltzen dituzten estrategia hibrido bidez

Ezin dugu sorgor gelditu gure gizarte irekiak hackeatzen saiatzen diren bitartean: gure balioak arriskuan jarri gabe geure burua defendatzen ikasi behar dugu. Geopolitizazio teknologikoa gero eta handiagoa izanik, eta desarauketak eta arauen zatiketak dakartzaten arriskuak ikusita, Espainiak argudiatzen du plataforma teknologikoak gardenagoak eta neutralagoak izan beharko luketela, eta kontu eman beharko luketela.

Desinformazioa: mundu-mailako kezka

Kezkatuta, online albisteetan erreala zer den eta zer den faltsua. Adostasun %

Nigeria	81 %
Hegoafrika	81 %
Australia	75 %
AEB	72 %
Erresuma Batua	70 %
Espainia	70 %
Kanada	67 %
Brasil	66 %
Indonesia	64 %
Mexiko	62 %
Turkia	60 %
India	58 %
Japonia	58 %
Frantzia	57 %
Alemania	42 %

Iturria: Digital News Report 2024. Reuters Institute for the Study of Journalism, Oxfordeko Unibertsitatea.

Ak albiste eta irudi faltsu errealistak sortzea errazten du. Adostasun %

Espainia	78 %
Kanada	78 %
Thailandia	78 %
Hegoafrika	77 %
Mexiko	75 %
Turkia	75 %
Brasil	74 %
Hego Korea	74 %
Erresuma Batua	74 %
Frantzia	71 %
Italia	71 %
AEB	70 %
Japonia	69 %
India	66 %
Alemania	63 %

Iturria: Global views on AI and disinformation, 2023. IPSOS.

Desinformazioa, demokraziarentzako arriskua. Adostasun %

Suedia	94 %
Frantzia	87 %
Herbehereak	87 %
Grezia	86 %
Espainia	85 %
Italia	83 %
Hungaria	82 %
EB	78 %
Austria	78 %
Belgika	78 %
Polonia Errumania	78 %
Alemania	76 %
Txekiar Errepublika	76 %
Portugal	74 %

Iturria: Standard Eurobarometroa 102, 2024. Europako Batzordea.

Anonimotasunak ezin du delituak egiteko zigorgabetasunaren sinonimo izan, ezta tresna bat ere besteen nortasuna ordeztzeko eta legez kanpoko eta iruzurrezko jardunbideetarako. Algoritmoen gardentasuna handitu beharra dago. Plataformek eta haien zuzendariak beren zerbitzuek eta jokabideek dituzten eragin negatiboen ardura hartu behar dute. Plataforma digitalen eragile publikoekin elkarlanean aritu behar dute atzerriko influentzia-eragiketarako eta desinformazioa geldiarazteko, eta gorroto-diskurtsoekin eta jazarpenarekin zaurgarriak diren taldeen babesa lehenesteko. Arrisku horiei aldebiko eta alderdi anitzeko mailan helduko diegu.

Lehentasun saihetsezina da nazioarteko lankidetzaren indartzea desinformazioa prebenitzeko eta borrokatzeko. Europa- eta Espainia-mailan garatutako tresnez gain, Espainiak lanean jarraituko du informazio-truke arina, sareen aktibazioen bidez gorabeheren alertak goiz emateko lankidetzaren operatiboa eta erreakzio-tresnen garapena eta aplikazioa hobetzeko, ziberespazioaren eremuko erreakzio nazional bizkorretarako taldeak eta ekintza hibridoetako adituek barne. Espainiera hitz egiten dugun herrialdeek erantzukizun partekatua dugu mehatxu hori prebenitzeko eta borrokatzeko, eta, horrenbestez, Espainiak aldebiko eta alderdi anitzeko lankidetzarako mekanismoak sustatzen jarraituko du. Hain zuzen, Espainiak Sevillako Algoritmoen Gardentasunerako Europako Zentroak duen rola sustatuko du. Halaber, Espainiak nazioarteko lankidetzaren bidez sustatzen du “Demokrazia defendatu. Estremismoa borrokatu” ekimena, Txileko, Brasilgo, Kolonbiako eta Uruguako presidentekin batera, harekin bat egin baitute.

Barne-kohesioa indartzea

Gizarte- eta lurralde-koehesioak legitimitatea eta egonkortasuna ematen die herrialde eta instituzioei eta gizarte oparo eta inklusio ororen oinarria da. Nazioarteko egoera gero eta zatikatua eta gatazkatsua denez, eta lehiakortasun- eta segurtasun-kontuetan erreparatzen duenez gehien, hil ala bizikoa da gizarte- eta lurralde-koehesioaren garrantzia begien bistatik ez galtzea.

Alderdi horri ez ikusiarena egiten dion kanpo-politikak jarduteko gaitasuna higatzeko arriskua du. Espainia sinetsita dago kanpo-politika etxean hasten dela, eta, horregatik, gure gizartearen eraldaketa handien galtzaileak konpentsatzeko apustu sozial berri baten alde egiten du, gainbehera demografikoak eragiten dien lurraldeentzako laguntza indartuko duten birbanaketarako politika aktiboen eta hazkunde-eredu inklusiboago baten bitartez.

Europarrek elkar ezagutzea ere ezinbesteko faktorea da Europako proiektu politikoaren barne-koehesiorako, eta, hortaz, hezkuntzak lagundu egiten du Europako balio komunak sendotzen, hau da, EB hezkuntza-curriculumean txertatzeak. Hezkuntzarako Europako Espazioaren eta hezkuntza-sektoreko gaitasunen garapenari ere eragiten die. Horretarako, Erasmus+ programa bultzatuko da.

Erronka demografikoa da gure garaiko erronkarik premiazkoenetako bat. Garapena hiri-poloe-tan eta polo finantzarietan zentralizatu izanak eta Espainian, Europan eta munduko beste eskualde batzuetan jaiotze-tasa ordezte-mailaren oso azpitik egoteak populazioa zahartzea eragiten dute, baita landa-eremuak despobulatzea ere, eta horrek “nahigabearen geografiak” sortzen ditu. Administrazioek ezin dute joera horien ikusle hutsak izan, eta, beraz, Espainiako Gobernuak azken urteotan indar berezia jarri du erronka demografikoa arintzeko politika publikoetan. Lurraldeen arteko koehesioa indartzeko, ezinbestekoa da hazkunde-iturri eta aukera berriak sortzea, inbertsio publikoa deszentralizatuz, tokiko ekonomiak indartuz balio erantsi handiko proiektuen bidez, eta eskualdeen arteko konektagarritasun efizientea bermatuz. Kide anitzeko nazioarteko foroetan parte hartzean, barne-mailako agenda sozialarekin lerrokatu behar dugu, globalizazio-eredu bidezkoago eta jasangarriago bat sustatzeko. Gainera, ekonomia deskarbonizatu baterantzko trantsizioak palanka gakoetako bat eskaintzen digu egitura ekonomikoa dibertsifikatzeko, enplegua sortzea sustatzeko eta tokiko ekonomiak dinamizatzeko.

II. ATALA: ESPAINIA MUNDUAN



Potentzia euroatlantikoa eta mediterranea de-
nez, Espainiak kokapen geografiko paregabea du,
Europaren eta Afrikaren lotunean baitago. Koka-
pen hori dela eta, era aktiboan inplikatu behar
dugu gure ingurune estrategikoan, espazio hor-
retan dauden herrialdeekin batzen gaituen lotura
estua dela eta, eta han gerta daitezkeen aldaketa
politiko eta ekonomikoekin eta krisi posibleekin
dugun sentikortasun berezia tarteko.

Azken hamarkadotan, Espainiak aldebiko harreman-
en sare bat eraiki du bere balioetan eta herrialdeko
aktiboetan oinarrituta, alboz albo bizitzetik harago
doazenak, zentzu zabalean, eta agerian utzi duena
munduko eskualde guztiekin elkarriketa sortzeko
duen gaitasun itzela.

ESPAINIAREN INGURUNE ESTRATEGIKOA

**Espainiaren kokapen geografikoa bitxia da Euro-
pan, hego mendebaldeko muturrean baitago, espa-
zio atlantiko, mediterraneo europar eta afrikarren
lotunean.** Iberiar Penintsulatik 4.000 kilometrorra
baino gutxiagora gatazka kistatuak ditugu; tent-
sio sorrak; gero eta ezegonkortasun handiagoa
Sahelen, - munduko kontzentrazio handiena baita-
go han; eta Nigeria eta Aljeria, gure energia-hornit-
zaile nagusietako bi. Egoera geografiko horrek are
garrantziago handia dauka egungo munduan, lehia
estrategikoa gogortu egin baita. Ceuta eta Melilla,
Kanariar Uharteak eta Andaluzia arrisku horren
eraginpean daude, Espainian duten lekua dela eta.

**Gure ingurune estrategikoko gertakariak eragin
zuzena daukate Espainiaren egonkortasunean
eta segurtasunean, baita Espainiako herritarren
ongizatean ere.** Esaterako, Libiako krisiak Sahel
ezegonkortu zuen, gure kostetan migrazio-presioa
eragiten ari den eskualdea, eta, gainera, herritarrak
desplazatzeak eragin humanitarioak sortu zituen,
eta mehatxuak sortu zituzten terrorismoak eta le-
gez kanpoko salerosketa-sareak, inguru hartan egun
dagoen ezegonkortasunaz baliatzen baitira. Siriako
krisiaren ondorioz Europara errefuxiatu ugari iritsi
zen, eta, horrek nahasmen politiko handia sortu
zuen, indar euroeszeptikoen eta ultranazionalisten
gorakadarako erabakigarria. Beste ertzean, Errusiak
Ukrainari eraso egin izanak berrehun mila ukrainar
baino gehiago behartu zituen gure herrialdean ba-
besa hartzera, eta inflazioa elikatu zuen energia-krisi
bat sortu zuen, gure herritarrengan inpaktu zuzena
izan zuena, baita gure inguruan nabarmen eragin
zuen elikagaien krisi bat ere.

**Horregatik, Espainiak oso aldebiko politika akti-
boa mantenduko du ingurune estrategikoan, bere**

**tresna politiko, ekonomiko eta garapenekoei bali-
oa emanez, egonkortasuna, hazkundera eta aur-
rerakuntza sustatzeko asmoz, eta, hura osatzeko,
modu eraikitzailean parte hartuko du Europako poli-
tikak definitzen, segurtasunaren eta gobernatzaren
eremuan babesa ematen eta eskatzen duten estatu-
en gaitasunei laguntzen.** Lehentasun horrek bidaia
eta bisita gehiago eskatuko ditu, elkarriketa politiko
indartua eta bereziki inplikazio sakona ingurune es-
trategikoan sortutako krisietan, hala alderdi politiko-
tik nola erantzun humanitarioari, berreraikitze-
koari eta garapenari dagokienez. Espainiak garapenerako
lankidetzaren alde apustu egiten jarraituko du, tresna
estrategiko gisa erabiliko du, ekintza humanitaria
baliabide gehiago bideratzeko, gatazken ondorioei
aurre egin ahal izateko. Halaxe frogatu du, adibidez,
Ukrainari emandako laguntza integralarekin, bi esta-
tuen irtenbidea eta Palestinako estatuaren aitortza
babestean, Mauritaniarekin goi-mailako bilerak abia-
raztean, Egiptorekiko Elkartze Estrategikoaren bidez,
Afrika Mendebaldeko Estatuaren Erkidego Ekonomikoa
babestean eta Libanora eta Turkiara tropak bidaltze-
an, besteak beste.

**Gure kanpo-politikak inguratzen gaituzten her-
rialdeen dibertsitatea eta konplexutasuna islatu
behar du, haien indarguneak eta aukerak bar-
ne.** Horregatik, estrategia honen gainerako zatian
deskribatzen diren ekintza espezifikoak gorabehera,
Espainiak gure ingurune estrategikoan zabalpen di-
plomatiko unibertsala lortu nahi du.

**Zabalpen unibertsal horrek gure sare diplomatikoa
nazioarteko errealitate berrira egokituko du, non
Espainiak zeregin erabakigarriagoa izan beharko
duen bere ingurune hurbilean, gure informazioa
eta lurraldean bertan ditugun baliabideak handituz,
erronka bateratuak hobeto kudeatzen eta gure in-
guruko eraldaketa ekonomiko eta sozialek ematen
dituzten aukerez hobeto baliatzen laguntzeko.**

**Premiazkoa da Espainiako adituen jakintza sustat-
zea, unibertsitatean eta sektore pribatuan, bereziki,
batez ere gure ingurune estrategikoko eremu poli-
tiko, ekonomiko eta sozialean.** Lan horretan aurrera
egiten jarraituko dugu, adibidez, ikerketa-proiektu-
etarako Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko
eta Lankidetzako Ministerioak egindako deialdien
bidez eta Afrikarako Aholku Kontseiluaren moduko
pentsamendu-zentro eta instituzio berritzaileekiko
babesaren eta solaskidetzaren bitartez.

EUROPA GEHIAGO, EB-TIK HARAGO

**EBren inguru hurbilean, arreta berezia merezi dute
Europarentzako garrantzi estrategiko handia duten
hainbat herrialderekin ditugun harremanek.**

Espainiak Ukrainaren subiranotasunarekin eta lurraldearen osotasunarekin duen konpromisoa mantenduko du. Konpromiso horrek adostasun sozial eta politiko handiaren babesa du eta 2022tik heldu zaio inoiz ikusi gabeko eskalan, laguntza diplomatiko, militar, mihumanitario, ekonomiko, finantzario, kultural eta juridikoaren bidez. Hain zuzen, horren erakusgarri dira Espainiako lankidetzako inoizko paketerik handiena, Ukrainarako 200.000 iheslari baino gehiago jaso izana, material militarra eman izana eta EUMAM-UA misioan 7.000 militar ukrainar prestatu izana. 2025ean, Espainiak laguntza militarreko beste pakete bat emango du, mila milioi eurokoa, Segurtasunaren eta Defentsaren Aldebiko Akordioari jarraituz, 2024an emandako mila milioiez gain. Espainiak berreraikitze laguntza finantzarioetarako 400 milioi emateko konpromisoa hartu du.

Europar Batasunera sartzeko prozesua irmo babestean hezurmamitu da Ukrainarentzako gure babes osoa, hain zuzen Espainia EBren Kontseiluko presidentea zela hasi baitzen, eta funtsezkoa baita Ukraina estatu libre, subiranoa eta Europako familian tinko ainguratua dela bermatzeko. Ukrainak Espainia bidelagun izango du Batasunera sartzeko prozesurako egin beharreko erreforma-prozesuan.

Erresuma Batuen lotura humano, ekonomiko eta historikoek eta haren gaitasun estrategikoek Europako aliatu eta kide natural bihurtzen dute, eta lotura humano eta ekonomiko bereziak ditu Espainiarekin. Hain zuzen, Erresuma Batua da mundu-mailako hirugarren inbertsiogilea Espainian, Espainiako inbertsioaren atzerriko bigarren hartzailea eta gure herrialdea bisitatzen duten turisten lehen igoerlea. Gibraltarri buruzko akordio global, pragmatiko eta orekatua lortzeak harreman estu horren potentzial guztiari probetxua ateratzeko aukera emango du.

Mendebaldeko Balkanen egonkortasuna eta garapena Europa batu eta oparoaz dugun irudiaren parte dira. Eskualdeko herrialdeen erreforma-prozesuetan lagunduko dugu, Europar Batasunerako bidean lagun eginez, eta aldi berean aldebiko harreman sendagoak sustatuz eremu politiko, ekonomiko eta sozialean. Helburua da Balkanetako herrialdeentzat Espainiak kide fidagarria eta erreferentziatzeko herrialdea izaten jarraitzea.

Turkia EBra sartzeko hautagaietako bat da, eta harreman estua dugu harekin, NATOko kidea baita eta eragile gakoa baita Mediterraneoan, Afrikan eta Ekialde Ertainean. Harreman hori goi-mailako aldizkako bileretan hezurmamitzen da, eta beste zenbait ekimenetan, esaterako Nazio Batuen Zibilizazioen Aliantzaren babeslekidetzan.

Europako Merkataritza Libreko Erkidegoko (EMLE) kideekin elkarlanean aritzea bultzatuko dugu, bereziki ekonomiaren, zientziaren eta gizarte zibilen arteko lankidetzaren eremuetan. Erkidego horretan, **Norvegiarekin** balioak partekatzen ditugu, konpromiso handia baitute Garapenerako Laguntza Ofizialarekin, eta harekin besoz beso elkarlanean aritu baikara Ekialde Ertainari dagozkion gaitan. Espainiak **Islandiarekin** duen lankidetzaren indartzen jarraituko du. Laster enbaxada irekitzekoa da gure herrialdean, eta mugarri handi bat da hori gure harremanetan.

Espainiak Moldaviari babesa eskainiko dio, herrialde demokratikoa denez, EBn sar dadin eta Errusiaren hertsadurari aurre egin diezaion, eta herrialdearen lurralde-osotasunarekiko konpromiso irmoa berretsiko du. Aldi berean, Georgiari behar dituen erreformak eskatzen jarraituko dugu, zorrotz, estatu hautagai gisa dituen obligazioak bete ditzan.

Errusiarekiko harremana oraindik ere Ukrainaren aurkako erasoak gogor baldintzatuko du, baita bizilagunen aurka egindako ekintzek eta Europaren segurtasunean izan duten eraginak ere, zainagatik EBk zehapenak ezarri baitizkio eta bertako autoritateekiko solaskidetzak oro hautsi baitu. **Bielorrusiari** dagokionez, Espainiak oposizioaren eskubide zibil eta politikoak errespetatu daitezkeen eskatzen jarraituko du, eta EBren murrizketa-neurrien alde egingo du Bielorrusiako gobernuak Errusiak egindako nazioarteko zuzenbidearen urraketak babesteari utz diezaion.

LATINOAMERIKA ETA KARIBEA: AGENDA PARTEKATU BATERAKO ALIATUAK

Latinoamerika beti ageri da Espainiaren nortasunean eta kanpo-ekintzan. Azken urteotan, Espainiak Europako agendaren erdigunean jarri du Latinoamerika, esaterako, EN CELAC goi-bilera egin baitzen zortzi urtean lehenbizikoz, Espainia Europar Batasunaren Kontseiluko presidentea izan zenean 2023an, eta etenik gabe bultzatu baitu MERCOSURekiko akordioa bukatzea, aldebiko agenda bizia izan duen bitartean.

Espainian hiru milioi latinoamerikar bizi dira. Halaber, milioi eta erdi espainiar baino gehiago bizi dira Latinoamerikan. Europaren ikuspegitik, 6 milioi europar inguru bizi dira Latinoamerikan, eta 7 milioi inguru latinoamerikar eta karibetar bizi dira Europan. Migratzaileen komunitate horiek aberastasun kultural eta oparotasun partekatuari egin diezaioketen ekarpena indartu beharreko

balioa da. Gobernuko presidenteak Brasila, Txilera, Kolonbiara eta Dominikar Errepublikara egindako bidaiak eta Brasilgo, Txileko, Kolonbiako, Ekuadorreko, Guatemalako eta Paraguaiako presidentek Espainiara egindako bisitek agerian uzten dute harreman estu horiei ematen diegun garrantzia.

Gure helburua da espazio iberoamerikarra are gehiago indartzea 2026an Nazioen Erkidego Iberoamerikarraren XXX. goi-bilerak Espainian egitea aukera paregabea da haien ekintza indartzeko. Horretarako, kontsultak egingo ditugu eskualdeko herrialdeekin, organismo iberoamerikarrekin eta gizarte zibilarekin, haien egiturak sendotzeko eta alderdi anitzeko eztabaida eta foroetan ahots koherente bat sustatzeko asmoz.

Nazioarteko egungo egoeran, Latinoamerikak, Espainiak eta Europak interes eta balio partekatutako batzuk ditugu, oinarri sendo bat osatzen dutenak eremu politiko eta ekonomikoan lankidetzak estutzea lortzeko. Beraz, Espainiak Latinoamerikarekin eta Karibearekin batera demokrazia, giza eskubideak eta genero-berdintasuna sustatzen jarraituko du, eta lankidetzan ere bai, herri indigenen eta afrikarren ondorengoen eskubideen defentsaren alde. Espainia balio horiekin koherentea izan da neurri zehatzak ezartzean, esaterako, 150.000 venezuelar baino gehiago hartu baitzituen eta espainiar nazionalitatea eskaini baitzuten nazionalitatea kendu zieten nikaraguarrei.

Espainiak EBren eta Latinoamerikaren arteko harremanak indar daitezela sustatzen jarraituko du, EB-CELAC goi-bilerak eta haien jarraipen-mekanismoak bultzatuz, esaterako, Nazio Batuen Batzar Orokorrarekin batera iaz egin zen ministerio-bilerak.

Bi eskualdeen lankidetzaren oinarria lotura kulturek, zientifikoek, hezkuntzakoek eta enpresa alorrekoek osatzen dute. Horrez gain, Global Europar Batasunaren Gateway inbertsio-agentziari bultzada emango dio Latinoamerikan eta Karibearen, zeinak 45.000 milioi euroko zuzkidura duen 2027ra arte (9.400 milioi euro Espainiak aginduek), baita EB-CELAC Aliantza Digitala ere, balio demokratikoekin eta oinarritzko eskubideen errespetuarekin bat datorren teknologia arautzeko esparrua lortzeko. EB-MERCOSUR akordioa eta EB-Mexiko Akordio Globala indarrean sar daitezela jardunean jarraituko du Espainiak. Jardunean arituko gara Txilen sinatutako akordioak zuzen aplikatzen eta Erdialdeko Amerikarekin, Andeetako Komunitatearekin eta CARIFORUMeko herrialdeekin dagoeneko indarrean dauden merkataritza libreko akordioei ahalik eta probetxu handiena ateratzeko, bien mesederako.

Aldebiko eta eskualdeen azpiko mailako lankidetzak indartzea

Espainiarentzat, Latinoamerikako herrialde guztiek garrantzi bera dute. Solaskidetzak politikoa eta harreman ekonomiko, kultural eta lankidetzakoak guztiekin indartuko dira, elkartzea estrategikoa den herrialdeetatik hasita, hau da, Argentina, Brasil, Kolonbia, Mexiko eta Perutik.

Datozen urteetan lanean jardungo gara aldebiko harremanei ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko. 2025eko otsailean Aldebiko lehen Batzorde Iraunkorra egin zen Brasilekin, eta horrek gure harremanen maila igo du, bi urtean behineko goi-bilerak egingo baitira. Mexikorekin ere solaskidetzak indartuko da, maila guztietan, eta, esaterako, Bi Nazioen Batzordearen saioa egingo da 2025ean. 2025ean, gainera, Goi Mailako Batzordearen saioa egingo da Kolonbiarekin, eta Aliantza Estrategiko Berritua erabat garatzea sustatuko da, Txilerekin. Halaber, Hego Amerikako beste herrialde gako batzuekin loturak estutzea sustatuko da, esaterako, Boliviarekin, Ekuadorrekin, Paraguaiarekin eta Uruguarekin.

Erdialdeko Amerika bereziki interesgarria da Espainiarentzat, dibertsitate handiko eskualdea baita, erronka komunei aurre egiten diena –segurtasunik eza, migrazio-fluxuak, instituzionaltasuna–. Han, instituzio demokratikoak babestuko dira, eta zuzenbideko estatua indartzea eta giza eskubideen errespetua sustatuko dira, baita eskualdeko herrialdeen hazkunde eta garapen ekonomiko jasagarria ere, bereziki Costa Ricarena, El Salvadorrena, Guatemalarena, Hondurasena eta Panamarena.

Karibearen, Espainiak Dominikar Errepublikarekin dituen **harremanak indartzen jarraituko du**, eta herrialde horrek eskualdean duen rola indartzen. Espainiak lagundu egingo du, Haitiko dimentsio anitzeko krisiak eskualdea ezegonkortu ez dezan. Karibe Anglofonoak aukera ugari eskaintzen ditu harremanak sakontzeko, bereziki Jamaikak, Trinidad eta Tobagok eta Guyanak.

Espainiak adi-adi begiratuko dio Kubako egoerari, hango herriarekiko konpromisoari eutsiz, giza eskubideen eremua barne, eta eragile eraikitzaile eta esanguratsua izateko solaskidetzak-espazioak sortuz. **Venezuelari** dagokionez, Europan eztabaidaren gidari izaten jarraituko dugu, hango krisi politikorako irtenbide baten alde, venezuelarren arteko elkarrikerak sustatuz.

Nikaraguan konpromiso humanitarioa mantenduko da, baita oposizio demokratikoaren eta instituzionaltasunaren aldeko babesa ere.

Lanean jarraituko dugu ondare kultural iberoamerikarra kontserbatzeko eta sustatzeko, eskualdeko herrialdeekin batera, bereziki Mexikorekin, 2026ko FITUR azokako kidearekin, alegia, baita Kolonbiarekin eta Boliviarekin ere; hain zuzen, azken horretan herrialdearen independentziaren bigarren mendeurrenaren oroitzak-ekitaldietan izango gara. Biodibertsitatearen defentsarako eta ingurumenaren babeserako lankidetzan jarraituko dugu, gainera, (adibidez, COP 30eko egoitza izango den Brasilekin, Kolonbiarekin eta Txilerekin), baita segurtasunik ezaren eta krimen antolatuen aurkako borrokarako ere, delinkuentziaren eta krimen antolatuen aurkako borrokaren alorrean indarrean dauden akordio integral modernoek baliatuz eta horiek beste herrialde batzuetara hedatuz. Espainiak Kolonbiako Bake Prozesuarekiko duen konpromisoa eta babes politikoa mantenduko du.

Gainera, apustu egiten jarraituko du eskualdeko integrazio-prozesuak indartzeko (SICA Erdialdeko Amerikako Integrazio Sistema, CARICOM-Karibeko Komunitatea eta MERCOSUR). Estatu Amerikarren Erakundeko Estatu Behatzaileen artean kiderik zaharrena denez, Espainiak erakundean duen presentzia indartuko du, eta giza eskubideak defendatzeko haren instituzioetako (Giza Eskubideen Auzitegi eta Batzorde Interamerikarrak) eta hauteskundeen behaketarako lanak indartuko ditu.

Latinoamerikan dugun elkartasun-ekintza mantenduko dugu. Lan egingo dugu Espainiako lankidetzak duen rola handitzeko, eskualdean hiru hamarkadaz baino gehiagoz lanean aritu ondoren ura eta saneamendua eskuragarri jarri baitie Haitiko herritarren % 10i baino gehiagori eta Boliviako herritarren % 5i baino gehiagori. Horretarako, akordio espezifikoak sinatuko dira herrialde bakoitzarekin, esaterako, Paraguairekin (Herrien Elkartze Esparrua) eta Uruguaiarekin (Lankidetz Aurreratuko Akordioa, hiru aldeko lankidetzarako ekintza bateratuak ahalbidetzen dituen).

Nazioartean espainiera sustatzeko herrialde iberoamerikarren artean koherentzia eta koordinazio handiagoa egotea sustatuko du Espainiak, talentua sortzeko eta espainieraren erabilera sustatzeko alderdi anitzeko diplomazian, nazioarteko justizian, zientzian eta teknologian. Azken urteotan, espainiera Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko Hagako Konferentziaren hizkuntza ofizial bihurtu da, eta ahalegin horri eutsiko diogu espainiera eremu diplomatikoan eta eskualdeko herrialdeak dauden nazioarteko erakundeetan espainieraren erabilera sustatzeko 11 akordio sinatuz. Gure kideekin batera mekanismo praktikoak ezarriko ditugu Espainiak adimen artifizialean eta hedabideetan duen presentzia sendotzeko, eta desinformazioaren aurkako lankidetzak indartuko da.

Brasilen, Espainiak espainieraren ezagutza eta irakaskuntza sustatzen jarraituko du, Cervantes Institutuen sare zabalaren bitartez –zortzi egoitza, herrialde batek duen zabalena–.

Hazkunderako eta elkarren onurarako aukerak

Latinoamerika eskualde gakoa da Espainiaren oparotasunerako. Eskualde horretaraxe jo zuten lehenbizi Espainiako enpresek nazioartekotze-bidean, lotura humano eta kultural horien guztien ondorioz. Gaur egun, bereziki eragile garrantzitsua da Espainia: 2023an banakako bigarren inbertsio-gile bihurtu zen, guztizko inbertsioaren % 11 eman baitzuen, hau da, eskualdean Europak egindako inbertsio guztiaren % 52. Apustua garbia da: Espainiaren atzerriko zuzeneko inbertsioaren heren bat Latinoamerikara eta Karibera bideratzen da. Alderantzizkoak, Latinoamerikaren inbertsioak 70.000 milioi euro ingurukoak dira, eta, hortaz, eskualdea, batera, Espainiako laugarren inbertsiogilerik handiena da, eta, Mexiko, errenta ertaineko lehen herrialdea, gurean egindako inbertsioei dagokienez.

Europar Batasuna, aldiz, eskualdeko merkataritzako hirugarren kidea da, eta 300.000 milioi euro inguruko trukeak egiten ditu han. Gainera, eskualdeko garapenerako lankidetzako hornitzaile nagusia da. Konpromiso hori merkataritzatik harago doa: EB da eskualdeko inbertsiogile nagusia, atzerriko zuzeneko inbertsioko 700.000 milioi euro inguruko stockarekin, ia hiru milioi lanpostu sortzen ditu bertan, eta Txinatik, Japoniatik, Errusiatik eta Indiatik datozen inbertsioen batura gainditzen du. Posizionamendu hori bereziki esanguratsua da, Latinoamerikako eta EBko ekonomiak oso osagarriak baitira. Elkarrekiko mendekotasun positibo hori oinarri bat izan daiteke balio-kate seguruagoak, dibertsifikatuagoak eta jasangarriagoak sortzeko hainbat sektoretan, besteak beste, energian, eremu digitalean, lehen-gai kritikoetan, bioteknologian eta elikaduran.

Latinoamerikak eta Karibeak eta EBk aukera dute, gainera, interes partekatuak defendatzeko alderdi anitzeko eremuan ahaleginak bateratzeko. Munduko populazioaren % 14, BPGd-aren % 22 eta Nazio Batuetako organoetako 60 bozka biltzen ditugu, eta, batera, munduko erronkei irtenbideak bilatzean eragiteko gaitasun handia dugu.

Zehazki, elkarlan handiagoa lortzen saiatuko gara hainbat esparrutan, adibidez, lankidetzak fiskalean, errenta ertaineko herrialdeentzako garapenerako finantzaketan, biodibertsitatearen babesean eta klima aldaketarako egokitzapenean eta hura

arintzean, baita inklusibotasun handiagoa lortzeko alderdi anitzeko sistema erreformatzean ere. Gainera, lankidetzan jarraituko dugu migrazio erregularraren alde.

MAGREB ETA EKIALDE ERTAINA: BAKEAREN ETA EGONKORTASUNAREN ALDEKO APUSTUA GURE INGURUAN

Magreb, Mediterraneo eta Ekialde Ertainak osatzen duten eskualdean oso garbi ikusten dira munduan gertatzen ari diren aldaketa-prozesuak, estrategia honen lehen zatian deskribatutako desplazamenduak barne. Tentsio eta gorabeherak 2024an jo zuten goia, eta Mediterraneo ekialdea inoiz ikusi gabeko gatazka batean erorarazteko mehatxupean jarri zuten, aurreikusitako ondorioak ekarriko lituzkeen gatazkan jausteko arriskuan.

Espainiak ekinean jarraitu behar du, eta kideen eta aliatuen eskutik lerro sendo eta garbi bat zehazten. Europan, Espainiak ekarpen aktiboak planteatuko ditu Europako instituzioetan, Mediterraneoaren aldeko Ituna praktikan jartzeko, alegia, EBren politika mediterraneorako beste bultzada bat emateko balioko duen tresna.

Espainiak lanean jarraituko du Mediterraneoan, eskualdeen arteko kide eta hura hezurmamitzen duten instituzioak indartzeko: Mediterraneoaren aldeko Batasuna eta Anna Lindh Fundazioa. Bartzelonako Prozesuaren 30. urteurrena den 2025. urteak aukera ezin hobea eskaintzen digu Mediterraneo eta eskualdeen integrazioa Europako eta eskualdeetan agendaren erdigunean jartzeko. Mediterraneoaren aldeko Batasuna arakastaz erreformatzen dela bermatzen saiatuko da Espainia, bitarteko gehiago emanaz eta hura modernizatuz, eskualdeen arteko lankidetzaren bidez erronkei aurre egin ahal izan diezaieten. Batasunak balio erantsi bat du: Israel eta Mediterraneo herrialde arabiarrek kide gisa batera dituen erakunde bakarra da.

Espainiak eginahalak egingo ditu eskualdeko herrialde eta eragileekin aliantzak zabaltzeko. Magrebekin bazeuden eta duela gutxi Qatarrekiko Elkarriketarekin eta Egiptorekiko Elkartze Estrategikoarekin egindako aliantzez gain, Saudi Arabiarekin eta Golkoko beste herrialde batzuekin genuen harremana sakondu da, baita Jordaniarekin ere. Eskualde-mailan, Espainiak Mediterraneoan kide eta horiek hezurmamitzen dituzten instituzioak indartzearen alde apustu egiten jarraituko du.

Gure inguru hurbilenari erreparatuta, Espainiarentzat, Afrika iparraldean lurraldea duenez eta

Magrebeko kostaldearen pareko itsasertza duenez, lehentasun garrantzitsua da Magreberako kanpo-politika. Gure bizilagunen oparotasuna eta egonkortasuna geurek ere badira, eta Espainiarentzat datozen urteetako lehentasunak izan behar du harreman hobeak izatea gure bizilagun hurbilenekin, gure aldeko harremanen potentzialaz baliatuz eta haien integrazioa eta egonkortasun politiko eta sozioekonomikoa sustatzen duten solaskidetzak eta lankidetzak ekimenak babesten jarraituz.

Marokorekiko aldeko harremanak inoizko unerik onenean daude, eremu guztietan lankidetzak indartua baitugu, Goi Mailako Bilerek islatu eta erakutsi dutenez. Aldi berean, Espainiak lanean jarraituko du Aljeriarekin elkarren onurarako harremana bermatzeko, gure lotura saketan eta gure bi herrien arteko adiskidetasun historikoan oinarrituta. Mauritaniari dagokionez, bidaia ofizial gero eta ugariagoak eta Adiskidetasun, Auzotartasun eta Lankidetzak Ituna sinatu izanak frogatzen dute aldeko lankidetzak indartu dela. Hain zuzen, 2025ean Goi Mailako I. Bilera egiteak erakusten du kide sakon baterantz jotzeko borondatea daukagula biok, interes eta helburu komunetan oinarrituta. Tunisiak eta Libiak kide garrantzitsuak izaten jarraituko dute, hala aldeko harremanen ikuspegitik nola Europaren eta eskualdearen mailan ere. Gainera, Espainiak Mediterraneo Mendebaldeari buruzko 5+5 Elkarriketarekin konprometituta jarraituko du.

Gure herrialdeak apustu egin du bakearen, egonkortasunaren, elkarriketaren eta nazioarteko ordena errespetatzearen alde, eta halaxe jarraituko du eremu hartan jardutean. 2023ko urriaren 7ko atentatu izugarrien ondorioz hasitako indarkeria-oldeak agerian utzi zuen erroten aldatu behar zela katigatuta zegoen bake-prozesu baten kudeaketa hutsaren ikusmoldea. Hori berrestean, Espainiak Palestinako estatua aintzatetsi zuen 2024ko maiatzean, beste kide batzuekin batera, eta bi estatuen irtenbidearen aldeko Munduko Aliantza sortu zuen gero.

Ekialde Ertainean bakearen eta egonkortasunaren aldeko apustua egiten jarraitu behar du Espainiak, eta, horretarako, eskura dituen tresna guztiak erabili behar ditu, munduko eta munduko eta eskualdeko foro guztietan era aktiboan parte hartu behar du eta Europaren eta herri arabiarren arteko elkarriketak eta adostasuna sustatu behar du. Espainiak Nazio Batuekin duen konpromisoa izaten jarraituko du, baita Ekialde Ertaineko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziarekin, FINULEkin (Libano), UNSMILEkin, Nazio Batuen idazkari nagusiaren ordezkari bereziekin eta NBEk eta NATOK dituzten misio eta operazioekin ere.

Aurrera egingo dugu **Egiptorekin** 2025eko urtarrilean abiatutako elkartzeko estrategikoa praktikan jartzeko bidean, eta Jordaniarekin aldebiko harremanaren maila igotzeko lan egingo da. Horrekin batera, **Golkoko herrialdeekin** elkarrizketa eta lankidetzak indartzea ere lehentasunezko helburu bat izango da, Europan ere bultzatzen den strategiari jarraituz. Beraz, duela gutxi **Qatarrekin** hasitako Elkarrizketa Estrategikoari **Saudi Arabiarekiko** Elkartzeko Estrategikoa gaineratu behar zaio, zeinak agerian uzten baitu gero eta instituzionalizazio handiagoa eta truke biziagoak daudela.

Halaber, Espainiak **Libanori** lagunduko dio egonkortzen eta suspertzen, eta trantsizio inklusiboa sustatuko du **Sirian**, herrialdea baketzen eta berreraikitzen laguntzeko, eta Irakeko segurtasunarekin eta egonkortze-prozesuarekin duen konpromisoa mantenduko du.

Afrika 2025-2028 Estrategiaren bidez, Espainiak Afrika iparraldeari buruz duen ikusmoldeari Afrika osoko perspektiba eman dio. Mediterraneo da gure garapenerako eta proiektzioarako espazio naturala, eta Saharaz azpiko gure bizilagunengana heltzeko giltza. Espazio partekatatu bat da, eta haren dinamika sozio-ekonomiko, humano, politiko eta segurtasunekoak Afrika osoa eta Ekialde Ertaina barnean hartzen dituen dimentsio baten barnean daude. Hori dela eta, Espainia dagoeneko lankidetzarako eta koordinazioarako aukerak esploratzen ari da, esaterako, Egiptorekin.

Eskualdeari dagokionez, Espainiak apustu egiten jarraituko du aldebiko harremana sakontzeko, baita **EBk Golkoko Lankidetzak Kontseiluarekin duena ere**. Espainiaren asmoa da ikusmolde integratzaile bat sustatzea, EBren hegoaldeko bizilagunen erronkei elkarrekin erantzuteko, Saharaz azpiko Afrikarekin konektatuta

IPAR AMERIKAREKIKO LOTURA IRAUNKORRAK INDARTZEA

Harreman transatlantikoek gure kanpo-ekintzan duten garrantzia ez dago soilik Estatu Batuen eta Kanadaren garrantzi politiko, ekonomiko eta demografikoari lotuta, baizik eta NATOk aliatuak eta Europar Batasunaren kide estrategikoak izateari ere bai. Espainiak lotura sakonak eta balio demokratikoak partekatzen ditu bi herrialdeekin.

Estatu Batuekiko harremana lehentasunezkoa izan da Espainiaren kanpo-ekintzan azken urteotan, balioak partekatzen baititugu. Horrexen erakusgarri da 2022ko presidente-bisita eta bi herrialdeen arteko lehen adierazpen bateratua egin izana, Afganistan ebakutzeko egindako elkarlana eta herrialdetik kanporatu zituzten nikaraguarren harrera ere bai, Estatu Batuetako autoritateekin koordinatu

baitzen, baita batera erabiltzeko oinarriak zabaltzea ere.

XX. mendearen bigarren erditik aurrera Europaren aliatu naturala izan da, baina harreman transatlantikoak fase berrian murgiltzeko etapa politika bat hasi berri du. Espainiaren borondatea da ahalik eta harreman estuena mantentzea, elkarrizketa eta elkarren onura oinarri hartuta.

Espainiak konpromisoa izaten jarraituko du merkataritza transatlantikoaren aldeko esparru baten eta bi noranzkoetako inbertsioen alde, bereziki energiaren, azpiegituren eta teknologiaren sektorean, Estatu Batuak Espainiako lehen inbertsiogile atzerritarra eta Espainiak atzerrian egiten duen inbertsioaren lehen helmuga izateak duen balioa kapitalizatuz, ia 800 enpresa espainiarrek hamarnaka mila lanpostu sortzen baitituzte Batasuneko ia estatu guztietan. EBren eta Estatu Batuen arteko harreman ekonomiko ireki eta arauetan oinarrituen aldeko apustua egiten du Espainiak.

Segurtasunaren eta defentsaren eremuan, 1988ko akordioan oinarritutako lankidetzak sendoa funtsezko elementua da gure kanpo-politikaren alderdi estrategikoan, eta ekarpena egiten dio Estatu Batuak segurtasun euroatlantikoarekin duen konpromisoari.

Hainbat tresnaren bitartez, esaterako, **Espainia-Estatu Batuak Kontseilu Fundazioak** sustatutako urteko foroaren eta **US-Spain Councilen**, Estatu Batuetako Zientzialari Espainiarren Elkartearen eta Atlantikoen bi aldeetako pentsamendu-zentroen bitartez, harreman-sare trinkoa lantzen eta zabaltzen jarraituko da gizarte zibilen, enpresen, instituzio zientifikoen eta akademikoen artean, bereziki Estatu Batuetako komunitate hispanoarekin. 2025ean Estatu Batuen independentziaren 250. urteurrena ospatzea aukera sinbolikoa da Espainiak prozesu historiko horretan egindako ekarpena azpimarratzeko.

Kanada NATOrekin konprometituta dagoen aliatu bat da, eta EBren kide estrategikoa, zeinarekin Espainiak funtsezko balio eta interesak partekatzen baititu. 2022an sinatutako Adierazpen Bateratutik aurrera, Espainiaren eta Kanadaren harremanak inoizko indarrik handiena hartu dute.

Urteko goi-mailako kontsulta politikoei esker, aukera izango dugu ahaleginak koordinatzeko eta helburu komunak ezartzeko, eta segurtasunaren eta defentsaren alorreko lankidetzak indartu egingo da. Kanadaren eta EBren arteko Ekonomia eta Merkataritza Akordioak aldebiko merkataritza handitzeko aukera ematen digu. Espainiako enpresak daude

ingeniaritzaren, garraioaren eta energiaren sektoreetan, eta gure harremanean rol gakoa izaten jarraituko dute. Kulturen eta gizarte zibilen arteko harremanak ere indartu egingo dira, Gazteen Mugikortasunerako Akordioak eskaintako aukerei eta Kanadako zientzia-eta hezkuntza-instituzio nagusietan talentu handiko espainiar ikertzaile ugari egoteari esker.

JAUZI BAT AFRIKAREKIN DUGUN HARREMANEAN

Espainiak etapa estrategiko berria hasi du datozen lau urteetako Afrikarekiko harremanei dagokionez. Kontinentea hain hurbil dagoenez, Ceutan eta Melillan muga dagoenez eta Andaluziako eta Kanarietako kostaldeak Afrikakoetatik hain hurbil daudenez, Afrikako errealitatea gure segurtasunaren eta oparotasunaren elementu bereizezina da. Horregatik, Espainiak bere ahaleginak Afrikan duen presentzia indartzera bideratu du, kontaktu gehiagoren eta inbertsio handiagoaren bitartez, eta eskualde horretara bideratutako garapenerako laguntza ofiziala hirukoiztu du. Ezin ditugu beste hamabost urte eman Kanpo Arazoetako ministro batek Nigeria bisitatu gabe, Afrikako herrialderik populatuena baita, funtsezko energia-hornitzaile bat, baita Afrika Mendebaldeko Estatuaren Erkidego Ekonomikoaren (AMEEE) egoitza ere.

Egindako lanari dagokionez, bada garaia Afrikarekin dugun harremanean jauzi bat egiteko. Horretarako, Espainia Afrika 2025--2028 Estrategia berriak lehentasunezko eskualdetzat jotzen ditu Afrika iparraldea, Afrika mendebaldea eta Sahel, eta helburu gisa ezarri du gure kide afrikarrekin errespetuan eta elkarren onuran oinarritutako harremana sendotzea, baita haien interesak EBn aintzat hartzea ere, harreman estrategiko baten bidez elkarrekin lan eginez.

Afrikako kontinenteak munduko dinamikak eraldatuko dituen egiturazko aldaketak jasaten ari da. Datu demografikoak garbiak dira: 2050erako, Afrikak munduko populazioaren laurdena izango du.

Hurrengo urtean, Saharaz azpiko Afrikan lan egiteko adina dutenek ekonomia garatu guztietan dauden batura gaudituko du. Ekonomiari dagokionez, proiektzioek diote Afrikak munduko BPGd-an duen partaidetza seikoiztu egin litekeela 25 urtean, egungo % 3tik abiatuta.

Espainiak Afrika erdigunean jartzen jarraituko du

Espainiak Afrikako herrialdeekin duen solaskidetza mantenduko du, baita eskualdeko alderdi

Krisi- eta larrialdi-egoeretan arreta berezia izaten jarraituko dugu. Azken urteotan, hainbat krisitan agerian gelditu da kontsulatuaren sareak emandako zerbitzuaren garrantzia. Horregatik, Kanpo Arazo-etak, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak bere bitartekoak eta tresnak hobetzen jarraituko du, espainiarrei arreta hobeto emateko, prebentziorako tresnak eta larrialdi-egoerak kudeatzeko tresnak perfektionatuz. Egoera horretan, deiak hartzeko zentro berri bat osatzeari helduko zaio, kalitate handiagoko zerbitzua emateko, eskuragarri dauden baliabideak optimizatuz.

Gure herritar eta kolektibo zaurgarrienentzako arreta kontsularrari lehentasuna ematen jarraituko dugu, bereziki indarkeria jasan duten emakume eta haurrei. Atzerrian gertatutako emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako ezarritako jarduketako illoak eguneratuko dira aurrerantzean ere, eta indarkeria-mota berriak bilduko dira, adibidez, ziberjazarpena, dokumentu-indarkeria eta atzerrian dauden Espainiako nesken aurkakoa, zuzeneko indarkeria zein indarkeria bikarioa jasaten eta arreta espezifiko behar baitute. Azkenik, sexu-erasoei erantzun koordinatu eta eraginkorra emateko gidalerroak sakonduko dira.

Gure bulego kontsularrek bitarteko guztiak jartzen jarraituko dute, atzerrian dauden espainiarrek bozkatzeko funtsezko eskubidea atzerrian erabili ahal izan dezaten. Halaber, behar diren neurriak hartuko ditugu gure bulego kontsularretan Memoria Demokratikoaren Legearen abaraoan aurkeztutako nazionalitate-eskaerak izapidetzeko.

Atzerrian dauden espainiar herritarrak aktibo garrantzitsuak dira Espainiako gizartearen irudia eta balioak proiektatzeko eta indartzeko. Lau autonomia-erkidegok bakarrik dute atzerrian dauden espainiarren kopurua baino populazio handiagoa. Sare diplomatiko eta kontsularren bitartez, Espainiak atzerrian bizi diren hiru milioi espainiarren eta Administrazioaren artean hurbiltasun eta elkarreagin handiagoa lortzea sustatuko du:

- **Elkarlan egituratua sustatuz** atzerrian dauden sektore pribatuko eta gizarte zibileko eragile espainiarrekin.
- **Atzerrian dagoen diaspora egituratzen eta hari babes profesional orokorra zein espezializatua ematen lagunduz**, adibidez, Espainiar Zientzialarien Elkarteei, beste herri eta jarduera-eremu batzuetan kopiatzeko moduko eredua baitira.

Atzerrian bizi diren Espainiarren Kontseiluak sustatuko ditugu, kontsulatu nagusien buruen organo aholkulari izan daitezen, gure mugetatik kanpo bizi diren espainiar herritarrek instituzioetan parte hartzeko eta haien ezinegonei eta aldarrikapenei ahotsa emateko bide gisa egiten duten lana sakontzeko. Kontseilu horiek atzerrian bizi diren herritarrek ordezkatzen dituzte, denboraren poderioz profil eta behar ezberdinak izatera heldu direnak, eta, beraz, ezinbesteko egokitzapen horretarako bidean aurrera egingo dugu. Halaber, espainiarrek atzerriko beren interesak defenda ditzaten, elkartegintza sustatuko eta babestuko da.

Pertsonak, Kanpo Zerbitzuaren bizkarrezurra

Ez dago kanpo-ekintzarik hura gauzatzen dutenen ezinbesteko lanik gabe. Horregatik, Kanpo Zerbitzua osatzen dutenak dira haren bizkarrezurra: hala funtzionarioak nola kontratatutako langileak, kanpo-sare osoan beren ekarpena egiten dutenak egunero-egunero herritarrei kalitatezko zerbitzu publiko efiziente eta haien beharretara egokitu emateko. Kanpo Zerbitzuko giza kapitalaren ezaugarri bereizgarriak haren konpromisoa eta Espainiari eta espainiar herritarrei zerbitzu emateko bokazioa dira, eta horixe da, zalantzarik gabe, haren aktiborik behinena.

Kanpo-ekintzarako, beraz, Kanpo Zerbitzu moderno bat behar da, herritarren zerbitzura. Horretarako, inbertsioak egin behar dira talentua erakartzeko, gure giza kapitala prestatzeko, eza gutza kudeatzeko eta baliabideak optimizatzeke.

Talentua erakartzea funtsezkoa da egungo erronkei aurre egiteko prest dagoen Kanpo Zerbitzu bat eduki ahal izateko. Eskola Diplomatiakoak zeregin gakoa izango du Espainiako unibertsitateetan Kanpo Zerbitzua hobeto ezagutarazteko eta karrera diplomatikoan sartu nahi duten hautagaiei prestakuntzara heltzea errazteko neurriak hartzeko, enplegu publikoa eskuratzeko berdintasunaren, merezimen- duaren eta gaitasunaren printzipioei jarraituz. Datozen urteotan, karrera diplomatikoan hasten diren funtzionario berrien erritmo bera mantendu beharko da kanpo-ekintza eraginkorra bermatu nahi bada.

Gure lehentasunetako bat izango da karrera diplomatikoko funtzionarioen prestakuntza eta espezializazioa, baita Kanpo Zerbitzua osatzen duten langileena ere. Nazioarteko egoeraren aldaketen abiaduraren eta bizitasunaren ondorioz, langileen prestakuntza eta espezializazioa egungo erronketa egokitu beharra dago.

Horregatik, KELMak bere langileen etengabeko prestakuntza indartuko du, Eskola Diplomatiakoaren bitartez, bereziki, haien gaitasunak eguneratuz eta eremu geografiko eta sektorialetan espezializatuz. Halaber, hizkuntzak ikasteko eskaintza ere indartu egingo da. Karrera Diplomatikoko funtzionarioen gaitasunetan inbertitzeak lagundu egingo du atzerrian gure lurraldearen interesen eta Espainiako herritarren berrabakortze eta defendatzaile diren horien lanaren eraginkortasuna eta inaktua sendotzen eta indartzen.

Espainiarrak nazioarteko organismoetan egotea sustatzea hurrengo urteetarako funtsezko helburu bat izango da. Espainiaren interesak alderdi anitzeko esparruan hobeto ordezkatzeko ahalegina egingo da, goi-mailako zuzendaritza- eta lidergo-postuetan Espainiako herritar gehiagoren presentziaren bidez.

Langileen datuak (2025)



1.110
zerbitzu
zentraletan



4.578
atzerrian



981
langile
diplomatikoak

553
atzerrian

Horrek guztiak lagundu egin behar du gure herritar-rak gaitzen eta alderdi anitzeko gure ekintza indartzen. Helburu honekin, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren Nazioarteko Funtzionarioen Unitatearen rola indartuko da.

Kontziliazioa, berdintasuna eta dibertsitatea, gure Kanpo Zerbitzuaren funtsezko zutabeak. Eskala eta kategoria guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egotea sustatuko da, eta tratu- eta aukera-berdintasun eraginkorra bermatuko. Bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa kontziliatzea sustatuko da, gizarte ekitatibo eta bidezkoago batekin dugun konpromisoaren erakusgarri. Espainiako gizartearen eta lanaren errealitateari egokitutako politikak sustatuko dira, atzerrian dauden ezkontideen eta izatezko bikotekideen enplegurako sarbidea errazteko. Atzerrian dauden funtzionarioen ezkontideentzako eta izatezko bikotekideentzako prestakuntza- eta enplegu-aukerak sustatuko dira, dagoeneko sinatutako nazioarteko itunak aplikatuz edo akordio berriak negoziatuz, halakorik ez dagoen herrialdeetan. Horrez gain, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren lana sustatuko da, era konstante eta aktiboan berma dezan familiek atzerrira egokitzeko behar duten bidelaguntza, bereziki oso familia zaurgarrirei, baita Espainiara itzuli ahal izatea ere.

Arreta berezia jarriko zaio indarkeriaren eta lan-eta sexu-jazarpenaren prebentzioari, baita babes berezia behar duten egoerei ere, esaterako, genero-indarkeriaren biktimek bizi dituztenei. Gainera, Kanpo Zerbitzuaren eremu guztietan dibertsitatea eta inklusioa sustatuko duten ekimenak indartzen dira, bereziki LGBTBI+ pertsonen eskubideei dagozkienak. Ildo horretan, arreta berezia jarriko diogu atzerrian izatezko bikoteak eta sexu bereko bikoteak egiaztatzeari.

Orobat, desgaitasuna dutenen eskubideak era aktiboan sustatzea bultzatuko da, gure atzerriko egoitzetan irisgarritasuna sustatuz, egoitza elektronikoaren eta web atariaren bidez, eta herritarrei eskainitako zerbitzuen bitartez.

Ekonomia- eta merkataritza-diplomazia

Atzerriko sektorea gakoia izan da Espainiaren hazkunde ekonomikorako eta enpleguaren sorkuntzarako. Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa eta atzerriko inbertsioa Espainiako ekonomiaren hazkunderako, produktibotasunerako eta erresilientziarako zutabeak dira oraindik ere, eta, beraz, Espainiako enpresen nazioartekotzea sustatzen jarraitu beharra dago.

Espainiak bere diplomazia ekonomikoa sustatuko du, enpresen lehiakortasuna eta nazioartekotzea

eta inbertsioak erakartzea sustatzera bideratutako tresna ekonomiko eta politikoak indartuz. Gure enpresei lagunduko diegu, merkatuak dibertsifikatzeari, mendequotasunak txikitzeari eta merkatu gakoetan zabaltzeari arreta jarritz, Espainiako Ekonomia Nazioartekotzeko 2025-2027 Ekintza Planari jarraituz. Arreta berezia jarriko zaie enpresak han ezartzeko laguntza politikoa behar den herrialdeei.

Bereziki garrantzitsua da Espainiako atzerriko Misio Diplomatikoetan Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoen sare zabalak egiten duen lana, funtsezko zutabeak baitira Espainiako enpresei atzerrian laguntzeko, haiek hasieran instalatzen laguntzen baitute, baita haien jarduerak garatzen ere. Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoen sareak 98 bulego ditu, 77 herrialdetan banatuta, eta, beraz, ia mundu osoa hartzen dute. Sare hori funtsezko tresna estrategikoa da enpresen nazioartekotze-prozesurako, aholkularitza espezializatua eta informazio ekonomikoa ematen baitute, merkataritzako aukerak identifikatzen baitituzte eta merkatu bakoitzeko behar espezifikoetara egokitutako babes instituzionala ematen baitute. Babesa etengabe emango da, baina maila politikora helduko da da Kanpo Arazoetako Ministerioen arteko kontaktuetan, baita beste herrialde batzuetako ordezkari politikoekiko solaskidetzarako eskumena duten bestelako departamentuetan ere.

Horren osagarri dira Espainiako diplomazia ekonomikoa aberasten eta indartzen duten organismo publiko gako batzuen ahaleginak. ICEX Espainia Esportazioak eta Inbertsioak nabarmendu beharra dago, lan eskerga egiten baitu enpresak atzerrian sustatzeko, prestatzeko eta nazioartekotzeko laguntza emateko. Halaber, CES-CEK (Esportaziorako Kredituen Aseguruetarako Espainiako Konpainia) merkataritzako arriskueta-rako eta arrisku politikoetarako funtsezko estaldura ematen du, eta, hortaz, herrialdeen artean transakzio seguruagoak egitea errazten du. Halaber, COFIDESek (Garapena Finantzatzeko Espainiako Konpainia) tresna finantzario egokituak eskaintzen ditu, Espainiaren inbertsio produktiboa atzerrian bultzatzeko, bereziki gorabidean eta garapen-bidean dauden merkatuetan. Azkenik, TURESPAÑAk ezinbesteko zeregina du Espainiako sektore turistikoa nazioartean sustatzeko, herrialdearen irudia bultzatzen baitu, eta munduan Espainia turismorako punta-puntako helmuga gisa duen presentzia eta aitortza handitze laguntzen baitu.

Aireko, itsasoko eta lurreko lankidetzaren globalizazioaren motor gakoak dira, herrialdeen arteko konektagarritasuna handitzen, nazioarteko merkataritza sustatzen eta munduko ekonomian inpaktu nabarmena sortzen dutelako. Hala eta guztiz ere,

sektoreak etengabeko erronkak ditu, esaterako, segurtasun-estandar handiak bermatzeko, ingurumen-jasangarritasunari heltzeko eta aldaketa teknologikoetara egokitzeko beharrak. Espainiak aireko garraiorako alde biko eta alderdi anitzeko akordioak egitea sustatuko du, bere konektagarritasuna indartuko, merkataritza erraztuko eta turismoa sustatuko dutenak. Espainiak Abiazio Zibilaren Nazioarteko Erakundean arauak eta estandarrak mundu-mailan harmonizatzea sustatuko du. Itsasoko sektorea kritikoa da nazioarteko merkataritzarako, salgaien % 80 itsasontziz garraiatzen baitira. Espainia itsas tradizio aberatseko herrialde bat da, munduko merkataritzarako kokapen estrategikoa duena. Horregatik, lankidetzak akordioak sustatuko dira itsasaren eremuan, merkataritza-bideen segurtasuna indartzeko eta ozeanoen garapen jasagarria eta itsas ingurunearen babesa sustatzeko, Nazioarteko Itsas Erakundean parte hartuz, bereziki.

Diplomazia publikoa, kulturala, hezkuntzako eta hizkuntza-diplomazia

Espainiak bere diplomazia publikoaren eta komunikazio estrategikoaren eragina indartzeko ahalegina egingo du, atzerriko gure ordezkaritza duten ahotsa eta jarduerak indartuz eta Etxeen Sareak (Afrika, Amerika, Arabiarra, Asia, Mediterranea, Sefarad-Israel Zentroa), Kontseilu-Fundazioen Sarea, Carolina Fundazioa eta FIAP (Administrazioko eta Politika Publikoetako Nazioarteko eta Iberoamerikarako Fundazioa) parte hartzen duten organismo-sare zabal bat koordinatzea sustatuz, haien lana ezinbestekoa baita Espainiaren irudia eta interesak atzerrian proiektatzeko. Atzerriko kultur-ekintzaren beste subjektu batzuen lana gehitu behar zaio horri, adibidez, Espainiako Kultur Ekintzak (AC/E) egindakoa.

Espainiako kultura eta hizkuntzak sustatzea oso aktibo garrantzitsua da gizarte moduan berezi egiten gaituzten balioak proiektatzeko, baita gure indarguneak ere, alderdi hertsiki politiko edo ekonomikotik harago. Espainia lanean arituko da tresna horiek gure harremanak eta nazioarteko gure presentzia indartzen lagun dezaten.

Lanean jarraituko dugu eskubide kulturalak sustatzeko eta kulturak GJHak erdiesteko egindako ekarpena handitzeko. Harreman diplomatikoen oroitza (adibidez, Espainia-Koreako Errepublika 2025) eta urte dualak (Espainia-India 2025) sustatuko dira, eta alde biko akordioak egitea ere bai, hainbat alor era jasagarrian kudeatzeko, esaterako, ondarea, arkeologia, artxiboak, liburutegiak, museoak, ikus-entzunezko ekoizpenak eta arte eszenikoak; kultur kudeatzaileen gaitasunak indartzeko; lan-eskubideak eta sorkuntza- eta katedra-askatasuna babesteko; eta nazioarteko gatazketan ondarea babesteko,

bereziki Ekialde Ertainean eta Ukrainan.

Gure industria kultural eta sortzaileen posizioa indartuko da nazioarteko merkatuetan. Espainiar sortzaileen lehiakortasuna eta mundu osorako irismena indartzeko, hainbat programatan parte hartzea sustatuko da, adibidez, Europa Sortzailea, Culture Compass eta IBER progametan. Horrekin batera, kultura- eta sorkuntza-sektoreen mugikortasuna, trukea eta profesionalizazioa lehenetsiko dira, baita Europeanarekin batera egindako ekimenak ere. Espainiak nazioarteko jaialdi eta merkatuetan duen presentzia handitzeko ahalegina egingo da. Halaber, 2025eko Mondiacult eta 2025-2026ko Europalia babestuko dira.

Espainiak diplomazia kulturala sustatzen jarraituko du, baita kultura garapen jasagarriko faktore gisa ere, eta Espainiak UNESCOn eta gainerako foroetan lidergoa izatea ere bai. Halaber, Espainiako kultura eta arteak sustatuko dira kanpoan, Kultur Gaien Kontseilaritzen eta Arduraduntzen sarearen bitartez eta GNLEAK Iberoamerikako eta Afrikako Kultur Zentroen eta Prestakuntza Zentroen ekintzaren bidez.

GNLEAK nazioarteko gaikuntzari eta mugikortasunari ekarpena egiten jarraituko du, herrialdeentzako eta espainiar herritarrentzako lankidetzak deialdien bitartez eta lektoretzetarako deialdien bidez.

Arreta berezia jarriko zaio gure ondare historiko eta kulturala nazioarteko lankidetzak handiagotzeko bitartez sustatzeari. Ahalegin horrek aukera eman go du ondareko ondasunen zirkulazioa sustatzeko, gure legatuari ikusgaitasun handiagoa emateko eta Espainiak kulturaren alorreko mundu-mailako erreferente gisa duen irudia indartzeko.

Espainiak hezkuntzako kanpo-ekintza bultzatzen jarraituko du, zeinak 134.000 ikasle inguru baititu 47 herrialdetan, Espainiako hizkuntza eta kultura gero eta hartzaile ugari eta askotarikoagoetara hurbiltzeko. Enbaxadetan hezkuntzako kontseilaritzak eta agregatutzak ezarri eta hezkuntza-programetako eta -zentroetako irakasleen bidez, Espainiak kultur loturak eta ezagutzen trukea indartzen jarraituko du.

Bereziki garrantzitsua da espainiera –eta hizkuntza koofizialak– sustatzea, Cervantes institutuaren lanaren bitartez, zeina 45 herrialdeko 90 hiritan baino gehiagotan baititu zentroak, ikasgelak eta eranskinak. Islatuta geldituko da Espainiak bere hizkuntza-ondarea zabaltzearekin duen konpromisoa, zentro berriak irekiko baititu eta eskaintza akademikoa, kulturala eta prestakuntzako sendotuko baitu, Espainiak irakaskuntzaren eremuan duen lidergoa indartzeko. Espainiaren Munduko Behatokiak (Cervantes institutuari atxikiak) inpaktu

handiko proiektuak identifikatuko ditu, gure hizkuntzak eraldaketa digitalerako prozesuetan indartzeko.

Kirol-diplomaziak gure herrialdearen irudia eta ospe ona indartzen jarraituko du. Espainiak gure kirolarien arrakastaz eta federazio eta kirol-kluben indarraz baliatuko da gure kirola eta haren potentzial ekonomikoa hezurmamitzen duten balioak proiektatzen dituen kirol-diplomazian aurrera egiteko, eta, hala Espainiaren nazioarteko proiektzioa sendotzeko. 2030eko Munduko Futbol Kopa Espainian, Portugalen eta Marokon egiteak ahalegin horretan lagunduko du.

Diplomazia zientifikoa eta teknologikoa

Espainiak berrikuntza irekiko eta inpaktu-eragileko eredu bat sustatuko du. Atzerriko gure kontseilaritza kultural eta zientifikoaren bitartez, ICEXek eta Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroaren (GTBZ) nazioarteko ordezkartzen sarearen bidez, lankidetzak zientifiko eta teknikoko hobiak topatzeko lanak bultzatuko dira, gure lehiakortasuna handitzeko, eta, gainera, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatuko da, Espainiak nazioarteko lehiaketetan parte hartzea bultzatzeko. Espainiako zientziaren sektoreko eragile guztien arteko koordinazioa eraginkorra dela segurtatuko da, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Espainiako Estrategiaren gidalerroei segitzen zaiela. Horrez gain, Atzerrian dauden Espainiar Zientzialari eta Ikertzaileen Elkartearen Sarearekiko (RAICEX) elkarlana indartuko da, funtsezko eragileak baitira Espainia nazioarteko ikerketa-sareekin lotzeko.

Lankidetzak zientifikoa bultzatzen saiatuko gara, garapen jasangarri eta ekitatiborako tresna gisa, bereziki Afrikan eta Latinoamerikan. Espainiak ebidentzian oinarritutako politikak ezartzea bultzatuko du (adibidez, Science4Policyren bidez), eta munduko erronkak ebazteko ikerketa sustatuko du, baita jabetza industriala ere, garapenerako tresna gisa.

Hainbat alor lehenetsiko dira, adibidez, elikaduraren segurtasuna, osasun-zerbitzuetarako irispide unibertsala, mikrobioen aurkako erresistentzia; pandemietarako prestaketa; osasun digitalaren alorreko mundu-mailako estandar eta politika definitzea eta sustatzea; baita gaixotasun infektzioen, ahaztutako gaixotasun tropikalei eta gaixotasun kutsaezinen aurkako borroka ere.

Espainiak Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Espainiako Sistema nazioartekotzea bultzatuko du, baita Unibertsitateen Espainiako Sistema nazioartekotzea ere. Berrikuntza-ekosistema sendo bat finkatzeko, unibertsitateen, enpresen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzak sustatuko da, jabetza industrialeko tituluen bidezko teknologiak garatzeko eta babesteko, eta berrikuntzako talentua eta inbertsioa erakartzeko gaitasuna indartzeko. Egoera horretan, gure unibertsitate publikoak beste herrialde batzuetakoei elkarlanean aritzea bultzatuko da, diziplina zientifiko eta teknologikoetako unibertsitate-prestakuntza sustatzeko, eta jabetza industriaren nazioarteko organismoetako partaidetza ere bai, eta ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen mugikortasuna sustatuko da. Halaber, Espainiaren partaidetza eta erakarpenean indartuko da azpiegitura zientifiko eta teknologikoetan, baita hainbat ekimenetan Espainiak duen lidergoa ere, esaterako Espainiak Europa Ortzimugan, Europako Ikerketa Espazioan, Goi-mailako Hezkuntzako Europako Espazioan, Erasmus+ mugikortasun-programetan. Horrez gain, I+G+b erakundeetan, esaterako Ikerketaren Europako Kontseiluan eta Ikerketa Nuklearrerako Europako Zentroan (CERN) espainiarrek ardura handiko postuak izatea ere bultzatuko da. Halaber, eskualdeko eta alderdi anitzeko ikusmoldea indartuko da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Diplomaziaren Europako Esparrua eta Diplomazia Zientifikoaren Sare Iberoamerikarra finkatzea bultzatuz eta EB-MaB elkarlana sustatuz, Europako eta Mediterraneoko diplomazia garatzeko.

ERANSKINA:
100 EKINTZA
BAINO GEHIAGO
2025-2028
ALDIRAKO



EKINTZA OROKORRAK

1. **Sare diplomatiko eta kontsularra eguneratzea** Kanpo Ekintzako Estrategiaren lehentasunei jarraituz, Espainiak atzerrian duen presentzia berrorientatzea eta gure ingurune estrategikoan zabalkunde diplomatiko unibertsala lortzea.
2. **Baliabideak lehenestea** gure ingurune estrategikoekiko harremanak indartzeko.
3. **Ministerioen arteko koordinazioa** indartzea, kanpo-ekintzaren alorrean. Trantsizio ekologikoaren eta eraldaketa digitalaren inguruko koordinazioa eta kanporako proiektzioa indartzea.
4. Hiru hilean behin **ministerioen arteko bilerak egitea Espainiak** beste herrialde eta foro batzuetan **duen presentzia koordinatzeko**, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak dei eginda, ministerioen edo estatu-idazkaritzen mailan.
5. Espainiaren kanpo-ekintza **ekonomia zatikatuago batera** egokitzea, zaurgarritasunak eta mendekotasun zibil eta militarrek identifikatuz, baita alderantzizko mendekotasunak ere. GEBDan **segurtasun ekonomikoari buruzko lan-talde bat** sortzea.
6. **Kanpo Zerbitzuan** mailaka **adimen artifiziala ezartzea**, efizientzia handitzeko eta herritarrei zerbitzu publiko hobea emateko.
7. Kotsulatuen laguntza eta babesa hobetzea, **arreta berezia** jarrita atzerrian dauden **gure herritar eta kolektibo zaurgarrienei**, bereziki indarkeria jasan duten emakume eta haurrei.
8. **Kanpo Zerbitzuan kontziliazio-, berdintasun- eta dibertsitate-neurriak sustatzea.**
9. Kanpo Zerbitzua indartzea, **talentua erakarriz eta prestakuntza zabalduz.**
10. Enbaxadetan eta kotsulatueta **diplomazia publikoa** sustatzea, antzeko gizarte zibilak dituzten herrialdeetan **interes-taldeak** sortuz eta abiaraziz.
11. **Nazioarteko erakundeetan espainiarrak egotea bultzatzea.** Zuzendaritza- eta lidergo-postuetarako espainiar hautagaiei babesa eskainiko zaie.
12. **Espainiarrek atzerrian Espainiako ordezkartza diplomatikoekin eta kontsularrekin duten elkarre-ragina sustatzea**, baita atzerrian bizi diren espainiarren artekoa ere.
13. **Larrialdietako Dibisio Kotsularraren** zuzkidura hobetzea, larrialdi kotsularreko deiak jasotzeko zentro berri batekin, eta azken urteotan langile-taldea eta instalazioak indartzeko egindako lana sakonduz.
14. **Espainiako Ekonomia Nazioartekotzeko 2025-2028 Ekintza Plana** ezartzea. Besteak beste, nekazaritzako elikagaien alorreko merkatu berrietara joko da, adibidez, Asiakora, eta orain artekoak sakonduko dira; gainera, **Espainiaren Elikagaien Estrategia** garatuko da, elikagaien eta gastronomiaren alorreko potentzia gisa dugun posizioa indartzeko.
15. **Nazioarteko talentua erakartzeko lana handitzea**, zientziako, teknologiko, ingeniariatzako eta matematikako nazioarteko ikasleen zenbakia % 15 handitzeko, epe luzean.
16. Espainiako **hizkuntzen proiektzioa handitzea. Espainieraren Munduko Behatokia** bultzatzea, Cervantes Institutuko zentroak elkarrekin lotzen dituen sarearen ardatza baita. **Hezkuntzako kanpo-ekintzaren programak** sendotzea eta indartzea. Estatuko Administrazio Orokorraren unitateen arteko koherentzia eta koordinazioa lortzea Espainiako hizkuntzak eta kultura zabaltzeko, eta, bereziki, espainiera atzerriko hizkuntza gisa irakasteko irakasleak prestatzea.
17. **Kanpo-ekintza autonomia-erkidegoekin, hiri autonomoekin eta tokiko entitateekin koordina dadila sustatzea.**
18. **Espainiako diplomazia publikoaren tresna nagusiak bultzatzea:** Etxeen Sarea, Fundazio-Kontseiluen Sarea, Carolina Fundazioa eta FIAP.
19. **Parlamentu-diplomazia sustatzea** Gorte Nagusien eta Europako Parlamentuaren ekimenei babesa emanaz.

20. Nazioarteko harremanetan espezializatutako **Espainiako pentsamendu-zentroei laguntzea**. Espainian dauden prestigiodun atzerriko pentsamendu-zentrozen jarduna eta Espainiako pentsamendu-zentroekin duten harremana sustatzea.
21. **Gure ingurune estrategikoko gizartearen ezagutza indartzeko plan bat** garatzea (unibertsitateak, pentsamendu-zentroak, gizarte zibila).
22. Kanpo-sektorean **prospektibarako eta gobernantzarako gaitasunak** handitzea.

EUROPA INDARTU BAT

23. **Urte Anitzeko Esparru Finantzario handiago eta egokiago bat** sustatzea, gure **erronka komunei erantzuteko**, Europako ENGaren % 2koa, Europako ondasun publikoen babesa bermatzeko eta aldi berean EBren berezko eredu ekonomiko eta soziala babesteko.
24. **EB koherente eta dinamikoagoa** lortzeko lan egitea, itunpetze-mekanismo bizkorragoak abian jarri eta gehiengo kualifikatua nahikoa den kasuak zabalduz.
25. **Barne Merkatua erreformatzea eta sakontzea**, aurrezpenaren eta inbertsioen Batasunean aurrera egitea eta bankuen Batasuna eta kapital-merkatuen Batasuna osatzea.
26. **Merkataritzak elementu geostrategiko gisa duen merkataritza-politikaren potentziala** handitzea, hirugarrenekin merkataritzako akordio malguak sustatuz.
27. **Global Gateway estrategia** sustatzea, EBk hirugarren herrialdeetan dituen inbertsio jasangarriak sustatuz, bereziki Latinoamerikan eta Karibean, Hegoaldeko inguruan eta Afrika mendebaldean egindakoak.
28. **Mugitzeko askatasunaren printzipioaren eraginkortasuna** mantentzeko lan egiten jarraitzea, herriartarrei zirkulazio librerako Schengen espazio bat eskainita.
29. **Europako instituzioen demokratizazio handiagoa** sustatuko duten **ekimenak bultzatzea**, herriartarrek prozesu politikoetan eta legegintzakoetan gehiago parte hartzea eraginez, eta, aldi berean, zuzenbide-estatuaren tresnak indartuz, besteak beste, Urte Anitzeko hurrengo Esparru Finantzarioaren baldintzazkotasuna.
30. **EBren hizkuntza-aniztasuna eta Espainiako hizkuntza** koofizialak Europako instituzioetan **erabiltzea defendatzea**.
31. **Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesiorako Batasunaren politikak** indartzea, eta Eskualde Ultra-periferikoen (EUP) araubide berezia babestea eta mantentzea, baita gure autonomia-erkidegoek makroeskualdeetan parte hartzea sustatzea ere.
32. **Eskubide Sozialen eta Europako Agenda Sozialaren Europako Zutabea** sendotzea, Europako herriartarren bizi-baldintzak hobetzeko eta gure gizartearen eraldaketa handiek dakartzaten erronka berriei aurre egiteko.
33. **Hezkuntzarako Europako Espazioaren** eta hezkuntza-sektoreko gaitasunen garapena bultzatzea, Erasmus+ programa sustatuz.
34. **Hezkuntzak Europako balio komunak** sendotzeko duen **rola** indartzea, EB hezkuntza-curriculumean txertatuz.
35. **2025ean eta 2026an** Espainia eta Portugal Europako Erkidegoetara sartzearen **40. urteurrena** oroitzeko ekimenak sustatzea eta garatzea.
36. **Kanpo Ekintzako Europako Zerbitzuari eta Europako Batzordeari** laguntzea EBren kanpo-ekintzarekin, Espainia EBko instituzioetan egotea era koordinatuan sustatuz.
37. **Gure ingurune estrategikorako garrantzi berezia** duten **kidetzei** EBk jarraipen eta tratamendu politiko egokia ematen diela bermatzea.

ESPAINIA KONPROMETITU BAT

ALDERDI ANITZEKO SISTEMA BABESTEA, ERREFORMATZEA ETA INDARTZEA

38. Espainiaren balioak eta lehentasunak sustatzea parte hartzen duen nazioarteko erakundeetan. Arauetan oinarritutako alderdi anitzeko sistema defendatzea, baita nazioarteko zuzenbidearen, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen ingurukoaren errespetua ere.
39. 2031-2032 aldirako **Espainia Segurtasun Kontseiluaren kide hautatzea lortzeko kanpaina** jarraitzea.
40. Era aktiboan parte hartzea, 2025-2027 aldirako **Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluko kide** hautetsi gisa, baita 2026ra arte **ECOSOCeko kide** hautetsi gisa ere.
41. Nazioarteko justiziako mekanismoen lanentzako baliabide finantzarioak eta humanoak eta babes politikoak handitzea, bereziki **Nazioarteko Zigor Auzitegiari** eta **Nazioarteko Justizia Auzitegiari** emandakoak.
42. **Kanpo Politika Feministaren 2025-2028 Ekintza Plana** idaztea eta aplikatzea, baita **Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren III. Ekintza Plan Nazionala** ere.
43. **Alderdi anitzeko eremuetan emakume gehiago** egoteko ekimenak sustatzea.
44. **Parisko Klubean eta G20an** gardentasuna eta efizientzia bultzatzea.
45. **Zergen Alorreko Nazioarteko Lankidetzari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren** proiektua babestea, baita BEPS “2. zutabea” (zergapetze globaleko mailarik txikiena) osorik aplikatzea ere.
46. **Laneko Eskubideen Munduko Gutuna** sustatzea, laneko eskubideen oinarritzko zorua era unibertsalean aitor dadila lortzeko.
47. **Laneko genero-berdintasuna** sustatzea, eta **LGTBI+ pertsonak sexu-orientazioagatik, sexu-identitateagatik eta genero-adierazpenagatik baztertzearen kontra borrokatzea**, NLEk sustatutako Soldata Berdintasunaren aldeko Nazioarteko Koalizioaren (EPIC) eta Justizia Sozialerako Munduko Koalizioaren bitartez.
48. **Desgaitasuna dutenen eskubideak era aktiboan sustatzea**, gure kanpoko eta Europako ekintza-aren eremu guztietan.
49. **Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala**, **Enpresa Digitalak Nazioartekotzeko Estrategia**, **Teknologia Kuantikoaren Espainiako Estrategia** eta **Zibersegurtasunaren Estrategia** berria ezartzea.
50. **Diplomazia Digital eta Teknologikoko** koordinazio nazionalerako mekanismoa eta “**2030 Espainia Digitala**” marka garatzekoa sortzea, gure gaitasun digitalak erakusteko. Errendimendu Handiko Ordenagailuen (EHO) indarrak baliatzea, esaterako, Bartzelonako MareNostrumenaz, etorkizunean munduko sare batean parte hartu ahal izateko.
51. **Zibersegurtasunaren alorreko lidergoa sustatzea** nazioarteko organismoetan, bereziki Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunean, baita kide eta aliatuekin lankidetzak-akordioak sinatzea ere, Latinoamerikan, bereziki.
52. **Eskubide digitalei buruzko konpromisoak sustatzea** Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Teknologiaren Munduko Foroan eta Giza Eskubideen Nazio Batuen Kontseiluan.
53. Akordioak egitea **ekosistema digitalean balio-kateak bermatu ahal izateko eta espainierazko AA ereduak sustatzeko** (ALIA), xede-herrialdeko datuekin entrenatuz, eta Barcelona Supercomputing Centerreko superkonputazio-gaitasunak haien zientzialariekin partekatzea.
54. **Sektore pribatuaren eta publikoaren arteko lankidetzak eta berrikuntza irekia** sustatzea, hiru-garren herrialdeetako entitateekin sinergiak ahal beste handitzeko, **teknologia disruptiboaren alorrean**, eta, gainera, inbertsio berritzailearen fluxuak eta gure hornidura-kateen segurtasuna bultzatzea.

MIGRAZIO SEGURU, ANTOLATU ETA ERREGULARRA SUSTATZEA

55. **Migrazio eta Asilo Ituna** osorik aplikatzea, EBko estatu kide guztien artean erantzukizuna berdintasunez banatzeko.
56. **Migratzaileen jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeekin lan egitea**, bereziki gure ingurune estrategikoan, haiekin lankidetzara eta elkarlana indartuz.
57. **Nazioarteko babeserako eskubidearekiko konpromisoa mantentzea**, eta arreta berezia jartzea zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen.
58. Beso-beso lanean jarraitzea **Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandataritzarekin** (UNHCR) eta **Migratzaileentzako Nazioarteko Erakundearekin** (IOM).
59. Espainiarentzako garrantzi handiko herrialdeekin **migrazio zirkularrerako akordioak** egitea.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA EKINTZA HUMANITARIOAREN ALDEKO APUSTUA EGITEA

60. **Goi Kontseilua, Garapen Jasangarrirako eta Mundu Mailako Elkartasunerako Ministerioen arteko Lankidetzara Batzordea eta Garapen Jasangarrirako Sektoreko Konferentzia** abian jartzea, koordinazioa indartzeko eta bermatzeko lankidetzaren sistemako eragileek eraginkortasunez eta ondo lerrokatuta parte hartzen dutela.
61. **Garapenerako Laguntza Ofizialerako 2030erako (GLO) Errenta Nazional Gordinarekin (ENG) % 0,7ko** legezko konpromisoa betetzeko bidean aurrera egitea, eta GLOaren % 10 ekintza humanitaria bideratzea.
62. Lankidetzaren finantzarioaren alde egitea, **Garapen Jasangarrirako Espainiako Funtsa** (GJES) abian jarri.
63. **Kooperatzaileen eta langile humanitarioen segurtasuna** handitzea.
64. **Gure lankidetzaren gardentasuna, kontu-ematea, inpartekatu eta ebaluazioa hobetzea**, Espainiako Lankidetzaren Ebaluatzeko Bulego berria abian jarri.
65. **Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko IV. Konferentzia antolatzea Sevillan**, zeinak nazioarteko komunitatearen politikak eta baliabideak 2030 Agendarako eta GJHetarako abian jartzea sustatu beharko baitu.
66. Madrilera egitea **TOSSDari buruzko Nazioarteko Foroaren Batzar Nagusia**, garapen jasangarrirako babes ofizialaren fluxuen multzoaren jarraipena mundu-mailan sustatzeko ardura duen organismoarena, alegia.
67. **Espainiak GJHetarako Funtseko Bateria egindako ekarpena handitzea, 120 milioi eurora arte**, eta Xede Berezietarako Funtseko Fiduziariorako ekarpenak handitzea, lehen hamar emaitzen artean egon arte.
68. **Garapen Jasangarrirako Alderdi Anitzeko Politikaren Estrategia** berria aplikatzea eta **Espainiako Lankidetzaren Elkartze Esparru Strategikoa** berrien sorrera sinatzea nazioarteko hainbat organismoekin.

LARRIALDI KLIMATIKOARI ETA BIODIBERTSITATE-LARRIALDIARI AURRE EGITEA

69. Europar Batasunak **2050erako klima-neutritasuna lortzeko**, 2030erako emisioen % 55 murrizteko bitarteko helburuak erdiesteko lanak bultzatzea.
70. **Nazioarteko Finantzaketa Klimatikoaren Espainiako Estrategia** garatzea.
71. Ingurumenerako Nazio Batuen Programak (INBP) sustatutako **Gai Kimikoetarako, Hondakinetarako eta Kutsadura kontrolatzeko Zientzialari Taldea** sendotzearen alde egitea.
72. **Biodibertsitatearen Kunming Montreal 2030 Munduko Esparrua** aplikatzea.

73. **Itsasoko azaleraren % 30ren babesa eta kudeaketa bermatzea** 2030erako.
74. **Espezie basatien legez kanpoko salerosketaren eta ezkutuko harrapaketaen aurkako Espainiako Ekintza Plana** onestea eta aplikatzea.
75. **Deforestaziorik gabeko produktuak merkaturatzeko Europako Erregelamendua (EUDR)** Europar Batasunetik kanpo aplika dadila sustatzea.
76. **Basoko Suteei buruzko Nazioarteko Gobernantza Esparrua** aplikatzea eta sustatzea.
77. **Baliabide Hidrikoen Kudeaketa Integrala** eraginkortasunez aplika dadila sustatzea, baita klima-alaketarako uraren bide-orri nazionalak garatzea ere, GH6ko Esparru Azeleratzailearen Uren Alorreko Gaitasunak Garatzeko Ekimenaren bitartez.
78. **Lehortearen kontrako Erresilientziarako Nazioarteko Aliantza (IDRA)** bultzatzea, Espainiak eta Senegalek sustatutakoa.
79. **Frantziarekiko interkonexio elektrikoa hobetzea**, 2.800 MW-tik 5.000 MW-era, 2030erako eta 8.000 MW-era arte gero, eta 4.200 MW-era arte Portugalekin, epe laburrean.

BAKEA ETA SEGURTASUNA ERAIKITZEN DUEN ESPAINIA

80. **Segurtasunaren alorreko ahalegina handitzea: inbertsioa mailaka handitzea**, Defentsaren Europako oinarri teknologiko eta industrial indartzea eta Espainiako defentsa-industriak hartan duen partaidetza handitzea.
81. **Kide proaktibo eta eraikitzailea izatea Kanpo Politikaren eta Segurtasun Komunekeo Politikaren alorrean**. Posizioari eta lanari buruzko dokumentu informalek (non papers) aurkezpena sistematizatzea.
82. **NATOn Hegoalderako Agenda** sustatzea.
83. **Armagabetzea, armamentuaren kontrola eta ez-ugaritzea**: armamentua kontrolatzeko arkitektura mantentzeko eta teknologia sentikorren transferentzia eta arman legez kanpoko desbirtatzeak prebenitzeko ahaleginetan buru izatea.
84. **Mahai operatibo bat ezartzea Espainiako defentsa-industriaren kanpo-politikaren eremuaren inguruan**, eta bertan parte hartuko dute Kanpoko Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak; Defentsa Ministerioak; Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak; eta Industria eta Turismo Ministerioak, **aldizkako bilerak eginez defentsa-industrian egiazko diplomazia espainiarra antolatzeke eta gauzatzeke**.
85. Koordinatzeko ahalegina egitea **zehapenak eta murrizketak** negoziatzean, kudeatzean eta aztertzean.
86. **Nazioarteko bitartekaritza-tresnen aldeko apustua** egitea, Bakerako Toledoko Nazioarteko Zentroaren (CITpax) lanei berrekitea barne.

ESPAINIA MUNDUAN

EUROPA GEHIAGO, EB-TIK HARAGO

87. **Goi-bilerak erregulartasunez egitea** Frantziarekin, Alemaniarekin, Italiarekin, Portugalekin, Poloniarekin eta Errumaniarekin, eta Turkiarekin, eta haien edukia indartzeko jarraipen-mekanismoak ezartzea.
88. **Ukrainarentzako babesari** eustea alor guztietan, berreraikitzea barne.

89. **EB handitzearen alde** egitea, Granadako Adierazpenean ezarritako baldintzen arabera, eta **EBren erreforman era aktiboan parte hartzea**. Europar Batasuna Mendebaldeko Balkanetara eta beste herrialde hautagai batzuetara zabaltzeko prozesuan bidelagun- eta bultzatzaile-lanetan aritzea.
90. **EBk Erresuma Batuarekin dituen harremanak sendotzea**, Brexitaren ondorengo etapa berrian, elkarrentzako sektore interesgarrietako lankidetzak sustatuz: segurtasuna eta defentsa, merkataritza, trantsizio energetiko eta digitaleko lankidetzak, eta alor judizial eta polizialeko lankidetzak.
91. **EBren eta Erresuma Batuaren artean Gibraltarr buruzko akordio bat** lor dadila sustatzea.
92. **MED9ko estatu kideen koordinazioa bultzatzea**, hala EB barruko gaiei buruzkoa nola Europar Batasunaren hegoaldeko bizilagunei eta eremu mediterraneoari buruzko interesen proiektzioa lortzekoa.
93. Europa hegoaldeko herrialdeekin, herrialde eskandinaviarrek eta herrialde baltikoekin **eskualdeko itunpetze-foroetan gure presentzia eta parte-hartzea sustatzea**, esaterako, Hiru Itsasoen Ekimenean, Slavkov Foroan eta Valentziako Hirukoan (Poloniarekin eta Errumaniarekin batera).

LATINOAMERIKA ETA KARIBEA: AGENDA PARTEKATU BATERAKO ALIATUAK

94. **Eskualdeko herrialde guztiekin harremanak indartzea**, bereziki kide estrategikoekin, **baita eskualdeko eta eskualde azpiko lankidetzak eta integrazio-organismoekin ere**.
95. **Latinoamerika eta Karibeko herrialdeekiko harremanen bektoreak zabaltzea**, bereziki batera identifikatutako lehentasuneko alorretan: trantsizio digital, ingurumeneko eta sozial hirukoitza; gizakien mugikortasuna; segurtasunik ezaren aurkako borroka, instituzionalitate demokratikoa indartzea; alderdi anitzeko foroetako itunpetzea eta lankidetzak.
96. Espainiako Pro Tempore idazkaritzaren bitartez, **Konferentzia Iberoamerikarra eta goi-bileren sistema indartzen laguntzea**.
97. Eskualde biko **EB-CELAC elkarteak sendotu dadila bultzatzea**.
98. **EB-MERCOSUR Akordioa berresteko prozesua bultzatzea**.
99. Babes politikoa mantentzea **Kolonbiako** bake-prozesuaren eta **Haiti** egonkortzearen alde.
100. **Venezuelako** krisi politikorako irtenbide baten bilaketa lehenesten jarraitzea, herrialdeko eragile politikoen arteko solaskidetzara animatuz, eta venezuelar guztien askatasun publikoak eta funtsezko eskubideak babesteko balio duten neurriak babesten jarraituz.
101. **Latinoamerika eta Karibeko herrialdeekin batera alderdi anitzeko diplomazian, zientzian eta teknologian espainiera sendotzea**, nazioarteko harremanetan espainiera sustatuz, besteak beste, askotariko gorteetan, nazioarteko justizia-organismoetan (Arbitrajeko Gorte Iraunkorra, Nazioarteko Zigor Auzitegia, Nazioarteko Justizia Auzitegia, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko Hagako Konferentzia, Nazioarteko Zuzenbideko Akademia eta Zuzenbide Pribatua Bateratzeko Nazioarteok Institutua).

MAGREB ETA EKIALDE ERTAINA: BAKEAREN ETA EGONKORTASUNAREN ALDEKO APUSTUA GURE INGURUAN

102. **Harreman estrategikoak** garatzea, bereziki Golkoko herrialdeekin, aldebiko harremanak indartuz, eta, gainera, jarduketak bateratuta eta osagarria esploratuz.
103. **Elkarriketa euroarabiarra** sustatzea alderdi anitzeko ekimenen bidez, esaterako, EBren eta Estatu Arabiarren Ligaren arteko eta EBren eta Golkoko Lankidetzak Kontseiluaren arteko elkarriketaren bitartez.
104. Politika integratzaile bat sustatzeko asmoz, **kontinente osorako bokazioa** duena, Saharaz azpiko Afrikari buruz Mediterraneoko kideekin ditugun trukeak garatzea, baita Espainiaren, Mediterraneoko kideen eta Saharaz azpiko Afrikako arteko harreman triangeluak ere.

105. **Europar Batasunak hegoaldeko bizilagunekin dituen harremanak indartzen direla bermatzea**, Mediterraneorako Itun berria eginez eta aplikatuz eta Europar Batasunaren eta Hegoaldeko Bizilagunen lehen goi-bilera egin dadila sustatuz.
106. Itunpetzea eta solaskidetza sustatzea, **alor humanitarioko eta garapenaren arloko** jarduketetako beste emaleekiko lankidetzaren bidez ere bai, arreta berezia jarritz gatazken ondorengo egonkortze-lanetan (lotura hirukoitza: humanitarioa/garapena/bakea).

IPAR AMERIKAREKIKO LOTURA IRAUNKORRAK INDARTZEA

107. **Pentsamendu-zentroekiko elkarlana** sakontzea, Espainiaren interesei heltzen dieten programa espezifikoek eta espainiar funtzionario eta adituentzako ikerketa-egonaldiak bitartez.
108. Interes komunekin alorrei edo gaiei buruzko **aldebiko lan-taldeak** berritzea.
109. Espainiak egiten duen ekarpena ezagutaraztea, **Estatu Batuen independentziaren 250. urteurrenaren ospakizuna dela eta (2026)**.
110. **Espainia-Estatu Batuak Fundazio-Kontseiluaren lana babestea**, elkarrekiko interesen sarea ikusarazteko, hainbat tresnaren bidez, esaterako, **foroek, bisitarien programen eta erakusketa ibiltarien bitartez, eta, horrez gain, komunitate hispanoekin ezarritako lan-ildoak sakontzea**.
111. Espainiako **gizarte zibil antolatuen eta Ipar Amerikako haren bazkideen arteko elkarlana sakontzea**, esaterako, Estatu Batuetako eta Kanadako Zientzialari Espainiarren Elkarteak sustatzea.
112. **Kanadarekin batera poloko gaitan** elkarlanerako ildoak garatzea.

JAUZI KUALITATIBO BAT AFRIKAREKIN DUGUN HARREMANEAN

113. **Afrikarako Ministerio arteko Konferentziaren rola sakontzea**, Afrikako kontinentean gure kanpo-ekintzen koordinazioa eta koherentzia bermatzeko.
114. **Afrika Fundazioa** ezartzea Afrikarekiko harremanak sustatzeko eta gazteentzako aukera akademikoak eta lanekoak sortzeko, beken eta bisitarien programaren bitartez.
115. Hainbat ekimen abian jartzea, esaterako, **África Avanza aliantza**, inbertsio jasangarria sustatzeko, eta AFRICO, Espainiako eta Afrika mendebaldeko Merkataritza Ganberen Elkarteak.
116. **Espainia-Afrika Kontseilu Aholkulari bat eta Kontseilu-Herrialde Fundazioak** sortzea.

ESPAINIAK ASIA-OZEANO BAREAN DUEN LORRATZA SAKONTZEA

117. **Elkarriketa egituratuak indartzea**, 12 elkarriketa egituratuak lankidetzak-akordiorik ez duten herrialdeetara zabalduz, bereziki Asia hego-ekialderantz.
118. **Bidaia- eta bisita- fluxu erregularra bermatzea eskualdeko herrialdeekin**, estrategia honekin sortuko den ministerioen arteko taldearen bitartez.
119. **Eskualdearekin batera segurtasunaren eta defentsaren alorreko lankidetzak sustatzea** (defentsa-industria barne) eta Espainia segurtasunerako foroetan dagoela bermatzea, adibidez, Shangri-Lako Elkarriketa.
120. **ASEANekiko harremanaren maila handitzea**, lankidetzako kide kategoriara.
121. **Cervantes institutuen eta ikasgelen sarea indartzea Asia-Ozeano Barean**.
122. **Asia Etxearen eta Fundazio-Kontseiluen bidez**, dagoeneko badauden foroak egitea (6) eta eskualdeko beste herrialde batzuetara zabaltzea, esaterako, Australiara, Indonesiara, Pakistanera eta Vietnamera.

KAUKASON ETA ASIA ERDIALDEAN DUGUN PRESENTZIA SENDOTZEA

123. Asia Etxeko foroen sarea Asia erdiguneko eskualdera zabaltzea (Kazakhstan).
124. Lankidetza-akordiorik ez duten herrialdeekin **elkarrizketa egituratuak** zabaltzea, bereziki Asia erdialdearekin.
125. **Lankidetza ekonomikoa handitzea** merkataritzako eta inbertsioko aukerei probetxua ateratzeko eta **segurtasunaren eta defentsaren alorreko lankidetza indartzea**, defentsa-industria barne.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN